


ttipi-ttapa



BETI GAZTE POSTERRA / 32




DIREN BEZALA ONARTZEAREN ETA MAITATZEAREN GARRANTZIA

Naizen Adingabe Transexualen Familien Elkartearen arabera, «norbera da neska edo mutila den dakiena eta badira zakila duten neskak eta alua duten mutilak. Ez da erabaki bat edo ez da sentimendu bat, giza aniztasunaren bertze adierazpen bat baino ez da». Eskualdeko bi familiaren bizipenak bildu ditu TTIPI-TTAPAK. / 10

KEPA ORBE

Kamioiak desbideratzeko eskaria


Kamioiak A-15era desbideratzeko eskatzen duen herritarren plataformak 3.000 sinadura bildu ditu. / 23



Leitzako plazako murala egin duen Berako Unai Ruizekin solasean / 8



Diskoa argitaratu du Olaia Iantzi Lesakako musikariak / 18



Aitor Iturralde Azpilketako alkatea esku artean dituzten proiektuez aritu da / 44

SINADURAK

 KORO IRATZOKI ARBURUA / 3	 AITOR AROTZENA ALBIZU / 3
 JOSEBA URROTZ TELLETXEA / 4	 IZASKUN REKARTE BENGOTXEA / 4



ZOZKETA / 64

BERA LESAKA

Agenda 2021

UZTAILA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

LESAKAKO
UDALA

1-22 UZTAILA

ARGAZKI ERAKUSKETA ESPRESIO TRANSITORIOAK (MOI RUIZ DE AZÚA)

Lekua Kultur etxeko erakusgelan
Ordutegia 10:00-14:00 / 15:00-18:00
 Asteartetik igandera irekia
 (astelehenetan itxia)
 Igandeetan eta besta egunetan arratsaldez itxia

BERA

3 LARUNBATA

DANTZA EMANALDIA TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA

18:00 Udal pilotalekuko atzekaldeko apar-
 kalekuan (euria egin ezkerro bi saio egingen
 dira Harriondoan, 18:00etan eta 19:00etan)

LESAKA

9 ORTZIRALEA

KONTZERTUA SARA ZOZAYA

19:00 Herriko etxeko plazan

BERA

3-25 UZTAILA

ARTE ERAKUSKETA IKASTOLAKO IKASLE OHIAK

Lekua Komentuan
Ordutegia 16:00-20:00
 Ikasle ohiak Maddi
 Irazoki, Unai Ruiz, Jone
 Taberna, Irantzu Pastor,
 Kemen Pumar, Andrea
 Gouraud

LESAKA

3 LARUNBATA

KONTZERTUA LENOIR GANG

19:00 Altzateko plazan

BERA

10 LARUNBATA

MERKATUA BERTAKO EKOIZLEEN MERKATUA

10:30-13:30 Beralandetan

BERA

Liderrak gure eskualdean

ttipi-ttapa
30.000 irakurle

SEXUAREN ARABERA

%54,8
EMAKUMEAK

%45,2
GIZONAK

ADINAREN ARABERA

Adina	Irakurle %
14-19 urte	12,1
20-24 urte	6,3
25-34 urte	8,8
35-44 urte	9,5
45-54 urte	24,9
55-64 urte	17,9
+64 urte	20,5

IKASKETA MAILAREN ARABERA

Maila	Irakurle %
Oinarritzko ikasketak	21,8
Oinarritzko batxillergoa	12,2
Goi mailako batxillergoa	29
Unibertsitatea	37

DATU ITURRIA: CIES, 2021eko lehen neurteta

SINADURA: Ttipi-Ttapa

2 ttipi-ttapa | 785 zk. | 2021-07-01



NIRE TXANDA

KORO IRAZOKI ARBURUA

Pribilegiatua naiz

Ia-ia egunero badut momenturen bat non pertsona pribilegiatua naizela sentitzen dudun.

Konturatua naiz nik normaltzat hartzen ditudan gauzak jende aunitzatzat luxu bat direla: behatz batekin klik egin eta argia pizten zait; txorrota bati buelta eman eta ur garbia daukat; pixa edo kaka egin eta zulo batetik desagertzen da; bizitzeko etxe bat badut; osasun arazoak izan eta medikua dohainik dut; ez dut goserik pasatzen...

Eta pribilegiatua sentitzen naiz, badakidalako badirela milioika lagun elektrizitaterik gabe bizi direnak; uraz hornitzeko zakurraren-ipurdian dagoen putzuraino joan behar dutenak; zura eta plastikoz egindako etxola miserableetan bizi direnak; beren beharrak bazter bateko zulo batean egin behar dituztenak; egunero jaten ahal izateko arazo haundiak dituztenak; medikura joateko kilometroak oinez egin behar dituztenak...

Hitz hauek etorkin batenak dira: «Pribilegiatua baldin bazara, konpartitu ezazu». Zeinen eskaera logikoa eta justua.



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Futbola vs. politika

Indultu kontuak bolo-bolo dabiltzan honetan futbolarekin nator berriz. Osasunako futbolari bat Voxeko Abascalaren esaldi bat zuen kamisetarekin agertu da eta sutan jarri ditu sare sozialak... Berak ez dakiela politikaz, barkamena eskatu eta, gehienek, barkatu egin diote. Iaz *Altsasukoak aske!* zioen kamisetarekin agertzeagatik taldetik bota zuten atezain bat.

NABARMENTZEKOAK

IKER
GOMEZ
LEITZAIRAITZ
URIARTE
LEITZA

Lerro hauek idazterakoan Linzatik Leitza bitarteko kirol erronka egin gabea zuten Iker Gomezek eta Iraitz Uriartek, baina euren kirol erronkaren bueltan Leitza herri inklusiboa bihurtzeko sortu den egitasmoa izugarria izan da, txalotzekoa. Eta Gomezek eta Uriartek lortuko dute kirol erronka edo ez, baina Mikel Illarregiren hitzak ekarri, «herrira itzuliko dira txaloen berotasun berdina jasota»; merezi dutelako.

ATZERA BEGIRA



2011-06-23 · TTIPI-TTAPA · 545 zk.

Abeltzaintzaren egoeraz Altzuartekin

Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren duela hamar urteko egoera «ezin txarragoa» izan zuen hizpide Mikel Altzuart Arizkongo abeltzainak eta EHNEko zuzendaritzako kideak TTIPI-TTAPAN. «Nekazaritzako ekonomian talde ekonomiko nagusiak eta diruarekin bertze sektore batzuetan espekulatzeko dakitenak sartu dira eta espekulazio horrekin abeltzainak gara galtzaile nagusiak». 2008ko krisiak bete-betean jo zuela kontatu zuen, baina «2008koa larria bazen, 2011n makurrago gaude», erran zuen. Abeltzaintzan gastuak % 20 igo zirela adierazi zuen, baita «aldaketa gizartetik hasi» behar dela ere: «etxekoa baloratzen hasiz». Horrez gain, honela gaineratuz zuen: «ez dakit zein desagertuko garen lehenago, apaizak ala nekazariak».



erran.

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Nerea Bazterrika,
Ruben Oskariz, Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odrizola
Arantza Agirre
Usua Vicente
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagaien,

Maider Petrirena, Oihana
Kalparsora, Fermin Etxekolonea,
Aintzane Leiza, Pablo Irastortza,
Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari
Barriola, Marga Erdozain, Maitane
Maritorea, Arantxa Iturralde,
Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier
Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione
Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebrea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdi Aklarre elkarte
2021eko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi 40€
eta Malerreka 30€
Leitza 30€
Hego Euskal Herria 48€
Ipar Euskal Herria, Europa 94€
Amerika eta Australia 140€



KOLABORAZIOAK

JOSEBA URROTZ TELLETXEA

Hil da Jainkoa (3). Osasuna eta askatasuna

Mantso-mantso ari naiz puzzlea osatzen hasierako galdera haren erantzunaren bila, alegia, ea Jainkorik gabe bizitzeko gai ote garen. Gero eta susmo gehiago ditut ez dela hala. Jainkoa zer izan daiteken, hori hurrengo baterako.

Osasuna eta askatasuna leloa ere etorri zait gogora, nonbait ijitoek gogoko dutena, hitz bikote adierazgarria.

Zer da osasuna? Definizio ofizialarekin ados egonen gara denok ere: organismoak, normaltasunez, bere funtzio guztiak egiten dituen egoera da osasuna. Baina nire ustez, kontua da nola, edo zer egin behar den egoera hori lortu edo eusteko.

Ematen du honezkero eta aspalditik, erabat barneratua dugula mediku eta adituek dakitela nola izan osasuntsu. Badakit ez naizela egiaren jabe, baina uste dut, hasteko, osasuna norberaren ardura dela, bakoitzak zaindu behar duena, eta horretarako garrantzitsua dela gure gorputza eta arima ezagutzea. Gure bizimoduak, pentsatu, erran eta egiten dugunak eragina duela, eta kontua ez dela botika hau edo hura hartzea edo bakterio edo birusen erasotik salbu izatea osasuntsu izateko. Alegia, bakoitzak gure etxea garbitzen dugun bezala, guk geuk zaindu behar dugu gure osasuna.

Eta askatasuna... Gizakiok dugun fakultatea, gure ardura-pean, gauzak egin edo ez egiteko. Lehen ere aipatu ditut eta ez dakit merezi duen berriz ere aipatzea, azken urte pasa honetan izan ditugun askatasun mugak, osasunaren izenean bada ere.

Eta honatx hitz bikotea

buelta emana: osasunaren gordetzea bertzeen eskuetan utzi dugu, haiek agintzen dutena egiten dugu, askatasunak berekin duen ardura ere haien eskuetan utziz. Borobila benetan: osasuna eta askatasuna, geuronak ditugunak, agintarien esku utziak. Adibide bezala, idazki hau agertzerako, kendua izanen da kanpoaldean maskara erabiltzeko agindua, agintariak erabakia «gure onerako».

Akitzeko, Jainkoaren kontua. Aspaldixko ohartu naiz lehen erlijioaren dogmak ukatzen zituztenei 'hereje' deitzen zitzairen bezala, orain, bertsio ofizialean sinesten ez dugunoi 'negazionista' deitzen digutela.

Hortaz, uste dut, gizakiak zer baitetan sinesteko beharra ez duela galdu, Jainkoa aspaldi hil genuen, baina bere ordeztu bertzera dugu, zientzia, alegia. Dogma bihurtu da, eta gehien-goak sinesten du, kristau gehienek biblia irakurri gabe sinesten duten bezala, publikazio zientifikoak edo txertoaren prospekturik irakurri gabe.

Bizia ulertzeko, zientzia hutsa ez da aski, espiritualitatea ere beharrezkoa dela uste dut.

Dagoeneko nabaritu dut bertsio ofiziala sinesten ez dugunenganako mespretxua, baita gogorkeria ere. Ikusiko dugu noraino ailegatzen den hau, ignorantzia jakinduria baino itsuagoa baita, ea inkisiziorik izanen den, edo nolabaiteko gerra zibilik. Jainkoak ez beza nahi. Hala bedi.



IZASKUN REKARTE BENGOTXEA

Udako bestak

Uda ailegatu da, eta horrekin batera udako besten egutegi zabala: sanpedroak, sanferminak, santiagoak, sanestebanak, santiburtzioak, amabirjinak... Bigarren urtez, gure besta egiteko modua aldatu eta ez-bestak izanen ditugu gure herrietan. Baina, zoritxarrez, oraindik ere gure artean da gaitza, eta ez naiz Covid-19az ari. Bestaren testuinguruan, bertze hainbatetan bezala, emakume izate hutsa zaurgarritasun bat da heteropatriarkatuaren izenean. Berdin du nolako emakumea zaren, altua, ttikia, lodia, argala, gaztea, heldua, polita, ez hain polita, gonaduna, beltzarana... zortea zure kontra bada, eta behar ez denarekin topo egiten baduzu, zuri ere gerta dakizuke. Emakume izateak bortxagarri egiten gaitu.

Eta hau guztia jakinda ere –eta eskerrak– egunez zein gauez dantza eta irri lasai egiten dugu, bakarrik bidaiatzera ausartzen gara, nahi dugun arropa janzten dugu, laztanak eman eta jasotzen ditugu, jaietara joaten gara, xirriak egiten ditugu... eta, denaren gainetik, bizi gara. Anitzek horrelakorik nahi ez badute ere. Karrika zanpatzen dugun bakoitzean ez dugu zertan inposatu diguten zaurgarritasun eta ahultasun hori gainean eraman. Gizarte guztiak badaki gauez –eta kasu batzuetan egunez ere– hainbat tokitatik pasatu behar izateak

«EZETZA EZ DELA ULERTZEN EZ DUENAK HOBE DU ETXEAN GELDITU»

emakumeoi beldurra ematen digula. Baina, norbait seinalatzen kotan, ez ni seinalatu. Izan daitezela bortxatzaileak seinalatuak.

Ez da emakumeon errua gure izterrek, arropek, makillajeak, dantza egiteko

moduak edo dena delakoak inoren kontrolatu ezinezko desio sexuala piztu izana. Desioa piztu dizun lagunarenagan hurbildu eta honek ezezkua ematen badizu, sentitzen dut, baina besta bertze modu batean segitu beharko duzu. Hemen, bakoitzak maneiatu behar ditu bere ezinegonak.

Gaur egun edozergatik paratzen omen ditugu salaketak emakumeok. Bertzalde, egunerokotasunak bertze errealitate bat erakusten digu. Hilabete honetako berriak ditugu hauek: apiriletik aitzak bahituta zituen bi alabetako baten gorpua topatu dute Tenerifeko uretan. Aitzak bahiketa hau bikote ohia den haurren ama zigortzeko egin du. Aste berean, Madrilgo taula gainean txalotua izan da Placido Domingo tenorea hainbat emakumeren gehiegikeria eta jazarpen salaketak izan ondotik. Maiatz hondarreko astean sei emakume erailak izan ziren beren bikotekide edo bikotekide ohiaren eskuetan. Eta datuak goitirantz doaz.

Badakit beti erretolika berdina aditzeaz nazkatuta zaudetela, baita gu zabarkeria hau jasateaz ere. Horregatik, eta 2021eko udako ez-bestak ahal bezain ongi pasatzeko, dantzatu, irri egin, laztandu, maitatu, edan, kantatu, jan eta batez ere, errespetatu. Eta ezetza ez dela ulertzen ez duen horrek hobe izanen du etxean gelditu.

11 GALDERA LABUR

LUTXI IRIBARREN ETA TEHEXA ALDUNTZIN SARATARRAK

«Gazteok bizi dugun errealitate batetik atera dugu inspirazioa»

Euskaltzaindiak antolatutako Resurreccion Maria Azkue Literatura Sarietara aurkeztu dute sarako bi gazte hauek *Elena Barrutia*, haien literatur lana, eta bigarren postua lortu dute narrazio sailean.

Nola aurkeztuko zenituzkete zeuen buruak?

Etxepare lizeora doazten 16 urteko bi saratar gara.

Noiztik ezagutzen duzue elkar?

Betidanik. Ikastolan, kolegioan eta lizeoan elkarrekin ibili izan gara eta herrian ere lagunak gara.

Zein dira zuen zaletasunak?

Tehexa: Zaletasun berezirik ez dut baina gauza aunitzek interesa sortzen didate.

Lutxi: Nire zaletasun handiena *sauvetage côtier* egitea da (kirol salbamendua).

Azkue Literatura Sarietara aurkeztu duzue “Elena Barrutia” lana. Zergatik?

Desafio maneran aurkeztu ginen, kapable ginela ikusteko. Ttikitan istorio bat idatzi genuen eta hortik ere etorri zitzaigun motibazioa.

Bigarren saria lortu duzue. Irabaztea espero zenuten?

Ez genuen uste irabaziko genuenik. Gainera, berant igorri genuen eta ez ginen segur parte hartu genuenik ere.

Zer kontatzen du zuen lanak?

Neska kirolari baten istorioa da, konfinamenduan eguneroko bat idazten hasten dena. Ipuinean aipatuak dira bere konfinamenduko bizipenak, kirola, amodio istorio bat eta anorexia. Bukaera tragiko batekin finitzen da.



Nondik atera duzue istorioa idazteko inspirazioa?

Gazteok bizi dugun errealitate batetik atera dugu inspirazioa. Gero, ideiak idatzi arau etorri zaizkigu.

Nolakoa izan zen sari banaketaren esperientzia?

Guretzat horrelako lehen esperientzia izan zen, biziki serioa eta zeremoniala, ez batere usaiakoa.

Etorkizunean literatur lanak sortzen segitzea gustatuko litzazueke?

Egia erran oraingoz ez dugu batere horretan pentsatu, beharbada egunen batez...

Zeintzuk dira zuen asmoak epe motzera?

Biziaz ahalik eta gehien profitatzea.

Eta epe luzera?

Familia bat, lan finko bat, *etxe ttipitto*, *aitzin zuri bat*, *lau haitzondoren erdian*, *zakur zuri bat atean*, *iturritto bat aldean*... (irri artean) sinesten duzu zuk?

Udako merkealdia



70. urteurrena

1951tik

Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak

Mantelak

Kuxinak

Edredoi nordikoak

Ohe estalkiak

Maindireak

Toailak

Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Nafarroako hizkuntzaren lazeriak

GERMAN GORRAIZ OTSAGABIA

*Lingua Vasconum Primitia*eren sorrerian, Nafarroako Erreinu Zaharrean, hain zuzen ere, euskararen etorkizuna kolokan dago, zeren Nafarroa Oinezen oihartzun mediatikoaz gain, errealtate gordinak frogatzen du Nafarroan euskararen hedapena geldialdirantz doala, azken 15 urteotan gorakada bat izan bada ere.

Nafarroako euskararen egoera zalan-tzagarria ikusirik, gogoeta sakonaren eta kritika eraikitzailearen beharra dugula ondorioztatu daiteke. Euskararen ahuleziak euskaraz bizitzeko konpromisoa hartzeko eskatzen digu, hots, euskaldunok erabiltzen dugun euskara gaurkotu, hobetu eta bere erabilera areagotzea eta erdaldunek euskara ikas-teari gogotsu ekitea; euskararen erabilerran baitago etorkizunaren giltzarria.

Beraz, Nafarroako euskararen geldialdia saihesteak ahalegin eskerga eskatuko digu euskaldunoi eta 'fosilizazio' hori ekiditeko euskararen aldeko aurrekontuak areagotzea premiazkoa da, baita euskara eguneroko bizitzaren arlo guztietan ikusgai izatea ere, Nafarroan bizi garenontzat euskara ondasun kulturala eta batzeko tresna bilaka dadin.

Tamalez, administrazio publikoan euskararen erabilera arautuko duen Nafarroako Gobernuak Foru Dekretu berrian eremu ez-euskaldunetako euskararen balorazioa desagerraraziko du. Horri D ereduan matrikulak gutxitzea eta PSNren eta Nafarroako Suma ingelesaren aldeko jarrera gehituz gero, horizonte zalantzagarri bat izanen du

euskarak, eta hori dela eta, euskararen aldeko mobilizazio orokorra aldarrikatzea premiazkoa da.

V. Ibardingo Igoera

JAIONE IRAOLA ROZAS

Duela gutxi, ekainaren 5ean, V. Ibardingo Igoera ospatu zen Beran. Ohikoa bihurtu da auto-lasterketa ospatu aurretik, aste batzuk lehenagotik, kotxeak ziztu bizian ibiltzea errepide horretatik. Horrek arrisku larria dakar gainontzeko gidarientzat (gehienak Ibardingo langileak), txirrindularientzat eta inguruko bizilagunontzat. Egoera okerrera doa rallyaren bezperan, ilunabarretik gaueko ordu txikietaraino abiadura izugarrian pasatzen diren kotxe kopurua haunditzen baita.

Gure etxea errepide bazterrean dago. II. Ibardingo Igoeraren bezperan, kotxe batek talka egin zuen etxearen kontra. Aurten, berriro. Ibilgailu batek gure etxeko barandaren kontra jo zuen lasterketaren egunean. Hau ez da kasualitatea, lasterketaren inguruan sortzen den giroaren ondorioa baizik. Giro horrek herritarron segurtasuna arriskupean jartzen du.

Oraingoz, etxearen kontra jo dute, lautik bietan. Zer izanen da hurrengoa? Argi dago arriskua hor dagoela, eta hor jarraituko duela lasterketa mantentzen den bitartean. Probabilitate kontua da. Hala behar luke?

Ezbeharren bat gertatu behar ote da pertsonen segurtasunak lehentasuna izan dezan? Halakorik behar ote dute antolatzaileek edota froga baimentzen dutenek? Galdera horiek egiten dizkiot neure buruari eta hortxe uzten ditut hausnarketarako.

BOTA BERTSOA

OIER
ARRUABARRENA
IRURTZUN

LESAKAKO
BERTSOLARIA
BAZTAN-BIDASOKO
BERTSOPAPER
LEHIAKETAN
A MAILAN 1. SARIA



Covid

Doinua: Markosek egin eban

*Egun batean ginen
oso lasai itxin
pandemia etorri da
ta ezin dut deus egin
konfinatuak gaude
Ta maskarillakin
denei egiten zaigu
oso desatsegin.*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

EUSKARAREN TXOKOA

Zaindu maite duzun hori...

Kalko ustelak

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

*Ez duzu zertan etorri beharrik

Euskaltzaindiaren arabera, **Ez daukazu zertan kezkatu beharrik*, **Ez duzu zertan etorri beharrik* moduko egiturek ez dute tradizioz. Bakoitza bere aldetik erabiltzea egokia da:

-Ez duzu zertan etorri edo Ez duzu etorri beharrik

Baina bien gurutzaketa okerretik sortzen da akatsa; bi egiturak elkarrekin nahasi gabe jokatu behar da, galdetzailea (ZERTAN) eta behar izan aditza bateraezina dira.

-*Ez duzu zertan etorri behar > Ez duzu zertan etorri(rik).

-*Ez duzu zertan etorri beharrik > Ez duzu etorri beharrik.

-*Ez daukazu zertan kezkatu beharrik > Ez duzu zertan kezkatu / Ez duzu kezkatu beharrik

Laino eta laño

Bi hitz dira *laino* eta *laño*.

Laino hitzak **behe-lainoa**, **lanbroa**, **gandua** erran nahi du eta zenbait tokitan **hodei** hitz hedatuagoaren sinonimoa da.

Laño, ordea, **apalaren** sinonimoa da. Horrekin batera, **laua** ere erran nahi du

-Itsasoa laño dago = Itsasoa bare dago.

Bitxikeriak

Lurdes Irigoinen aranztarrak eman du atal hau egiteko bidea, gure euskalkiaren aberastasunak nabarmendu nahi dituelako. Hainbat hitz eta esapide bildu ditu, eta horietako bat ekarri dugu aldi honetan Euskararen Txokora: **Gorotz**.

Irigoinenek erran bezala, «gorotz hitza hagitz hitz arrunta dugu, batez ere, baserri giroan, lur eta landarediari botatzen zaion ongarria da. Baina gure eskualdeko euskalkian bertze erranahi bat ere badu, nahiko berezia kanpokoentzat, hain ezaguna ez dena»:

-Alfer gorotza da > Hagitz-hagitz alferra dela erran nahi du, ez duela kolpe zorrik jotzen, alegia.

-Asper gorotz eginga dago > Arront aspertua dagoela, ikaragarri aspertua dagoela, erran nahi du.

Eskerrik asko, Lurdes!

Bikoteak

Nola osatuko zenituzke bikoteak?

Zingil
Kisuskile
Ilupa
Igan
Kaixo
Hola

Ganoragabea
Igo
Hepa
Igeltsero
Horrela
Mehe

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...
Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61



Unai Ruiz bere estudioko erakusleihoan, Palestinako sarraskia gogoan 2005ean egindako bere margolana ondoan duela.

«Gelditzen ikasi behar dugu, ondotik birsortzeko»

UNAI RUIZ GALARTZA BERA KO MARGOLARIA

Leitzako plazako frontisaren gibleko aldean mural ikusgarria margotu du Leitzan bizi den artista beratarrak. Begiradari tranpa eginez, harrizko pareta «garden bihurtu» du

G. PIKABEA | BERA

Hurrekin hezitzaile lanetan, ostalaritzan, itxi berri duten Abarun Aurtizko aterpean, irakaskuntzan... aritua da Unai Ruiz Galartza (Bera, 1983), baina pintura da bere pasioetako bat. Hala izan da ttikitatik, «betitik edozein gauza ikusi eta hori margotzeko curiositate» izan baitu. Zaletasun horri bide emateko aukera izan du urteotan. Haurra zela, «sei

zazpi urterekin, Juan Karlos Olaetxea margolariarekin» ibili zen. Gero, batxilergo artistikoa ikasi zuen: «lehenbiziko promozioa izan ginen» eta ondotik, Arte Ederrak ikasi zituen. Ez da hasiberria margotzen, baina bereziki ezagun egin da berriki Leitzako plazako frontisaren gibleko aldean egin duen murala.

Arreta handia bereganatu du Leitzako plazako muralak...

Leitzako Udalaren enkargu bat izan da. Plazako frontisaren gibleko aldean zer egingen nukeen galdetu zidaten eta hain toki polita eta berezia izanik, garbi nuen inguruarekin bat zetorren zerbait egin behar nuela. Bi ideia aurkeztu nituen. Hasiera batean, Leitzako Ingurutxoaren inguruan zerbait egitea pentsatu nuen eta bertze proposamena gero-
ra bururatu zitzaidan, irudia

lekuan oraindik gehiago integratzeko kezkatik sortua: *tranpantojo* bat egitea. Betitik izan dut bat egiteko gogoia, gai izan nintzela uste nuen, baina ez nuen behin ere egin. Udalak proposamen hori aukeratu zuen eta horrekin hasi nintzen.

Zaila izan da?

Uste baino denbora gehiago pasatu dut. Bikotekidearen laguntza handia izan da, ni garabiaren gainean egonda, buelta aunitz aurreztu ditut, bere ikusmen milimetrikotan konfiantza osoa baitut. Izan ere, puntu bakarretik ikusten baita irudia perfektu. Pare pare ikusita dena deformatua dago, zabaldua eta zapaldua. Zorionez deformazio hori ez da gehiegizkoa izan, nire beldur handi bat hori zen, paretan lehenbiziko marrazkin egin aitzinetik ez nekielako zenbateraino deformatuko ote zen irudia bertze puntuetatik ikusita. Aieneko garbilekuaren iturriko bigarren eskaloi erdialdean jarritz hasten da jolasa. Aste bat eta erdiko lana izan da, pareta bera laukietan banatu, puntu horretatik argazkia atera eta horren gainean zirriborroa marraztuz gero paretara islatzeko, berriz argazkia atera, berriz gainean marraztu ... laugarren egunean lehendabiziko pintura kapak etorri ziren. Pareta horren azala hagitik laktatzen eta porotsua da eta pintura uretan aunitz disolbatu behar izan dut. Margotzerako garaian, hainbat adin eta gustutako jendea kontuan izaten saiatu naiz. Niretzako lan bat izan balitz, segur aski emaitza bertzelakoa izanen litzateke, leku batzuetan paretaren gordintasuna airean utzi izanen nuke, margo tantoak bere horretan utziz eta kolore biziagoak erabiliz... Baina kasu honetan, bereziki leitzarrentzat egindako lana izanik, plazaren kutsua mantentzea zen helburua, eta margotzen ari nintzen bitartean hartu nituen herriarren mezuak aintzat hartuz hala egin behar nuela berretsi nuen. Zahar eta gazte, ideia-

rekin kontent ikusi ditut, asmatu dudala erran didate eta hagitz kontent nago.

Aspaldi hasia zara pintatzen. Zure muralak Beran, Lesakan... ikus daitezke, eta Leitzan ere ez da bakarra...

Estudioa irekitzearekin batera, Leitzako Harri-Hari Tokian 301K-ren lokala irekitzear zela, mural bat margotu nuen barranean eta argazki baten kopia kanpoan. Egin ditudan mural aunitz taldean egindakoak izan dira, Berako Kaxerna Gazte-txeko partaide izanda. Granadan ere gaztetxe eta eskoletan muralak pintatzen aritu nintzen. Lesakan, torturaren biktimak gogoan, *Egia ur azalera* neurri handiko horma-irudia egin nuen frontoiaren gibleko aldean, eta etxeetan, jatetxe eta ostatuetan ere egin izan ditut. Aurtizko gure aterpea ere muralez bete-betea izan dugu. Paretaz gain, jendeak eskatzen didanaren gainean margotzen dut, Txokosferarako kakao gurinaz, teiletan, aizkoretan, jostailuetan, egurrean, mihisean noski, baita behin haurdun zegoen lagun baten tripa gainean ere.

Zerk bultzatzen zaitu pintatzera? Momentuaren arabera. Enkarguak gustura egiten ditut eta are gehiago, oparia eskatu dutenak eta hartu dutenak kontent gelditzen direla ikusitakoan. Noizbait, «bizitzan hartu dudak oparirik politena izan da» erran didate, eta hori aditzea hagitz pozgarria da. Bertzelakoa da niretzako margotzea, neure burua epaile dudala. Jolasteak eta ni neu probatzeak, azalera aldatzeak eta bizi berri bat emateak bultzatzen nau.

Zein berezitasun dute zure lanek? Aunitzetan enkarguz egiten dut lan eta jendeak nahi duenarekin konektatzen saiatzen naiz. Holakoetan, eskatzen duenaren gustuaren arabera egin behar da lana, eta horregatik ezin bertzekoa da bezeroarekin komunikazioa eta hartu-eman. Batzuetan emaitza ez dut horren nirea sentitzen. Bertze batzuetan, aldiz, guztiz



Unai Ruiz Leitzako plazan pintatu duen muralari begira. UTZITAKOA

nirea, duela 15 urte Borrokan taldearentzat egin nuen diskoaren azalarekin gertatu zitzaidan bezala. Estilo eta gai hagitz desberdinetako lanak egiten ditudanez, berezitasuna hori izan daitekeela iruditzen zait. **Baduzu gustukoa duzun margolaririk?**

Aunitz. Ez dut inor eredu garbitzat, gaur egun egile eta irudi pila ditugu eskura, horiek buruan gordetzen dira eta behar denean ateratzen dira. Irudi guztiak izan daitezke baliogarriak eta miresgarriak, baita nire arrebak egiten dituen marrazkiak ere. Denetarik egiten dut eta, egia erran, beti gauza bera egingen banu, aspertuko nintzateke.

Zer ematen dizu pinturak?

Jolas bat bezala hartzen dut. Dibertigarria da niretzako objektuen azalak eraldatzea eta gauza berriak sortzea. Beti pentsatu izan dut, baratze bat izatearekin alderatu daitekeela. Aldiro erronka berri baten aitzinean jartzen naiz eta honek konpromisoa eskatzen du.

«BETI GAUZA BERA EGINEN BANU ASPERTUKO NINTZATEKE»

Probatzera, esperimentatzera, amestera, haserretzera, deskubritzera, huts egitera, zapuztera, asebetetzera, enpatia bilatzera, neure buruan konfiantza gehiago hartzera eta hau hobekiago ezagutzera eta abar luze batera eramaten nau. **Lanak zirriborroen gainean egiten dituzu edo batere gabe?**

Leitzako muralaren kasuan, zirriborro aunitz egin nituen, bai paperean baita paretan ere, lanak eta teknikak hala eskatzen zuelako. Baina normalean zirriborroak lanaren gainean egiten ditut zuzenean. Ia beti margo akrilikoak erabiltzen ditut, agudo idortzen dira, garbiagoak izaten dira eta beraz, ez dut gehiegi esperatu beharrik gainean berriz margotzeko. Behin eta berriz margo kapak gainjartzen aritzen naiz. Aunitz gustatzen zait aspaldian egindako nire lanen gainean margotzea. Ez naiz borragoma zalea, eta haurrekin eskolak eman izan ditudanean, haurrek borragomarekiko gehiegizko

«BIZITZAN AMETSIK HANDIENAK BETE DITUT EDO BETETZEN ARI NAIZ»

menpekotasuna dutela iruditu izan zait, segurtasuna borragomak emanen balie bezala. Akatsak eginda ez dela deus ere pasatzen ikasi behar dugu eta gainean ere margotu daitekeela; gainera, aunitzetan zer bait hobea ateratzen daiteke. Batzuetan blokeoen aitzinean gelditzen ikasi behar dugu, aldendu eta denbora pasatzen utzi, ondotik birsortzeko. Leitzako murala egiten ari nintzela ere sumatu nuen halako kezka bat. Aunitz pintura tantak hor geldituko ziren beldur ziren eta borratuko ote ziren galdetzen zidaten. Nik, ordea, 'lasai, borratuko dira edo hor geldituko dira, ez da deus pasatzen' pentsatzen dut.

Kanpoan ala estudioan margotzea duzu nahiago?

Bietan hagitz gustura aritzen naiz. Hala ere, kanpoan, batekin edo bertzearekin solasean, eguzkia dela, euria dela, kontzentrazioa galtzea errazagoa dela onartu behar dut, baina honek ere badu bere xarma.

Baduzu ametsik?

Hagitz kontent bizi naiz eta ametsik handienak bete ditudala edo betetzen ari naizela erranen nuke. Pintura munduan, ordea, nire gustuko margolan sorta eder bat sortu nahiko nuke.

Zakila duten neskak eta alua duten mutilak

«Diren bezala onartzea eta maitatzea da behar dutena». Hala dio Naizen Adingabe Transexualen Familien Elkarteak. Zakila duten neskak eta alua duten mutilak badirela onartzeaz ari da, norbera delako neska edo mutila dela dakiena. Eskualdeko bi familiaren testigantzak bildu ditu TTIPI-TTAPAK

G. PIKABEA

Ez da erabaki bat, ez sentimendu bat, ez kapritxo bat, ez euren aukeraketa. Badakite nor diren, garbi dute gainera. Gehienetan mutilek zakila dute, eta neskek alua, baina ez da beti horrela. Badira zakila duten neskak eta alua duten mutilak. Naizen Adingabe Transexualen Familien Elkarteak dioten bezala, «giza aniztasunaren bertze adierazpen bat baino ez da. Jaioberriaren genitalak begiratzaren dira bere sexua zein izanaren asmatzeko, ohartu gabe ezin ebatzi ahal izanaren dugula kontu hau haurrak solas egiten hasi eta 'neska naiz' edo 'mutila naiz' erraten duen arte».

Horixe izan zen Berako Josune Irastorza eta Alex Irazuren alabak eta Elizondoko Nerea Fernandinoren semeak gurasoei adierazi ziena. Zakila duen zortzi urteko alaba baten gurasoak dira Irastorza eta Irazu, eta alua duen zortzi urteko mutiko baten ama Fernandino. Bi familiak Naizen elkarteak ideak dira.

Irastorzaren eta Irazuren bidea

Josune Irastorzari eta Alex Irazuri haurdunaldian jakinarazi zieten «bikietako biek zakila zutela» eta hala pentsatu zuten «biak mutilak izanzen zirela». Baina ez zen hala izan. Xabatek lau bat urte zituela eman zizkien horrela ez zela ulertzeko «lehenbiziko pista». Bere amaren hitzetan: «anaia bikiarekin konparatuz, jostatzera koan bertzelako interesak zituela ikusten genuen. Panpinak, silletak, sirenatxoak... gustatzen zitzaizkion eta joko sinbolikoan beti

emakumearen edo neskaren papera hartzen zuen. Ez genion garrantzirik eman, zergatik ez zuen jostatu behar jostailu horiekin edo jolas horietan?». Baina «gero eta gehiagotan bere errealitatea zein zen adierazten hasi zen. Eta egun batean haxe erran zigun: 'ama, ni neska naiz'. Lehenbiziko aldian, zakila zuenez, mutila zela erantzun genion». Haurra «gero eta mai-zago» hasi omen zen neska zela adierazten eta amak, orduan, «hagitz ongi» iruditzen zitzaio- la erantzuten zion. «Modu honetara Xabat lasai gelditzen zen eta gu ere bai». Baina, «denborekin bere gorputzari buruz hausnartzen eta ondorioak ateratzen hasi zen. 'Zakila izan beharrean alua izatea gustatuko litzaidake' bezalako esaldiak erraten hasi zen.».

«GERO ETA GEHIAGO HASI ZEN NESKA DELA ERRATEN»

JOSUNE IRASTORZA, AMA

Bortz urterekin gehiagora joan zen, «guk bera neska bezala ikusi ahal izateko hainbat eskaera egiten hasi zen. Adibidez, belarritakoak paratu nahi zituela, ilea luzatzen utzi nahi zuela...». Ez hori bakarrik: «triste ikusten genuen eta orduan konturatuginen zerbait pasatzen zela, ez zela bolada edo kapritxo bat». Ez omen zen garai erraza izan: «momentu hartan gaizki pasatu genuen, bortz bat hilabetez egunero-egunero gaiari buruz solastatu ginen».

Egun haietako batean, «telebistan Naizen elkartearen berri izateak» ireki zizkien begiak: «Momentu hartan, informazioa behar genuen, Xabatek behar handi bat zuela ikusten genuen, baina ez genekien nola lagundu eta Naizen elkartera deitzea erabaki genuen».

«TRANSITUA EGINDA AUNITZEZ ALAIAGO IKUSI DUGU»

JOSUNE IRASTORZA, AMA

Hantxe topatu zuten behar zuten «babesa»: «Naizen guretzat argi izpi bat izan da, hasieratik lasaitu gaitu», dio Irazuk. Gehiago ere bai: «zakila izaten ahal duten neskak edo alua izaten ahal duten mutilak badi-rela ulertzeko» bide eman die elkarteak: «Kasu gehiago badi-rela ikusi dugu, bertze familien testigantzak aditu ditugu, Xabaten egoeran dauden bertze haurren berri izan dugu... Eta horrek aunitz lasaitu gaitu, baita Xabat ere. Bere irria izan da horren erakusle».

Trantsitua

Hori ulertuta hasi zuten bidea, «lehenbizi etxean alabari bera zena izaten utziz»: «Aunitzez ere alaiago ikusi genuen eta egoerari buelta eman ziola eta loratu zela ikusteak aitzinera egiteko indarra eman zigun».

Hurrengo pausoa familiari jakinaraztea izan zen. Aitaren hitzetan, «atatxiri eta amatxiri, amonari eta attonari erran genien. Bakoitzak bere modura, baina denek ulertu zuten, eta denen errespetua sentitu genuen».

Eskolara jo zuten gero: «zuzendaritzarekin bilera eskatu genuen eta beraien babesaz gain, laguntzeko borondatea erakutsi ziguten. Baina ikasturte bukaera zenez, Hezkuntza Departamentuak halako kasuetarako ezarria duen protokoloa irailan abiatzea erabaki genuen». Uda «egoera barneratzeko» baliatu zutela dio aitak, «Xabati bera zen bezalakoa izateko askatasuna eman genion eta aunitz ikasi genuen». Eta irailan «protokoloa aktibatu eta Hezkuntza Departamentuak sexologoa bidali zuen eta lehenbizi irakasle, laguntzaile eta langile guztiek eta gero, Xabaten gelako haurren gurasoek formazioa hartu zuten». Irazuren-tzat «hunkigarria» izan zen: «Etxetik kanpo erratan genuen lehenbiziko aldia zen eta kezkatuta geunden, baina hagitz ongi hartu gintuzten». Amaren arabera, «Xabatek motxila handia kendu zuen gainetik, nahiz



Naizen elkartearen bideokliparen aurkezpenean hartutako irudia. NAIZEN ELKARTEA



Alex Irazuren eta Josune Irastorzen alaba lau bat urterekin hasi zen mutila ez zela ulertzeko «lehenbiziko pistak» ematen. UTZITAKOA

eta ordurako lagunartean zerbait aipatzen hasia zen, eta guk ere bai». Osasun zerbitzuan ere babestuak sentitu ziren: «pediatrak hagitz ongi ulertu zuen eta Transbide pertsona transexualen arreta egokia bermatzeko zerbitzuaren berri eman zigun».

Gainerakoan, egunerokoan, aldaketa ttiki batzuk egin behar izan zituzten. Tartean, arropa: «hasieran soinekoak, ile luzea eta belarritakoak eskatzen zituen. Baina bere aldarrikapena onartua izan zenetik belarritakoak, soinekoak eta abar, bigarren mailara pasatu ziren». Izena, berriz, ez du aldatu: «berarentzat izen hori aukeratu genuela eta hori mantentzea nahi duela errana digu, baina aldatzen ahal duela adierazi diogu».

Nerabezarora begira

Bi urte eta erdi pasatu dira geroztik, eta «hasiera gogorra» izan zela onartu du amak, «aldaketa handia» izan zelako, «berezik geure buruan egin

beharrekoa». Horixe da, hain zuzen, bi gurasoek nabarmendu dutena: «aldaketa guk egin behar dugu, ez haurrek. Horregatik erraten da trantsitua egin behar dugunak gu garela, gu garela nor diren ikusten ez dugunak; beraiek ederki dakite».

Bidean «beldurra» sentitu eta «galdera aunitz» izan dituztela ere onartu dute, «gehienak aurreiritzien ondorioz»: «Ezjakintasunak beldurra, galderak eta kezka sortzen ditu. Nola egingen dugun aitzinera, zer gertatuko zaion hemendik urte batzuetara, gizarteak nola hartuko duen, nola sentituko den...». Galdera aunitz, denak ere «ez dugulako nahi alabak sufritzea. Onartua ez izateak sufrimendua eragiten ahal dio eta...».

«GAIAZ EZ BADA SOLASTATZEN EZ DA EXISTITZEN»

ALEX IRAZU, AITA

Nerabezaroak ere kezkatzen ditu, «garai honetan gorputz aldaketarekin hasten baitira. Momentu horretara ailegatzean, Xabaten nahia errespetatuko dugu, orain egin dugun moduan. Berak horrela eskatuz gero, badakigu Transbide zerbitzuak blokeadore eta hormona tratamendua ahalbidetuko diola gure alabari».

Hortik aparte, aldaketak alderdi guztietan egitearen garrantziaz aritu da Irazu, «hezkuntzan, administrazioan... eguneratu beharra dago». Izan ere, «oztopoa beti pertsonak garela» uste du: «Nafarroako Foru Legeak transexualitate egoeran dauden pertsonak babesten ditu, eta lehenagotik dagoen bertze lege batek sexu

izendapena aldatzea ahalbidetzen du. Baina eskaera guztiak pertsonak tramitatzen dituzte, epaileen eskuetatik pasatzen dira, eta erabakia hartu behar duen pertsonaren arabera bidea errazagoa edo zailagoa da».

Errespetua

Kezka kezka, alaba kontent ikusteak asebetetzen ditu: «berak modu naturalean bizi izan du dena, baita bere lagunek ere, eta kontent bizi da». Amak harro gaineratu du «Xabat hagitz neska alaia dela, gustura dagoela eta konfiantzaz gainezka dagoela». Aitak ere «erabat integratua» ikusten du, «ez dugu arazorik izan eta kontent gaude».

Baina bide horretan, «gizartearen onarpena gakoa» iruditzen zaie: «horrek baldintzatzen du aitzinera erraz egin ahal izatea. Zenbat eta oztopo gehiago izan, orduan eta zailagoa da». Horrekin batera, «gaia ongi azaltzearen garrantziaz» aritu da Irazu: «gaiaz ez bada solastatzen ez da existitzen. —>

«ULERTU EDO EZ, ERRESPETUA ESKATZEN DUGU»

ALEX IRAZU, AITA

Horregatik gaude hemen, Xabaten alde gure ekarpena egin nahian». Gizarteak «ez dela gaitz bat, ez dela patologia bat» ulertzea nahi dute: «Diferentzia bakarra gehiengoak ez izatea da, baina hori da aniztasuna. Garrantzitsuen pertsona da, eta hori baloratu behar da». Horregatik errespetua eskatu dute: «Jendeak ulertuko du edo ez, baina errespetua eskatzen dugu, minik ez ematea, bertzerik ez».

Fernandino, zortzi urteko semearen ama

«Egia da mutil gehienek zakila dutela, eta neska gehienek alua, baina denek ez. Nire semea alua duen mutila da, baina ez da hori bere identitate bakarra. Hori baino gehiago da». Halaxe hasi da Nerea Fernandino.

Iker jaio gabea zenean, «tripa barreanean genitalak ikusita neska zela erran ziguten». Baina agudo konturatu ziren «mutilentzat kontsideratuak diren jokoetan, kamioiekin, baloia-rekin... ibiltzen zela». Arroparekin ere «borroka handiak» izaten zituztela dio: «ez zuen deus arrosa jantzi nahi izaten, ez zuen gonarik edo soinekorik nahi, ile motxa nahi zuen, ez zuen mototsik edo gantxorik nahi...». Horiek izan omen ziren «hasierako seinaleak». Gurasoek, berriz, «arropa horiek jantzita edo ile motxa edukita neska izaten ahal zela erraten genion».

Baina, «bertze modu aunitzetan» adierazten hasi omen zen mutila zela. Horren adibide, «rolak» aipatu ditu: «eskolan antzerkia egitean beti mutilaren papera aukeratzen zuen, mozorrotzean ere bai, Eguberrietan mutilez jantzita joan nahi zuen...». Halako batean, «neska-laguna zuela erraten» hasi zela kontatu du amak: «homosexuala izanen zela pentsatu genuen eta listo». Eta gero, «ez dut ama izan nahi bota zigun. Ama izatea ez dela derrigorrezkoa erran genion, baina garaia ailegatzean erabakiko zuela, eta bi ama izaten ahal zirela... Baina harrituta begiratu zigun eta, bera aita izanen zela eran-



Naizen elkarteak aurten estreinatu duen bideoklipetik hartutako irudia. NAIZEN ELKARTEA

tzun zigun». Orduantxe konturatu ziren «arroparen kontua huskeria» zela, eta «bertze behar batzuk» zituela: «'mutila izan nahi dut' erraten zigun; berak mutiltzat tratatzea nahi zuen». Eta halaxe egin zuten.

«Mutila dela badio, horrela da»

Naizen elkartera jotzea erabaki zuten eta «adituen eta egoeraberetik pasatu diren gurasoen aldetik, bai Iker semeak, baita guk ere, babesa eta segurtasuna sentitu ditugu». Ez hori bakarrik: «segidan argi utzi ziguten haurra bera adierazten ari zitzagula zer zen, hori ezin duela kanpotik bertze inork erran. Eta hala da. Berak horrela badio horrela da, berak bakarrik daki hori, nahiz eta ttikia izan. Mutil batek badaki mutila dela, baina ez zakila duelako, horrela dela badakielako baizik. Gure semeak mutila izan nahi zuela erraten zuen, alua izanda ezin zuela uste zuelako».

Egoera hartan erran zioten «alua duten mutilak ere badi-rela» eta horrek aunitz alegera-

tu omen zuen: «'Bihar bertan ikastolara joan eta irakasleekin eta lagunekin solastatu nahi dut', aipatu zigun. Denbora gehiago behar genuela erran genion, eta berak 'ba etzi' erantzun zigun. Denek mutila dela jakitea eta ikustea nahi zuen».

Bide horretan hasi ziren trantsitua egiten, duela bi urte, «lehenbiziko familian eta gero ikastolan» erranez. Eta «ez familian, ez herrian ezta ikastolan ere, ez dugu arazorik izan». Are gehiago, «ikastolan eta lagunartean primeran» dabilela gaineratu du Fernandino: «Hasieran, baten batek alua izanda ezin zuela mutila izan komentatu zion. Normala da aukera hori badela ez badakite azaldu behar izatea. Baina lagunei berdina zaie zakila edo alua duen. Beraientzat bat gehiago da; maite dute eta babesten dute».

Suizidio saiakera-tasa handia

Hautzarotik bere identitatea onartuta «sufirimendua aunitz saihestu» dutelakoan dago Fer-

nandino: «Kasu anitzetan nerabeak direnean erraten dute, lehenagotik ez direlako ausartu, gurasoek ez dutelako onartu, ez dakitelako zer pasatzen zaien, ez dakitelako aukera hori dagoenik... eta nerabezaroan dena zailagoa da». Horrekin lotuta, suizidio saiakera-tasa ekarri du mahai gainera: «sufirimendu horrekin lotuta, suizidio saiakera-tasa %39koa da. Eta hori onartezina da».

Horregatik, «semearengan edo alabarengan konfiantza izatea» ezinbertzekoa iruditzen zaio: «gehienetan gure kezkak dira, baina denak desberdinak gara eta hau ere aniztasunaren parte da. Gainera, gaiari gero eta ikusgarritasun gehiago ematen ari zaio eta uste baino errazagoa da. Naizenen edo nahi duten elkarteetan laguntza eska daiteke».

Fernandino alua duen semea duela onartzea ez zitzaion gogorra egin. «Ez zen bat-bateko kontua izan, prozesu bat izan zen eta ikusten genuen. Mila modutan adierazi zigun mutila dela. Beharbada trantsitua egiten hasi ginenean bertze gairik ez zela ikustea nekagarria izan zen, familian, ikastolan, lagunartean... denei erran behar izan baikenien, baina ez zitzaidan zaila egin».

«SEME-ALABENGAN KONFIANTZA IZAN BEHAR DUGU»

NEREA FERNANDINO, AMA

«MILA MODUTAN ADIERAZI ZIGUN MUTILA DELA»

NEREA FERNANDINO, AMA



Naizen elkarteko haurrak Pirritx, Porrotx, Marimotots eta Yogurinha Borovarekin. NAIZEN ELKARTEA

Aitortu digunez, «izen alda-keta uste baino gehiago kostatzen arizagu». Duela aste batzuk aldatu zuen izena Ikerrek eta «berriz denei erraten aritzea nekagarria» iruditzen zaio, «Ez da lotsa, baina pereza pixka bat ematen du denei Iker dela erraten aritzea. Bertzea pasatu zen bezala, hau ere pasatuko da».

Oraindik izen aldaketa ez omen dute formalizatu, baina badaki «jendeak mila buelta eman behar izaten dituela kontu horrekin. Berez, legea denean berdina bada ere, herriaren arabera, errazagoa edo zailagoa da aldaketa, erabakia pertsona baten esku dagoelako».

Kezkak

Semea «primeran» ikusten du amak, eta «egoera naturaltasunez bizi duela eta bere egoera normaltasunez esplikatzeko duela» dio. «Argi erraten du ez dela mutila sentitzen, bera mutila dela». Hala ere, Fernandino baditu bere kezkak. «Gehienbat gizarteak» sortzen dio ezinegona: «orain arte eskolan ongi moldatu da, ez du inolako arazorik izan eta arrazera izan da, baina nerabezaroan burlak edo baztertzeak izaten ahal dituela pentsatzeak kezkatzen nau...». Gehiago ere bada: nerabezaroa tratamendua. «Idea-

lena bere gorputza den bezalakoa onartzea izanen litzateke, eta berez, aniztasunaren alde baldin bagaude, ez dugu zertan aldatu. Gorputzak anitzak dira eta aluarekin, bularrarekin eta hilerokoarekin ere mutila izaten ahal dela onartu behar genuke, baina hori onartzetik urruti gaude. Guk ez dugu semeak sufritzea nahi, eta berak eskatuko balu tratamendua egin beharko genuke: blokeadoreak, hormonazioa... Hori gehiago kostako zaidala iruditzen zait».

Eta hutsuneak

Osasun eta hezkuntza arloko profesionalen artean sumatzen duen hutsuneaz ere aritu da: «irakasleak, medikuak, endokrinoloak, psikologoak... formatu behar dira. Gezurra dirudi, baina bada blokeadoreak lortzeko arras-arras gaizki pasatzen ari den jendea. Mesfidantza sumatzen da. Haurrak endokrinologiari adierazi behar dio zer nahi duen, baina haurrak ezezagun batean aitzinean blokea

daitezke eta ez dira ongi azaltzeko gai... Kontsultako denbora mugatu horretan ez badu behar dena erraten, oztupoak izan ditzake». Horren harira, suizidio-tasa aipatu du berriz: «blokeatzaileak edo hormonazio tratamendua gehiegi luzatzen dutenen artean ere sufrimendua jasanezina izan daiteke».

Gizartean ere sumatzen ditu «gabezia» batzuk, horietako aunitz, «ezjakintasunagatik». «Orain arte uste zen mila pertsonatik bat transexualitate egoeran egoten ahal zela, baina berriki egin den ikerketa baten emaitzak dio ehunetik bat izan daitekeela. Segur aski, tarteko zerbait izanen da, baina uste baino aunitzez ere gehiago! Naizenera gero eta familia gehiagok jotzen dute». Horrekin batera, azken urteotan izan den «aldaketa handia» nabarmendu du: «Lehen ez zitzaigun burutik pasatzen alua duen mutilak edo zakila duen neskak izan daitezkeela. Gaur egun, badakigu aukera hori badela. Baina, orain-

dik nabari da jendeak ideia batzuk ez dituela barneratu». Berari gertatutakoak jarri ditu adibidetzat: «gurekin solasean, gurea semea edo alaba zer den adierazteko zalantzan ikusi dugu jendea, segur aski hanka-sartzeko beldurragatik. Baina ez dezatela dudarik izan, gurea semea da. Edo, asmo onez, Iker mutila sentitzen dela ere erran izan digute, baina ez da sentimendu kontua, bera mutila da». Horrez gain, «badira gaiaz gurekin solastatzera ausartzen ez direnak». Haiei adierazi nahi izan die «errespetuz egiten den aldiro ez dudala arazorik, eta areago, gustatzen zaidala azaltzea, hori delako jendeak ulertzeko eta onartzeko egin behar dena».

Hartutako bidearekin «ziur»

Fernandino ez du zalantzarik: «Egiten ari garen bakarra bide-lagun izatea da. Berak argi du zer den eta guk berarengan konfiantza dugu. Beraz, bide egokia hartu dugunaren zalantzarik ez dugu». Eta «epaitua sentitu ez» bada ere, «baliteke norbait gibeletik epaitzen aritu izana edo oraindik aritzea. Baina ez gaitu kezkatzen».

Sinetsita dago ongi ari direla eta ez hori bakarrik, «pila bat» ikasteko aukera izan duela gaineratu du: «uste dut lehen ere ez nuela jendea epaitzen, baina orain kontzienteago naiz ez dela inor epaitu behar, nolako bizitza eta heziketa izan duen, edo nolako motxila duen jakin gabe, are gutiago, ezagutu gabe. Aniztasunaren koloreak zein diren ikasi dut, denak desberdinak garela eta errespetua denei zor zaiela». Eta gizartean «ezjakintasuna» sentitu arren, «ulertzekoa» iruditzen zaio, «gai ezezaguna baita, eta horregatik da hain garrantzitsua ikusgarritasuna ematea». Hortik hara, «jende eskuzabala, atsegina, ulerkorra eta laguntzeko prest dagoena aurkitu» duela ere azpimarratu du: «Dena ez da kezka izan, prozesua aberatsa izan da eta bidean gauza aunitz ikasi eta hartu dugu».

«ZIUR GAUDE BIDE EGOKIA HARTU DUGULA»

NEREA FERNANDINO, AMA

«DENA EZ DA KEZKA IZAN, AUNITZ IKASI DUGU»

NEREA FERNANDINO, AMA

Bizilagunen atsedena eta terrazak bateragarri

Hori lortzeko, ordutegiak eta soinu-mailak errespetatzea eskatu die udalak ostalariei bando baten bidez

TTIPI-TTAPA

Eguraldi onak eta Covid-19ak eragindako pandemiari aurre egiteko neurrien erlaxazioak sozializatzeko eta ostalaritza establezimenduetako terrazaz gozatzeko aukera ematen dute. Hala ere, gozamen hori bizilagunen atsedenerako esku-bidearekin bateragarri egin behar da, musikak edo zaratak eragindako eragozpenak saihestuz. Hala eskatu du udalak, bando baten bidez.



Maiatzean Alitzaten egindako bilera.

Ordutegiak eta soinu-mailak errespetatzeko eskaera

Ildo horretatik, ostalaritza establezimenduei ohartarazpena egin die udalak, Aitor Elexpuru alkateak sinatutako bando baten bidez. Honela, «irekitzeko eta ixteko ordutegiak Nafarroako Gobernuak pandemiaren bilakaeraren arabera unean-unean ezartzen dituenak» izanen direla ohartarazi du udalak, baita Jarduera Sailkatuen Ordenantzaren arabera, kanpoko soinu-mailak ezin duela 55 dBA gainditu eguneko ordutegian (22:00 arte) eta 45 dBA gauekoan.

Udal bandoak dioenez, «establezimenduaren titularra arduratuko da ordutegiak soinu-mailak eta gainerako neurriak kontrolatzeaz» eta udalak Foru Poliziari jakinaraziko dio ezagutzen duen edozein ez-betetze.

Ostalariei laguntza

Bide batez, ostalaritza establezimenduei laguntza eskatu nahi die udalak, «beraien jarduera garatzeko duten eskubidea bizilagunek beraien etxeetan bakea eta atsedena izateko –behar ez bezalako zaratak eta eragozpenak jasan behar izan gabe– duten esku-bide legitimoarekin bateratzeko».



UTZITAKO ARGAZKIA

Muxikoak dantzatu dituzte

Berako Erdizka Lauretan Taldeak, udalaren eta Gure Txokoa elkartearen laguntzaz antolatuta, Bortziriak Dantzan muxikoak izan zituzten ekainaren 19an Toki Ona kiroldegiko zelaian. Eguraldi goxoa lagun, giro ederrean dantza emanaldi polita eskaini zuten bildutako dantzariak.



UTZITAKO

Hogei Berriro taldearen emanaldia

Berak estreinatu du aurtengo Nafarroako Kultur programa, ekainaren 18an Hogei Berriro taldeak emandako kontzertuarekin. Hasiera batean Altzateko Plazan egitekoa baldin bazen ere, eguraldi iragarpena zela eta kultur etxean izan zen emanaldi gustagarria.

Jaulena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Alitzate, 17 · BERA

Ansonea

ostatu
jatetxea

Pintxoak
Bokatak
Plater
konbinatuak
Asteburuko
menua
Sagardotegi
menua

T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 · BERA

Lenoir Gang taldeak kontzertua emanen du larunbatean

Joseba Baleztena herritarraren musika doinuez gozatzeko aukera izanen da Altzateko plazan

TTIPI-TTAPA

Ostegun honetan, uztailaren 1ean, Kultur Etxean zabalduko duten *Espresio Transitorioak* argazki erakusketarekin zabalduko dute udalaren uztaileko kultur agenda. Uztailaren 22ra arte ikusgai izanen dira Moi Ruiz de Azuaren lanak, 2008tik 2017ra munduko hainbat herritan eta herritan ateratako argazkiak biltzen dituenak, asteartetik igandera, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara. Igande eta besta egunetan arratsaldez itxita izanen da.

68 haurrek eman dute izena udalekuetan

68 haurrek eman dute izena Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatutako udalekuetan. Uztailaren 5ean hasiko dira, eta hilaren 30era arte, 3-6 urtekoak Ricardo Baroja eskolan, eta 7-12 urtekoak Labiaga Ikastolan bilduko dira, 10:00etatik 13:00etara.

Horrez gain, larunbat honetan, uztailaren 3an, Lenoir Gang taldeak kontzertua emanen du. Joseba Baleztenaren eta taldearen hitzordua Altzateko plazan izanen da, 19:00etan.

Uztailaren 9an, Sara Zozaia igoko da Herriko Etxeko Plazako oholtza gainera eta 19:00etan, kontzertua emanen du. Biharamunean, berriz, hilabete bikoaren larunbata izanik, bertako ekoizleen merkaturia izanen da Beralandetan. Ohi bezala, eskualdeko ekoizleen produktuak erosteko aukera izanen da 10:30etik 13:30era.

'Oinarritzako gaitasun digitalak' ikastaroa Beralandetan

Oinarritzako gaitasun digitalak ikasteko ikastaroa antolatu du Nafarroako Gobernuak uztailaren 5etik 16ra. 09:00etatik 11:00etara Beralandetan izanen da, eta interesa dutenek aitzinetik izena eman beharko dute, ortzeguna baino lehen udal-txera deituta (948 63 00 05).



Ezkerretik hasita, Pako irakaslea, eta Tania, Letizia eta Joana ikasleak.

Ostalaritzako oinarritzako euskara ikastaroa egin dute hiru lagunek

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatuta, euskara batere edo apenas zekiten Bortzirietako hiru lagunek ostalaritzako oinarritzako euskara ikastaroa egin dute eta horri esker, ikasitakoa ostalaritzako jardunean erabiltzen hasteko aukera dute orain.

Maiatzaren 31tik ekainaren 17ra Banaiz Bagara elkarteak irakaslearekin bildu ziren Beralandetan, eta mankomunitateak adierazi dutenez, «hiru ikasleak hagitz gustura eta fin» aritu ziren eta bukaeran parte-hartze ziurtagiria hartu zuten. Are gehiago, «ikastaroak euskara ikasten segitzeko gogoa piztu eta indartu die, eta heldu den ikasturtean euskaltegia hasteko asmoa adierazi dute».

Euskara+ ikastaroa euskara ez dakiten herritar orori eskainia da, eta laneko trebakuntza

du oinarri; lanerako baliagarriak diren ikastaro praktikoak dira, ostalaritza, zaintza... Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen hitzetan, «gurean, gehienbat Euskal Herrikan kanpoko jatorria duten herritarrek parte hartzen dute, beraz, badira elkar ezagutzeko eta kultur aniztasuna aitortzeko esperientziak». Bortzirietan, estreinakoz, 2019an Arantzan egin zuten, adinekoen zaintzan aritzen diren langileentzat, eta «hagitz balorazioa baikorra» egin zuten.

Etorkizunera begira ere, badu halako ikastaroak antolatzeko asmoa, «euskara ardatz hartuta, herritarren arteko harremanak ahalbidetzen dituztelako, euskararekiko interesa eta estimua piztu eta areagotzen dutelako, eta euskararen ikasketarako lehenbiziko urratsa izaten ahal delako, ibilbide batera hasiera».

Astelehenetik ortziralerara:
07:15etik aitzinera

LABE ZAR

Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera

948 631 076 • BERA

Frutak
de
Vandorren
FRANDONEA, s.l.
FRUTAS DE BARCELONA

BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOA: 633 480 563

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

IGONE

Disfrutatu liburu onak irakurri, aukera zabala duzu.

LIBURUDENDA, PAPERDENDA, MARGODENDA, JOSTAILUDENDA

Kanttonberri 4 • Bera • Tel.: 948 630 626 • papeleriaigone@gmail.com

Eskatu heldu den ikasturterako testuliburuak abuztuaren 14a baino lehen eta erosketaren %10eko balioa duen bonoa* hartuko duzu.

*Bono hau erosketak bakarrez erabili ahal izanen duzu eskola materialean kontsumitzeko.

Tonerrak eta tintak enkarguz



Udaleko eta herriko 30 kultur, kirol eta gizarte eragile baino gehiagoren ordezkariak ekainaren 18ko agerraldian. A. AROTZENA

Larunbat gauetako «gehiegikerien» kontra agertu dira

Udalarekin batera, herriko 30 gizarte, kultur eta kirol eragile baino gehiagok sinatu dute agiria

AITOR AROTZENA

Azken igandetan kalte material ugariekin eta zaborrez beteta ematen ari da herria larunbat gauetan Komentu inguruan antolatutako legez kanpoko 'besten' eraginagatik: kristal hautsiak, jardineria irauliak, seinaleak botata, kultur etxeko atea behartuta eta barrenean edariak, zaborra parkean eta bankuetan, desfibriladorea kaltetua, kotxeak abiadura eta modu arriskutsuan...

Jarrera eta ekintza horiek guztiak erabat gaitzetsi dituzte agiri bat sinatu duten 30 gizar-

te, kirol eta kultur eragile baino gehiagok eta Udalak. «Jarrera horiek guztiak salatu nahi ditugu eta herritarrei jarrera egokia izan dezaten eskatzen diegu», adierazi zuten ekainaren 18an egindako agerraldian.

Agirian aipatu dutenez, «azken larunbat gauetan, ostatuak itxi ondotik, musikarekin kale zurruta egiteko biltzen dira hainbat pertsona Komentu inguruan, gazteak zein helduak izan ohi dira, bai lesakarrak baita kanpotik etorriak ere (batez ere Nafarroako bertze herrietatik eta Gipuzkoatik)

eta jendearen masifikazioa gero eta handiagoa bihurtzen ari da».

Egoera epidemiologikoak hobera egin duen arren, «pandemia garaian bizi garela» oroitarazi dute «eta distantzia sozialaren arauak errespetatu behar ditugu; baita elkarbizitzarenak ere. Izan ere, inguruko bizilagunek lo egiteko eskubidea dute eta igande goizetan arriskurik gabe ibiltzeko eskubidea ere badute».

Era berean, «kalteak garesti ateratzen ari zaizkigu, udal aurrekontuari eragiten diote eta diru hori guztion artean ordaintzen dugula» gogorazi nahi izan dute.

Bertze herrietatik 'besta' hauetara espresuki etortzen direnei eskatu nahi diete, «mesedez, ez etortzeko Lesakara beraian herrietan baimenduta ez dagoena egitera. Lesaka herri irekia da eta gustuko dugu jendea herrian hartzea, baina horrelako jarrerak ez ditugu inondik inora onartuko».

Turismo Bulegoa zabalik irailaren 30era arte

Aurtengo udan hiru hilabetez irekiko dute turismo bulegoa, ekainaren 26tik irailaren 30era. Asteartetik ortziralerara 10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30era irekiko dute. Larunbat eta igandetan 10:30etik 14:00etara irekiko dute. Astelehenetan itxita egon da.

Tantirumairu dantza taldearen saioa larunbatean

Tantirumairu euskal folklore taldeak ikasturte bukaerako dantza jaialdi berezia eskainiko du ekainaren 3an, larunbatean 18:00etan hasita, frontoiaren gibleko aparkalekuan. Eurria egingen balu bi saio izanen lirarteke, 18:00etan eta 19:00etan Harriondoa.

Mikel Leiza nagusitu zaio Iker Iriarteri apustu berezian

Plazatik Berrizaunera (13 km) lasterka eta plazan 20 kiloko zama hartu eta Agñara. 300 euro jokoan. Apustu horixe egin zuten Mikel Leiza eta Iker Iriarte gazteek ekainaren 19an. Leiza nagusitu zen, baina biek eta kuadrilek poteoan bukatu zuten apustua.

zalai
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralerara

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Hemen erabili
Denok Bat

kattagorria
LESACA
948 627 514
www.kattagorria.com

BEKO

LOREAK ETA LANDAREAK

Frain Auzoa · LESACA
T. 948 637 826

Ainhua Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Lan aferak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.

BERA - M. 630 97 21 89 - ainhooaltzuguren@gmail.com

F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679



Martxel Rodriguez dantzaria familiarekin, saria jaso ondotik. IBAN AGUINAGA/DIARIO NOTICIAS

«Sari honekin ate gehiago irekitzeko aukera izanen dugu»

MARTXEL RODRIGUEZ ETXABIDE LESAKAKO DANTZARIA

Talentu Artistikoa Sustatzeko Saria jaso zuen Martxel Rodriguez dantzari lesakarrak ekainaren 15ean Maria Txibite Nafarroako presidentearen eskutik

AITOR AROTZENA

Aurten, Baluartan egindako bigarren edizioan Txibitek dantzak «integrazioarako ibilgailu» eta «edozein pertsonak adierazteko eta komunikatzeko aukera» gisa duen garrantzia azpimarratu du.

Martxel Rodriguezek, fisikaria ikasketaz, laster ikusi zuen bere pasioa dantzan. «Ez dakit norbaitek inoiz pentsatu ote zuen fisikari batek azkenean zientzia dantzara eramango zuela, ia lan bakoitzean bere legeei aurre eginez», adierazi zuen presidenteari. Bertzeak bertze, Danimarkan eta Israelen ikasi du Martxel Rodriguezek. Eta, gaur egun, *freelance* dantzari lana eta Led Silhouet-

te konpainiaren zuzendaritza uztartzen ditu, Jon Lópezekin batera.

Zure lanaren errekonozimendua da sari hau... Zer suposatzen du zuretzat sari honek?

Sorpresa handia izan da eta hagitx kontent hartu dut, noski! Azkenean orain arte egindakoaren errekonozimendua bat suposatzen du eta etorkizunera begira, seguraski, ate gehiago irekitzeko aukera. Hagitz ongi!

Bertze hamaika gazte zineten saria jasotzeko hautagaiak...

Gehienez 30 urteko gazteentzat bideratutako saria da. Muga horretan nago. Momentu polita da, badelako ibilbide bat egina eta, aldi berean, bade-

lako etorkizunerako proiektzio bat ere. Aunitzetan dantza izaten da arte dizpilinen artean gibeletik gelditzen dena eta eskertzekoa da bai maila pertsonalean, baina baita sektorearen ikuspegitik ere, dantza izatea saritua.

Zein da sariaren helburua?

Sariak badu aportazio ekonomiko bat 2022an proiektu bat garatzeko. Ez dago zehaztua lehendik abiatutako proiektu

«GURE PASIOA OGIBIDE IZATEN JARRAITZEKO GARRANTZITSUA»

batean egin daitekeen edo bertze proiektu bat abiatzeko izan behar duen. Baina dena delakoa, proiektua bizirik mantentzeko, agenda bizirik izateko eta gure pasio hau ogibide izaten jarraitu dezan garrantzitsua da.

Ttiki-ttikitatik garbi izan zenuen dantzari izan nahi zenuela...

Egia erran bai... Haur guziak dantzan hasten gara, ez dut ezagutzen mugitzen eta dantztatzen ez den haurrik, eta gero formatzeko eta ikasteko hautua egin nuen. Bertze gauza batzuk ikasi ditut baina dantza beti egon da presente eta atzerrian ere ibili nintzen ikasten. Ibilbide horretan ikasitakoa gure konpainian aplikatzea, Lesakan sortzea eta dantza garaikideari bertze buelta bat ematea baloratu dute sari honekin. Nafarroako Gobernutik azken urteetan egin diren ekimenetan parte hartu izan dugunez, horien barrenean egindako bitartekaritza lanak ongi baloratu dituzte. Gure diziplina hau ez denez sobera ezaguna, artistok badugu lana hori azaltzen edo bistartzen, behinik behin.

Pandemia garaik zer eragin izan du zuen konpainian?

Konplikatu izan da, lehendik sektore prekarizatu izanik gehiago prekarizatzea eraman du pandemiak. Baina Nafarroan iniziatiba berriak sortu dira, bertako sortzaileei bultzada bat emateko. Gure konpainia ttikia denez, momentu polita izan zen bira bat egiteko. Gure bidaiak hiru bat egunekoak izan ohi dira, joan-dantzatu-buelta, beti PCRak goiti, PCRak beheiti... Baina poliki-poliki bueltatzen ari gara "normaltasunera". Uda begira, emanaldiez gain, baditugu sorkuntza-proiektuak begibistan. Ez dugu opor handirik izanen, baina kontent. Sorkuntzak lanaren ondorio izaten dira, ordu aunitz eman behar dira txandalean eszenatoki gainean... ez dugu deskonektatzen, baina ez dugu deskonektatu nahi ere.

«Errateko zail dena ere kanporatu ahal izan dut musikaren bidez»

OLAIA IANTZI ORDOKI LESAKAKO MUSIKARIA

Hiru urtez grabaketekin bueltaka ibili ondotik, 'Errateko modu bat' diskoa plazaratu du Olaia lantzi lesakarrak. Emaizarekin «hagitz kontent» dago

TTIPI-TTAPA

Errateko modu aunitz daude eta horien artean berea dakar Olaia Iantzi Ordokik (Lesaka, 1993) bere lehenbiziko diskoan. Bere bizipenak, sentimenduak eta ikuspuntuak ardatz hartuz eta horiei doinua paratuz sortu du diskoa. Aspaldiko kantak eta berrikiago sortuak bildu ditu ekoizpen honetan eta «mezuz beterik musika lasaia eta atsegina» izan da horren guztiaren emaitza. Musikaren bidez «kanporatzeko zail dena ere» ateratzeko aukera izateaz gain, aspaldiko nahia bete du: «argi nuen noizbait nire kantak txukun gordetzeko disko bat egin nahi nuela eta ailegatu da momentua».

Musika duzu zaletasun... noiztik zabilta mundu horretan?

Badira urte batzuk... 13-14 urterekin lagun batzuek taldetxo bat egin genuen. Euskal kanten bertsioak egiten genituen. Gero, Itziar Telletxea Pitxiarekin kantu zaharren bazkaritan, bazkalondoa, jotzen hasi nintzen.

Lehenago musika eskolan ibilia zara?

Bai, urte batzuk egin nituen. Solfeo ikasten hasi nintzen, txistua urtebetez jo nuen eta trikitixa jotzen bederatzita bat urte nituela hasi eta 15 urte inguru bete arte aritu nintzen.

Eta gitarra jotzen noiz hasi zinen?

Iruñera ikastera joan nintzeanean, orain dela zazpi bat urte, arratsaldetan aspertzen nin-



Olaia lantzik Interneten bideoak ikusiz ikasi zuen gitarra jotzen.

tzenez, eta jakin-mina nuenez, gitarra jotzen ikasten hasi nintzen. Interneten bideoak ikusiz ikasi dut.

Zein izan zen zure lehenbiziko kanta?

Diskoko 'Javi' kanta izan zela uste dut. Lehenago lagunen batekin egin nuen zerbait baina oso-osorik nirea dena horixe da. Aspaceren Uxane

zentroan, egun lan egiten dudan tokian, praktikak egin nituenean izan zen, orain bortz bat urte.

Nola izan zen sortze prozesua?

Orain baino errazago idatzi nuela erranen nuke. Momentu horretan akaso ez nuen gaur egun bertzeko exijentzia maila... Letra nahiko erraz atera zitzaidan eta doinua

egiteko hiru akorde ezagun erabili nituen. Kanta horretan zer erran nahi nuen argi nuen eta horrek ere eragina izanen zuen horren erraz idazteko... Uxane zentroan praktikak bukatu eta lanean hasi nintzen eta erabiltzaile bat hil egin zen. Beti bisitan joan behar nuela erraten nuen eta ez nuen aukerarik izan. Erabiltzaile horrekin harreman berezia nuen, aunitz oroitzen zen niretzat eta min hori ateratzeko amak kanta bat idaztea proposatu zidan. Eskertzeko, agurtzeko eta barrenak husteko modu bat izan zitekeenez kasu egin nion. Eta egia erran, lagundu zidan, musikak beti laguntzen dit.

Zure kantek bizipenekin lotura zuzena dutela erranen zenuke?

Kanta batzuk nire bizipenen isla dira, bertze batzuk, berriz, egoera edo gai zehatz batekiko ikuspuntu bat adierazteko modua.

Letrari musika edo musikari letra paratzen diozu?

Batzuetan doinua paratzen dut lehenbiziko, bertzeetan letra eta horren arabera doinua sortu. Denetarik egiten dut. Badut doinua bertze kanta batetik hartu eta letra nik egin diodan kantarik ere.

Noiz hasi zinen diskoarekin bueltaka?

Duela hiru bat urte. Txukun grabatu eta gorde nahi nituela argi nuen. Pitxi bere diskoa ere atera zuen eta Beñati, berari lagundu zionari, galdetu nion. Biok ahal izan dugun tarteetan aritu gara. Ez bata ez bertzeak ez dugu hori lanbidetzat eta zaila izan da. Gainera, Donostian bizi da eta han egin ditugu grabaketak. Beraz, azken urte honetan guztian ezin izan gara elkartu... Konplikatu izan da.

Diskoko lehenbiziko bi kanten letrak ez dira zuk eginak, gainerakoak bai...

Kantak sortzen hasi nintzeanean lagun batek, Omar Cabello, bi kanta hauek egin zizkidan. Momentu hartan

denbora aunitz pasatzen genuen elkarrekin eta ongi eza gutzen ninduen. Nire egoera zein zen, zer pentsamendu nuen... ongi zekien eta hori abiapuntu hartuz egin zituen letrak. Ondotik, nik doinua paratu nien.

Badute zurekin lotura, beraz.

Bai. Diskoan ez baina kontzertuetan bertze bi lagunuen letrak ere baditut eta ilusio handia egiten dit horrek. Gustura erraten dut beraienak direla. Azken batean nirekin kontatzen dute, euren letrak nire eskuetan paratzen dituzte eta polita da hori.

Hizkuntzak ere bereizten ditu hasierako bi kantak...

Egia erran horregatik paratu nituen hasieran. Bera Bartzelonan bizi izan da eta euskara ulertzen badu ere ez du solas egiten... Gazteleraz ez naiz hagitz trebea eta, horiek lehenbiziko grabatuta, gainerakoak lasaia eginen nituela pentsatu nuen.

Noiz sentitzen duzu sortzeko beharra?

Hasi eta deus ateratzen ez den momentuetan bertze baterako uzten dut, baina, egia erran, ez dakit irudime-na noiz pizten zaidan. Sortzerako orduan muturreko sentimenduek laguntzen didatela uste dut.

Errateko modu bat. Zein da errateko modu hori?

Aunitz dira errateko moduak. Nik disko horretan nire errateko modua azaleratzen dut, musikaren bidez eta nire letren bidez. Ez dute egitura bateraturik, letra ez dute nondik hartu... Bizitzan kostatzen zaizkidan gauzak, mina eragiten didatenak, errateko modu honen bidez kanporatu ahal izan ditut. Ulertu edo ez, errateko modua da.

Letra guztiak zure bizipenekin lotuak dira?

Bai, modu batean edo bertzean bai. Idazten dudana momentuetan hor sartzen naiz. Baina batzuetan ez dira egoerak islatzen, sentimenduak edo sententzioak baizik.



«Bertzeen kantak jotzeaz aspertu ginenean gure kantak sortzen hasi ginen»

Itziar Telletxearekin, Hurih taldea osatuta, egin zuen jendaurrera salto Olaia lantzi Ordokik. Bazkalondo batzuetan aritu zen gitarra astintzen lehenbizikoz eta orain bortz urte izan zen hori, Telletxeak Mexikon urtebetez egin zuen egonaldia ren ondotik, proposamena ailegatu zitzaionean. Gogo onez onartu zuen lantzik: «musikarako gogoz nintzen eta aukera bikaina zenez, poliki-poliki hastea pentsatu genuen».

Kantak sortuta, azaleratzeko gogoz

Modu horretan sortu zuten taldea. Itziar Telletxeak Mexikon ikasi zituen kantak eta hark sortutakoak izan ziren jo zituzten lehenbizikoak. Gerora, ordea, eurenak sortzen hasi ziren: «kanta horiez aspertu ginenean geureak egitea pentsatu genuen eta entseuetan gure burutazioak botata etorri ziren». Bien arteko «konfiantza handia eta giro polita» daude ekoizpen

bakoitzaren giblean eta momentu horiengatik hain zuzen, «hagitz bereziak» dira lantzirentzat.

Sortzeak ongi pasatzeko aukera eman zenez, gero eta gehiago izan dira egin dituztenak: «gaur egun kontzertuetan jotzen ditugun gehien-gehienak guk eginak dira». Momentuz kanta horiek ez dute argirik ikusi baina ez da gogo faltagatik izan. Konfinamendua hasi aitzinetik argitaratzeko asmoz grabaketak egiten hasi ziren eta bortz kanta grabatuak dituzte: «gehiago grabatu eta disko bat osatuz azaleratu nahiko genituzke».

Udako emanaldiak

Bien bitartean, ordea, emanaldiekin segitzen dute, eta horiek gero eta gehiago lantzen ari dira: «azken urteetan tronpeta, baxua eta perkusioa ere baditugu, taldean jotzen dugu». Berriki herriko Bureau hotelean jo dute, uztail bukaeran Arbizon izanen dira eta abuztuan herrian bertan izanen dute aukera, Lesakako udako zikloan.

Hitz guttitan, nola definituko zen nuke zure diskoa?

Lasai aditzeko musika atsegin-a, mezuz beteriko lana dela erranen nuke.

Beñat Antxustegik diskoa janzen lagundu dizu. Nola izan da prozesua?

Egia erran erraza da berarekin lan egitea, hagitz langilea eta atsegin-a da, beti prest eta beti umorez, polita izan da elkar-lana. Bere amaren etxean prestatua duen gelan grabatu genuen, bereziki asteburuetan. Arratsalde aunitz pasatu ditu nirekin eta izugarritzko lana egin du grabatzen, txukuntzen... Tresnak sartu, proposamenak bidali... egia erran artista hutsa da, nire kantei gorputza eman die.

Hasieran grabatutako kanta horiek adituta, hiru urteren buruan, zerbait aldatuko zenieke?

Bai eta maiz pasatzen ari zait gainera. Hasiera hartatik hiru urte pasatu dira eta denbora horretan gehiago sortu eta ikasi dut. Orain, mila gauza aldatuko nituzke, baina egina dago eta emaitzarekin hagitz kontent nago, baita Beñatek egin duen lanarekin, berarekin kontatu ahal izatearekin... Lan txukuna izan dela erranen nuke.

Efektuak kenduta, kontzertuetan nabarmen aldatuko dira kantak...

Bai, aldatzen da, bakarrik ibiltzen naiz eta... Baina, bakarrik jo beharrean orain dela bi urte lupa grabagailu bat erosi nuen eta horrekin janzten ditut zu-

zenekoetan nire kantak. Gitarra, perkusioa, ahotsak... grabatu nituen. Aunitz aldatzen da baina...

Ekain hasieran Lesakan izan zenuen kontzertua...

Bai, lehenagotik hiru kontzertu eginak nituen Beñaten bidez. Lesakakoa hagitz berezia izan zen, baina jende ezagunaren aitzinean urduriago jartzen naiz. Ilusio handia egiten zidan baina hagitz urduri nintzen. Jendeari gustatzeko ez zela nahikoa izanen pentsatzen nuen... Baina hagitz kontent gelditu nintzen eta merezi izan du. Orain arte ingurukoek gustatu zaiela erran didate, batzuk harritu ere egin dira, bakarka ez bainaiz aunitz ari-tu...

Igerilekuak zabalik uztailaren 1etik abuztuaren 22ra

Udalak bi sorosle eta sarrerako kontrolerako eta instalazioen garbiketa egiteko bertzte bi langile kontratatu ditu

IRUNE ELIZAGOIEN

Joan den urtean igerilekuez gozatze aukerarik izan ez bazen ere, aurtun zabalik izanen dira igerilekuak. Uztailaren 1ean hasiko da denboraldia eta abuztuaren 22 arte iraunen du. Udalak bi sorosle eta sarrerako kontrola eta instalazioen garbiketa egiteko bertzte bi langile kontratatu ditu. Bi hauek bi txanda izanen dituzte: 10:00etatik 16:00etara eta 15:00etatik 21:00etara. Igerilekuen ordutegiari dagokionez 12:00etatik 20:00etara egonen dira zabalik.



Aurtun bai irekiko dituzte igerilekuak.

Sarrerak eta bonoak ohiko lekuetan eskuratu ahal izanen dituzte igerilekuetako erabiltzaileek. Covid-19 dela eta indarrean dauden arauak bete beharko dira.

Lehen jaunartzea egin dute bederatzi gaztetxok

Maiatzaren 30ean, bi urtetako bederatzi gaztetxok lehen jaunartzea egin zuten: Irantzu Otxoteko, Haizea Zelaia, Jare Arburua, Ainara Berrueta, Romeo De Caceres, Barbara De Caceres, Larraitz Do Couto, Enaitz Aginagalde eta Enara Mendiburu.

Oinarritzko gaitasun digitalak ikastaroa uztailan

Informatika kontuetan hasiberriak direnentzat ikastaroa antolatu du Nafarroako Gobernuak. Hamabi eguneko informatikaren oinarritzko kontuak erakutsiko dituzte kultur etxean, uztailaren 5, 7, 9, 12, 14 eta 16an 17:00etatik 19:00etara. Informazio gehiagorako 948635386.




ANA INDABURU

Andra Mari dantza taldearen emanaldia

Ekainaren 19an Andre Mari Dantza taldeko dantzariak, herriko musikariak eta kantariak lagunduta emanaldia eskaini zuten. Jende aunitz hurbildu zen Joseba Olagarak aurkeztutako saioaz goatzera eta Altxataren XXX. urteurrena ospatzeko ekitaldi gehiago izanen direla iragarri du Altxatak.

Paloma Ochoaren pintura erakusketa

Lesakan bizi den Paloma Ochoa margolariak erakusketa eduki du ikusgai kultur etxean ekaineko azken bi asteburutan eta jende andana hurbildu da erakusketaz goatzera. Margolaria bera ere gustura gelditu da izan duen harrerarekin eta jendearen ikusminarekin. Berriz ere errepikatzeko gozoz dago.



PALOMA OCHOA



KAGU

LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBK EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK



Osatzuz

Psikologia- Psikoterapia Haurrak-helduak
Garbiñe Goia Irazoki
GESTALT PSIKOTERAPEUTA ETA BIKOTE ETA FAMILIA PSIKOTERAPEUTA
BAKARKAKO TERAPIAK: haurrak, nerabeak, helduak
619 343 755 Altxate 1 BERA



MARITX

- INGENIARITZA ELEKTRIKOA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK
- BOLETIN INDUSTRIA
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) **636 617 450** Legia, 23 - BERA





Giro polita sortu zen frontoian Merkatu Ttikiaaren inguruan. MAITE, ANA ETA ITZIAR



Dantzariak karriketan dantzatu zuten, erraldoi eta buruhandiekin batera.

Eskolako jantokiaren aldeko Merkatu Ttikia arrakastatsua

Guraso Elkarteak prezio sinbolikoan salgai paratutakoetatik saldu ez zirenak Paris 365i eta Emausi eman dizkiete

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Udaberriko besten egitarauaren barrenean, ekainaren 20an arrakasta handiz ospatu zen Merkatu Ttikia, guraso elkarteak antolatuta eskolako jantokiari laguntzeko.

Era guztietako gaiak paratu zituzten salgai frontoian igande horretan: landareak, apaingarriak, etxe-tresna elektrikoak, jostailuak, altzariak, liburuak, kristalezko ontziak, lepoko zapiak, xaboiak, ukenduak, ogia, kontserbak, postreak... Guztiak herritarrek emandakoak. Produktu horiek guztiak prezio sinbolikoetan paratu

zituzten salgai eta saldu ez zirenak Paris 365 eta Emausi erakunde ezagunei eman zizkieten.

Egun berezi hau girotzeko, eguerdian Igantziko dantzariak herriko karriketan dantzatu zuten erraldoi eta buruhandiekin batera. Arratsaldean, berriz, plaza emanaldia eskaini zuten eta dantza herrikoiak dantzatzeko aukera ere izan zen.

Udaberriko bestak bukatzeko, joan den igandean bere dokumentala aurkeztera etortzekoa zen Aritz Ganboa, Arruazuko artzaina.



Era guztietako gaiak paratu zituzten salgai.

Herriko eta Arantzako boluntario talde baten laguntzaz ireki dituzte igerilekuak

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Maiatzaren hasieran udalak enkantera atera zuen igerilekuak eta ostatuaren kudeaketan. Inork eskaintzarik aurkeztu ez zuenez, Igantziko eta Arantzako herritarrez osatutako boluntario talde batek bere lana eskaini zion udalari, udan

igerilekua jendearentzat ireki ahal izateko. Horrela, bi sorosle kontratatzea erabaki zuen udalak. Sorosle lanak egiten ez dituen langilea, boluntario taldekoekin batera, igerilekuko instalazioen edukierazaintzeaz, mantentze-lanez eta garbiketaz egiteaz arduratuko da.



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGAROTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGAROTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com



caser
residencial

www.caserresidencial.es

Egonaldi motak

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimerra eta bestelako dementsiak dituzten gaixontzako egonaldiak
- Eguneko zentroak:
 - 365 egunetan irekiak
 - Garraio zerbitzua Irun, Hondarribia eta Hendaiara
 - Iparraldearekin hitzartuak APA diru-laguntzak

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

42 haur eta gaztetxok eman dute izena udalekuetan

Uztailaren 5etik aitzinera lau astez eta goizez izanen dituzte udalekuak

NEREA ALZURI

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak urte saila daramatza uda garaian udaleku irekiak antolatzen eta hala egin du aurten ere. Edizio honetan, 42 haurrek eman dute izena udalekuetan, baina izen-emateak asteka egiten direnez, astero kopuru hori aldatuko da.

Haur eta gaztetxo horiekin lau begirale ariko dira. Begirale arduraduna Maiana Sein izanen da, eta bertze begiraleak Andoni Mazizior eta Uxue Alustiza arantzarrak eta Izaskun Galardi izanen dira.



Udalekuak 2017an.

Uztailaren 5etik 30era, 10:00etatik 13:00etara aisialdirako tarteak izanen dute herriko haur eta gaztetxoek. Egunero eskolan elkartuko dira.

Udako kontzertu aukera zabala Aterpean

N. ALZURI

Uda honetan ere zuzeneko musikarekin gozatzeko aukera izanen da Aterpean. Era guztietako kontzertuak antolatu dituzte, eta eguraldiaren arabera, terrazan edo jangela handian egiten dituzte.

Uztailari dagokionez, larunbat honetan, Niko Etxart eta Xabaltzekin afari kontzertua izanen da, 19:30ean, eta uztailaren 10ean kontzertu afaria Joseba Tapiarekin, 19:30ean. Hortik aitzinera, uztailaren 17an Satelitik (19:30); 24an kontzertu bazkaria Gregorio, Beñat eta Andoni Mitxelena akordeoilariekin (14:00) eta 31n, Joseba Irazoki & Rüdiger (19:30) ariko dira.

Abuztuaren 1ean, eguerdian, Estitxu Pinatxoren akustikoa aperitif orduan izanen da. Abuztuaren 6an Erabatera tal-



Mitxelenatarrak iazko udan Aterpean.

dearen kontzertua izanen da (19:30); abuztuaren 7an Jon Basagurenekin (Izaki Gardenak) kontzertu afaria (19:30); abuztuaren 13an Balerdi Balerdi (19:30); abuztuaren 22an Makala & Konsulekin aperifaren tarteak (12:00) eta abuztuaren 27an, Esne Beltza & Amak taldeekin kontzertu afaria (19:30).

Edukiera mugatua da eta kontzertu bazkari eta afarietarako aitzinetik erreserba egin behar da (www.arantzeta.net).

Ikasturte akabaila hainbat ekitaldi eta ateraldirekin borobildu dute eskolan

N. ALZURI

Ekainaren 22an bukatu zuten ikasturtea eskolako ikasleek eta hilabete hondarrean irakasleek. Baina hori baino lehen, bizikidetza taldeak errespetatuz, ikasturte akabailako ekitaldi eta ateraldiak egin zituzten aitzineko egun eta asteetan.

Zaharrenek, erraterako, bizikleta ibilaldia egin zuten Doneztebera; Porrotxen eta Txapasen bisitan eskolako guztiek dolua landu zuten; Lehen Hezkuntzako eta DBHkoek Bulatsegin kanpaldia egin zuten; Aterpekoek proposatuta Arruzpin ere sartu

ziren Lehen Hezkuntzakoak eta Haur Hezkuntzakoak Irrisarrira eta pottokak ikustera joan ziren. Mendi ateraldia, Emakumeen Memoriaren Baratzetan lan txoak... Denetarik egin zuten ikasturtea borobiltzeko. Orain, irailera arte, merezitako atsedenaldia izanen dute.

Bertzetik, urte aunitzez herriko hainbat haurren hezkuntza eta hazkuntza profesionaltasunez eta maitasunez lanean aritu den Ixabel Danboriena irakasleak erretiroa hartuko du. Mila esker, Ixabel, zure lanagatik. Garai berrian, ibilbide on!



Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoak Bulatsegin egindako kanpaldian..



PINTURA eta DEKORAZIOA

BIDASOA

Tel.: 948 45 02 48 - 619 88 97 23

Lakadura eta bernizadurak
Armairuak, azulejuak, etab.
Etxe eta enpresen mantentze-lanak
Etxeko konponketa txikiak

Oiz (Malerreka).
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu.
pinturasbidasoairun@gmail.com



Kamioiak A-15era desbideratzearen alde 3.000 sinadura

Kamioiak desbideratzeak sortuko lituzkeen onuren azterketa teknikoa eginen duela iragarri du herritarren plataformak

TTIPI-TTAPA

«N-121-A errepidean jatorririk edo helmugarik ez duten kamioiak A15era desbideratzea». Bertze behin horixe eskatu zuen ekainaren 23an Iruñeko Katakrak liburu-dendan aurkeztu zuten herritarren plataformak. Aldi berean, eskaera horrekin bat egin duten hiru mila lagun sinadurak aurkeztu zituzten, eta «N-121-A errepideak Nafarroako errepide sareko hilkortasun indizerik altuena» duela oroitarazteaz gain, hainbat datu paratu zituzten mahai gainean.

N-121-An kamioi kopurua goiti, eta A-15ean beheiti

Bertzeak bertze, «A-15eko bidesari ondorior, N-121-An kamioiak etengabe ugartzen ari» direla salatu zuten. Batetik, «gaur egun, bana bertze, egunean 2.700 kamioi ibiltzen direla eta horietatik 2.000 inguruk N-121-Ako trazaduran ez dutela ez jatorririk ez helmugarik» adierazi zuten. Eta bertzetik, «paraleloa den A-15 autobidean kamioi kopurua nabarmen murrizten ari dela» azaldu zuten: «Gaur egun, bana bertze, 1.900 ibiltzen dira egunean, eta ia ez da istripu larrik gertatzen». Bide beretik, «2008tik 2017ra, N-121-Ako kamioien trafikoa % 66 hazi zela eta A-15ean % 36 jaitsi zela» gaineratu zuten. 2018an Almandozko eta Belateko tunelak itxi zituztenez, 2008tik 2017rako datuak aipatu zituzten.

Hala ere, bi tunelak itxi aitzineko hilabetean bildutako datuak ere eman zituzten: «2018ko martxoan, astelehenetik ortzi-ralera, bana bertze egunero 8.993 ibilgailu zenbatu zituzten

Belateko tunelean, eta horietatik 3.499 kamioiak ziren. Hau da, lanegunetan, hamar ibilgailutik lau kamioiak ziren eta lautik hiruk ez dute N-121-An ez jatorria, ezta helmuga ere». Datuak 2018koak diren arren, «azken datuen arabera ere, N-121-An kamioien bana bertzekoa handitzen» ari omen da.

Egoera ikusita, N-121-A errepidea «gainezka» dagoela erran zuten: «Nafarroako errepide eta autobia guztien artean kamioien trafiko handiena du» eta «trafikoak kalte handia eragiten du inguruko herri eta bailaratan bizi direnen bizi kalitatean».

Desbideratzea


Desbideratzea egingarria da plataformaren arabera: «Europako herrialde gehienetan kamioiak autobidetik ibiltzera behartuta daude. Katalunia eta Errioxako gobernuek hala egin dute». Eta aurkezpenean argi utzi zuten, «errepide segurtasunagatik, trafikoa arintzeko eta ingurumen arrazoiengatik estatuko eta foru legeen bitartez, Nafarroako Gobernuak kamioiak bidesariak dituzten autobideetatik ibiltzera behartu ditzakeela».

Javier Ramirez kontseilariaren hitzetan, ordea, «ibilgailu astunen trafikoa arautzeko eta murrizteko, beharrezkoa da neurri horiek justifikatuta eta azterlanean oinarrituta egotea. Foru-

«N-121-AN KAMIOIEN TRAFIKOA HAZTEN ARI DA»



Ekainaren 14an Alkaiagan egindako errepide mozketak.



Kamioien trafikoaren bilakaera adierazten duen grafikoa. PLATAFORMAK UTZITAKOA.

zaingoaren txostenen arabera, azken bortz urteetan, 14 istripu hilgarritan 19 pertsona hil dira eta bakarra gertatu da kamioi baten arduragatik». Hala, desbideratzera behartzeko «arrazoi nahikorik ez dagoela» dio.

Baina «gobernuek Foruzaingoaren txostenaren harira egin duen irakurketa interesatua» dela iritzita, «DGT Espainiako Trafiko Zuzendaritzaren eta Ertzaintzaren txostenetan oinarrituta» bertzelako datuak eman zituzten ekainaren 23ko aurkezpenean. Horren arabera, «2020an, Nafarroak dituen 3.821 kilometroko errepideetan, 16 lagun hil ziren trafiko-istripuz. Eta horietatik lau N-121-A errepidearen 61 kilometroetan hil ziren. Hau da, hildakoen % 25

errepide sarearen %1,6 hartzen duen N-121-An hil ziren». Gehiago ere bai: «2020an, lau istriputan, bortz lagunek galdu zuten bizia eta lau istripuetan ibilgailu astunak zeuden tartean». Epe luzeagoko datuak ere eman zituzten: «2016tik 2020ra, heriotza eragin zuten 16 istripuetan 22 lagun hil ziren. Istripu horien % 63tan ibilgailu astunak zeuden tartean. 2009tik 2020ra, 31 istripu hilgarritan, 41 lagun hil ziren eta % 68tan ibilgailu astunak zeuden tartean».

Hurrengo helburua

Hori horrela, «kamioiak desbideratzeak sortuko lituzkeen abantaila eta onuren inguruan, Nafarroako Gobernuak egin ez duen azterketa tekniko eta profesional bat egitea» izanen da plataformaren «hurrengo helburua». Horretarako, Kataluniako RACC taldera jo dute: «Beraiek egin zituzten Katalunian N-II, N-240 eta N-340 errepideetan kamioiak desbideratzeak izanen lituzkeen onuren azterketak».

«GOBERNUAK EGIN EZ DUEN AZTERKETA TEKNIKOA EGINEN DUGU»

Ikasturteari bukaera ederra eman diote ikasleek

Heldu den ikasturtean hamasei ikaslek Donezteben hasiko dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

MAIDER PETRIRENA

Ikasturteko azken txanpan hainbat ekintza egin dituzte eskolan. *Liburuak gozagarri* ekimenaren barrenean, Nerea Loiola eta Nerea Arrien idazleen bisita izan zuten. Lehen Hezkuntzako bigarren mailatik hasi eta seigarrenera bitarteko ikasleekin egon ziren eta horretarako ikasleek lehendik beraien liburuak irakurri, landu eta zalantzak beraiei galdetzeko aukera paregabea izan zuten.

Horrez gain, kurtso bukarako ateraldiak ere egin dituzte. Ekainaren 7an hirugarren mailatik seigarrenera artekoak Sunbillatik Legasara bizikletaz joan ziren. Gaztetxoenen bitaldeak Bertiz Abentura Parkeko zuhaitzetako zirkuaituan ibili ziren. 5. eta 6. mailakoak, berriz, Narbarteko aterpera

joan eta han aldatu eta Kano-raft Bidasoan egitera joan ziren. Esperientzia arras polita izan zela eta aunitz gozatu zutela adierazi zuten.

Ekainaren 8an eta 9an, berriz, Haur Hezkuntzako ikasleak eta LH 1. eta 2. mailako ikasleak Doneztebeko liburutegia ezagutzera eta Intzakardi parkeaz gozatzera joan ziren. 3. eta 6. maila artekoek ekainaren 16an izan zuten aukera.

Ekainaren 21a, azken eguna, egun haundia izan zen denentzat baina bereziki Sunbillako eskolan azken eguna zuten hamasei ikasleentzat. Eskolako ikasle eta irakasleek kanta eder bat kantatu zieten eta, aldi berean, 6. mailako ikasleek irakasleei eta jantokiko langileei egindako lana eskertu zieten. Momentu hunkigarria izan zen.



Doneztebera joanen diren ikasleak eta 3-4. mailakoak Nora Loiolarekin. A. GRAJIRENA



UTZITAKOA

Jubiloteka berriz ere martxan

Ekainaren 17az geroztik martxan da berriz ere jubiloteka. Hemendik aitzinera, astean bitan, hau da, astearte eta ortzegunero, 10:00etatik 12:30era tarte ederra pasatzeko aukera izanen dute herriko adinekoek. Ramonirekin bilduko dira.

Uztailaren 1etik abuztuaren 29ra igerilekua irekita egonen da

M. PETRIRENA

Pasa den urteko udan ez genuen igerilekuaz gozatzerik izan. Aurten, ordea, ortzegun hone-tan, uztailaren 1ean, ireki eta abuztuaren 29an itxiko dutela iragarri dute. Asteroko aldaketak direla eta, arauak eta neurriak jakinaraziko dizkigute.



Abuztuaren 29ra arte irekiko da.

Eneit Bertiz txapeldun izan da

Eneit Bertiz Apezetxea herritarra, Baztandarra txirrindularitza taldeko kadete kategoriarekin, hainbat lasterketetan ibili da eta Nafarroako eta Euskadiko txapeldun izan da. Lerro hauen bidez, egindako lasterketengatik zorionak eman nahi izan zaizkio. Eutsi goiari eta segi horrela Eneit!



AMAIA APEZETXEA

Ludoteka izanen dute uztailetik irailera

Uztailaren 5ean hasiko den zerbitzua goizez eskainiko dute hiru eta hamar urte bitarteko umeentzat

MARGA ERDOZAIN

Uztailaren 5ean udako ludoteka martxan jarriko da eta Dindaia fundazioak kudeatuko du. Aitzineko urteetan bezala, hiru eta hamar urte bitarteko umeentzat bideratutako zerbitzua goizez eskainiko da, 09:00etatik

14:00etara. Interesatuak argibideak jasotzeko eta izena emateko udalaren webgunera jo edo 948 45 00 17 telefonora deitzen ahal dute. Plazak mugatuak izanen dira. Ludoteka zerbitzua ez ezik, liburutegikoa ere goizez emanen dute (09:00etatik 13:00etara).



Mendi itzulia arrakastatsua eta jendetsua izan zen. UTZITAKOAK

Errekaren eskutik udako kirol eskola izanen da uztailetik abuztura

MARGA ERDOZAIN

Udako kirol eskola uztailaren 26tik abuztuaren 20ra bitarteko kiroldegian eta pilotalekuan izanen da: astelehen, asteazken eta ortziraletan. Ordu batez bilduko dira, goizetan, eta osatutako taldearen araberako antolaketa egingen dute. Adinari dagokionez

aipatu behar sei eta 12 urte bitarteko gaztetxoek izena ematen ahal dute eta bazkideek 30 euro eta bazkide ez direnek 35 ordaindu beharko dituzte.

Bide batez, aipatzekoa da, Errekak antolatutako mendi itzulia polita, jendetsua eta gustagarria izan zela.



Parte hartu duten ikasle batzuk. UTZITAKOAK

Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleek eskola bideak markatu dituzte

MARGA ERDOZAIN

Doneztebeko Udalak, San Miguel ikastetxearekin, Mendaur institutuarekin, Malekako Mankomunitatearekin eta Osasun Zentroarekin elkarlanean, Eskola Bideak proiektua garatu du.

Ikasturtearen azken egun hauetan Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleak eskola bideak markatzen eta egin duten proiektuari buruzko albisteak jorratzen aritu dira. Hiru urte luze duen ekimen honi bultzada eman zaio eta 2021-2022 ikasturtean, eskolako bide segurak

zabaltzeko, eskolak hainbat hizkuntzatan idatzitako triptikoak banatu, eta triptiko horietan hizkuntza bakoitzari dagokion QR kodeak presatatu dituzte.

Beraz, triptikoak euskaraz, gaztelaraz, ingelesez, frantsesez eta arabieraz irakurtzeko aukera izanen da. Honetarako, itzulpen lanetan, irakasleen, familien eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen laguntzaz baliatu dira. Eskola bideak inklusiboak nahi direnez, zebra bideen parean ikurrak jarriko dituzte.

Eskolako aterpea egiteko lanak uztailean hasiko dira

Legeak ezarritako prozedura burututa, hau da, proiektua, esleipena, onarpena... egin da, uztailean eskolako aterpea egiteko lanak hasiko dituzte. Udaleko arkitektoek proiektatutako estalkia ikastetxeen aitzinaldean altxatuko da. Nafarroako Gobernuak %100eandiruz lagundutako ekimen honek 300.000 euroko kostua izanen du. Harriko enpresak egingen du eta aurreikusi dutenez, uztailean eta abuztuan egingen dute, ikasturte berrirako prest-prest izateko.

Herriko besten faltan kultur ekitaldiak prest

Herriko bestak ez ditugunez herriko etxeak udarako hainbat ekimen antolatu ditu: uztailaren 3an, 19:00etan, Erreka dantza taldearen emanaldia Bearzana plazan; uztailaren 10ean, 18:00etan, herri kirolak, Nafarroako Txapelketa (koaxkor biltzea, orga eta kadete mailan arpana), Ezkurra pilotalekuan. Uztailaren 17an, larunbatean, Santa Luzia plazan Trikidantz taldearen emanaldia eta uztailaren 18an, igandean, *Euskañolitis* izeneko bakarrikizketa, Oihan Vegaren eskutik.



BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
 INSTALAZIO ELEKTRIKOAK


Zalain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65

Egoitz Gorosterrazu ere bertsolari txapelketan

Iruritako kanporaketan lortu zuen txartela eta Iker Gorosterrazu anaiarekin eta Alazne Untxalorekin parte hartuko du

A. MINDEGIA

Ekain hondarrean jokatu ziren urriaren 2an abiatuko den Nafarroako Bertsolari Txapelketarako aurrekanporaketak Igantzin, Garesen eta Iruritan. Baztango kanporaketan izan zen Egoitz Gorosterrazu herritarra eta saio txukuna egin ondotik sailkatu diren 13 bertsolariaren artean izanen da. Iker Gorosterrazu anaia eta Alazne Untxalo ere bertan izanen dira.



Gorosterrazu anaiak.

Bertso eskolaren bukaera

Batzuk hasteko prest dauden heinean, bertzeak bukaerara begira hasiak dira. Herriko bertsolari gazteek akitu dute aurtengo bertso eskolako ikasturtea. Bukaera ederra eman zioten gainera, alde batetik, Baztan-Bidasoko bertso paper lehiaketako sari

banaketan egon baitziren Beran. Ikasle guztiek parte hartu zuten sariketa honetan. Bertzetik, gelatik atera eta arratsalde pasa joan ziren errekarara. Orain batzuk uztai-lean bertso udalekutara joanen dira Uitzira. Irailean berriro aurrematrikulazioa jarriko dute martxan.



UTZITAKOA

Mendaur eskolako musikarien kontzertua

Ekainaren 16an Aurtizko frontoian kantu politak aditu ziren Mendaur trikitixako ikasleen eskutik. Aurtengo kurtso bukaerako kontzertua eskaini zuten Sunbilla, Donamaria, Gaztelu, Legasa, Irurita eta nola ez herriko ikasleek. Segurtasun neurriak bermatuz ttikienek zein koxkorragoek parte hartu zuten.



UTZITAKOA

'Luze edo motz' Aurtitzen

Mirari Martiarenaren eta Idoia Torregaraien umorezko ikuskizuna Aurtizko frontoian ikusi ahal izan zen ekainaren 12an. Elkartu ziren herritar zein kanpotarrak momentu onak eta barregarriak bizi ahal izan zituzten. Hilerokoaz, emakumeak bizitzen dituen egoereta... aritu ziren, ironia eta umore puntuan.



UTZITAKOA

Iñaki Leiza txapeldun


Aurtizko pilotari gaztetxo ederki aritu da Nafarroako Federazioak antolatu dituen buruz buruko eta bikotekako txapelketan. Bikoteka Enaitz Elizalderekin irabazi zuen eta buruz burukoa Barañainen Berako Goñiren aurka jokatu zuen eta 18-17 nagusitu zitzaion. Txapelketan gehien borrokatu duen pilotariaren kopa ere jaso du.

Pulunpa eskolako ikasleek 2020-21 ikasturtea akitu dute

A. MINDEGIA

Ekainaren 21ean bukatu zuten Pulunpa eskolako ikasleak ikasturtea. Aurtengo ikasturtea gazi-gozoa izan da baina ederki eraman dute gure irakasle eta ikasleek. Gainera, hainbeste amesten zen eguna ere izan dute, eskola berrirako aldaketa. Gure

herriko eskolan zorionez ez dute gelarik konfinatu. Eskolatik eskerrak eman nahi dizkiete, jantokiko langileei, garbitzaileei, guraso elkartekoei, jantokiko gestio arduradunei eta nola ez guraso zein ikasleei. Ikasturte bukaeran ipuin-kontalaria, jolasak eta gosaria izan zituzten.



Aizkolegiko jauregiko proiektuaren idazketa urte bukaeran hasiko dute. ARTXIBOA

140.000 bisitari izan zituen natur parkeak 2019an eta 2020an

Aizkolegiko jauregiko proiektua aurkeztu zuten ekainaren 15ean patronatuak egindako bileran

TTIPI-TTAPA

Guztira 137.520 pertsona igaro dira Bertizko jaurretirik azken bi urteetan, eta, beraz, parke natural hori Nafarroako naturagune bisitatuenetako bat da oraindik ere. 2019an, 94.494 bisita izan ziren, aitzinako urtean baino % 12,4 gehiago, baina kopuru hori 43.025era jaitsi zen 2020an, martxoaren 14tik uztailaren 18ra instalazioak itxi behar izan baitzituzten.

Bertizko Patronatuak 2019-2020 Jardueren Txosteneko datu honen eta bertze batzuen berri izan zuten ekainaren 15ean egin zuen bileran. Bileran, 2019an eta 2020an kontserbazioan, azpiegiturretan eta erabilera publikoan egindako jarduerak nagusiak aztertu, eta 2021erako aurreikusitako jarduerak aurkeztu zituzten. Horien artean, nabarmentzekoak dira basoak zaindu eta hobetzeko jarduketaren jarraipena, iazko urrian haizetara igaro ondotik (bereziki, Erreparazea, Suspiro, Iturburu eta Irretarazu bidexketan eta erabilera publikoko bide nagusian).

Datozen lau urtetarako parkearen erabilera publikoaren kudeaketa Kaizen enpresari eman zaio. 2002tik orain arte Ostaitz enpresak egin du kudeaketa eta bere lana eskertu du Patronatuak.

Aizkolegiko proiektua

Aizkolegi jauregia erabiltzeko aukerei buruz Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak agindutako azterketa bat aurkeztu zieten patronatuko kideei, aztertu eta baloratzeko. Iragarri dutenez, jauregi modernistako esku-hartzea geroago patronatuak erabakiko duen proiektuan zehaztuko dute. Proiektu horren idazketa urte bukaeran hasiko litzateke. Haren finantzaketa parkeko kultur ondarea zaharberritzeko hiru urteko proiektu oso batean sartuko litzateke. Proiektu horrek guztira, 1,4 milioi euroko kostua izanen du, eta beirateak, Markeseneko obrak eta Naturaren Interpretazio Zentroa dagoen Tenientetxea baserrirako igogailua egitea izanen ditu bere baitan.



UTZITAKOA

Kenpo Kai txapelketan Beran

Ekain hasieran Berako kiroldegian Kenpo Kai txapelketa jokatu zuten. Kenshi-ek hiru modalitateetan parte hartzeko aukera izan zuten: Kata (esku hutsez), kobudo (armak erabiliz) eta konbate (borrokatuz). Doneztebeko Kenpo Kai Klubekoek parte hartu zuten eta arront emaitza onak lortu zituzten.



UTZITAKOA

Helbidea proiektua martxan Ezkurran

Helbidea proiektuaren barne, Ezkurako baserri eta bordetan identifikazio plakak paratu dituzte. Horri esker, larrialdi kasuetan medikuek, suhiltzaileek eta zerbitzu publikoek baserri, borda eta etxeetara ahalik eta lasterren ailegatzeko aukera dute. Egun hauetan etxeetan banatutako plakak banatzekoak zituzten.

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN



facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa



Margo tailerlean parte hartu zuten gaztetxo batzuk. ARTXIBOKOA

Ludoteka zerbitzua izanen da uztailean herrian

Izena eman nahi dutenek Lorea Mayari edo Malen Etxekoloneari jakinarazi beharko diete

F. ETXEKOLONEA

Lorea Maya eta Malen Etxekoloneak ludoteka antolatu dute uztaileako. Haur eta gaztetxoei bideraturiko jarduerak egingen dituzte hila-bete osoan: eskulanak egitea eta natura eta elkarlana lantzea aurreikusi dute momentuz. Astelehenetik ostiralera,

goizez, 09:30etik 13:00etara, bilduko dira eta, horretarako, udalari eskola zena eskatu diote.

Ludotekan eta ludotekatik kanpo

Ludoteka elkartzeko puntutzat eta eguraldi kaxkara dagoenean bertan biltzeko baliatu-

ko dute. Ona dagoenean, berriz, kanpora ateratzeko eta giroaz gozatzeko aprobe-txatuko dute. Segurtasun neurri guztiak betez egingen dituzte jarduerak: maskara jantzi-ta izanen dute, komunaren desinfekzioa zainduko dute, leihoak irekita mantenduko dituzte, materiala eta mahaia garbituko dituzte...

Izen-ematea

Izena eman edo informazio gehiago nahi dutenek arduradunetaren batekin harremanetan jartzea (telefonoz deituz edo Whatsapp bidez) aski izanen dute. Hilabete osorako ez ezik, asteka edo egun batzuetarako izena ematea posible izanen da.

Fermin Santesteban albinte eta txistulari izana hil da

Joan den ekainaren 18an hil zen Fermin Santesteban Otxandorena herritarra. 1969tik 2007ra bitarte, hau da, 35 urtez, Zubieta eta Iturengo albintea izan zen eta erretiroa hartu zuenean bi herrien alde egindako lana eskertzeko omenaldia egin zioten. Albintea ez ezik, txistularia ere izana da Santesteban, eta herriko festetan, Bestaberri Egunean, ezkontzetan eta beste hainbat hitzordutan herria girotzen aritu izan da luzaroan. Goian bego Fermin eta doluminak familiari.

Errotan eta idazkari lanpostuan aritzeko deialdiak

Ituren eta Zubietako udalen idazkari lanpostua hutsik geldituenez, lanpostua betetzeko deialdia egin zuen udalak. Interesatuak izena emateko epea izan zuten ekainaren 23ra arte. Horrez gain, errotan aritzeko ere langile bat behar zutela adierazia zuen udalak.



UTZITAKOA

Pilotari gaztetxoak punta-puntan

Iñaki Leiza aurtiztarra eta Enaitz Elizalde herritarra ekainaren 12an Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu zuten Nafarroako Klub Txapelketan txapelak izan ziren. Erreka klubeko bikotea Txarutako Arraztoa eta Azkarragaren kontra arit zen eta 6-18 nagusitu zitzaion.



UTZITAKOA

Plazaz plaza txapelketa

Plazaz plaza txapelketan parte hartzen ari da Naroa Elizalde. Ekainaren 19an Eneritz Arruetaekin bikote osatuta Ainhoa Ruiz de Infante eta Olatz Ruiz de Larramendiren aurka aritu zen Ziokoko (Arabako Errioxan) plazan. Hasieran markagailuari eutsi zioten arren, gero aurre hartu eta galdu egin zuten.

«Ikusleen berotasuna sumatzeko gogoz gaude dantzariak»

INMA IBARROLA MARIEZKURRENA ERREKA DANTZA TALDEKO KIDEA

Pandemia tarteko, urtebete baino gehiagoz ez du emanaldirik eman Erreka Dantza Taldeak. Hala ere, martxoaz geroztik dantzariak lanean aritu dira eta ailegatu da hori plazaratzeko momentua: uztailaren 3an, 18:30ean, Doneztebeko Bear Zana plazan dute hitzordua

TTIPI-TTAPA

«Ilusioa eta urduritasuna». Horixe sentitzen du Inma Ibarrola Mariezkurrenak (Doneztebe, 2002) larunbaterako, uztailaren 3rako, prestatu duten emanaldiaren atarian. Erreka Dantza Taldeko kidea gogotsu bueltatuko da plaza eta momentu horretan «pandemia aitzineko garaian» sentitu nahiko luke bere burua, berarentzat emanaldi bereziena den eta «parekorik ez duen» sanpedroetako saioan hain zuzen.

Noiz hasi zinen dantzatzeko eta noiz sartu zinen Erreka Dantza Taldean?

Zehazki ez dakit baina lau urte izanen nituen. Dantza eskolatik Erreka Dantza Taldera (EDT) 2018-2019 urte bitartean pasatu nintzen. Gaztetxoekin dantzatzeko segitzen nuen arren, EDTrekin entseatzeko hasia nintzen.

Batetik bertzerara salto handia izan zen?

Bai. Pauso eta mugimendu berriak, seriotasuna eta erritmoa... entseguak gurtziz aldatu ziren.

Zenbat lagun zarete taldean?

20 bat baina aurten entseguetan 13 elkartzen gara. Taldekide batzuek lana dute eta bertze batzuek amatasun kontuak direla eta ezin dute parte hartu.

Nor izaten duzue entseguetan gidari?

Azken urtean taldekoei artean aritu gara dantzak elkarlanean



Erreka Dantza Taldearekin entseatzeko 2018an hasi zen Ibarrola.

prestatzen. Hala ere, erran behar dazaharrenak gazteagoak garenoi pausoak, dantzen mugimenduak... azaltzen ari direla. Taldean adin aunitzetakoak gaude eta horrek berezi eta aberasgarri egiten gaitu. **Urte berezia zen 2020a zuentzat baina pandemiak dena hankaz goiti paratu zuen...**

2020ko apirilean ospatu behar genuen EDTren hamargarren urteurrena, gogotsu aritu ginen lanean, baina zoritxarrez, pandemia ailegatu zen eta ezin izan genuen ekitaldia aitzinera eramane. Ondotik, entseguak eten behar izan genituen. Eguberrietan entsegu pare bat egin genituen arren, berriz ere seriotasunez eta astero-astero entseatzeko martxoan hasi

ginen. Astearen bitan bildu gara eta emanaldia hurbildu ahala gehiagotan.

Nolakoa izan zen buelta?

Hasteko irrikitan geunden eta nabaritu da. Hala ere, osasun neurriek errendimendua pixkabat oztopatu dute. Egia erran niri nahiko aldapatsua egin zait, dantza aunitz ez nituen sekula ikasiak eta, beraz, hutsetik hasi behar izan dut.

Noiz izan zenuten azken emanaldia?

Ekainaren 12an Mendi Abesbatzak antolatutako saioan abesti pare bat antzeztu genituen. Horien aitzinetik azkena zein izan zen ez dut buruan baina 2019ko Eguberrietakoa zela uste dut. Azken Eguberrietan zer bait antolatzen

saiatu ginen baina ezin izan genuen egin. Hortaz, 'Hator, hator' dantzatu, grabatu eta Xabi Iriarteren laguntzaz bideo bat egin genuen.

Uztailaren 3an plazara bueltatuko zarete...

Geldialdiaren ondoren berriz ere entseatzeko hasi ginenean, bestetako seinale moduan zer bait antolatu behar genuela argi izan genuen. Beraz, ideia martxoan sortu zen baina, ideia fintzen eta forma ematen apirilean hasi ginen. Ilusio handiz prestatu dugun uztailaren 3ko ekitaldira herriko eta inguruko jende aunitz hurbiltzea espero dugu.

Hamargarren urteurrenako ekitaldia izanen da ikusiko duguna?

Ez, ez da berbera izanen. Uztailaren 3rako, besten seinale moduan, aitzinetik antzezturiko dantza sorta esanguratsu batzuk bildu dugu.

Zer du bereizgarri emanaldi horrek?

EDTren itzulera izanen da eta, gainera, aspaldi ez dugu emanaldirik eman. Ikusleen berotasuna sentitzeko aukera izanen dugu. Emanaldia Bear Zanan egingen dugu urteroko bestetako emanaldia egiten genuen moduan, eta beraz, pandemiaren aitzineko garaietara itzuli eta une zoriontsu horiek gogora ekarri eta biziberritzeko aukera izanen dugu.

Nola bizi dituzu emanaldiak?

Urduri eta gogotsu bizi izan ditut. Niretako urrezko bi momentu izaten dira emanaldietan: oholtzara igo aitzinetik izandako bizipenak eta, dantzan gaudela, jendearengandik jasotako erantzunak gorputzean eragiten duen eta azal ezina den sententzia.

Ondotik, udan bertze nonbait ikusiko zaituztegu?

Oraindik ez dugu deus lotu baina dantzan aritzeko gogoz gaude eta bertze herrietan emanaldirik bat ematea gus-tatuko litzaiguke.

Uztailaren 3an abuztuaren entseguetan segituko duzue?

Hori da asmoa. Hala ere, normalean udan zailtasun gehiago izaten dugu.

40 mendizale bildu ziren ekainean Urdazubin

Ibilbide ederraz gozatu ondotik, mendizaleek Juanjo Suhasi, Pakito Irigoieni eta Julianari eskerrak eman zizkieten

P. IRASTORTZA

Egutegian adierazi bezala, Urdazubin izan zuten ekaineko mendizaleen hitzordua. 09:00etan plazan bildu ziren 16 herritatik etorri ziren 40 mendizaleak. Denak eguzki distiratsua lagun, ingurune eder eta talde-giro umoretsuaz gozatzeko prest agertu ziren.

Ibilbide ikusgarria

Jakina da eskualdeko edozein mendi edo xenda dela erakargarria eta polita. Hori ederki islatu zen urdazubiarrek prestatua zeukaten ibilbide guztian. Plazatik abiatu eta Mitxelenbordan barna, Arlegun, Zugarramurdiko plaza,

Xareta bidea, Leorlas eta Iriberea auzoetatik plazan akabatu zuten ibilbide ederra.

Esker oneko hitzak

Merezitako txalo artean eta esker oneko hitzekin agurtu zituen taldeak txangoaren antolatzaile izan ziren Juanjo Suhasi, Pakito Irigoieni eta Juliana emaztea. Eta aitzineko astean, taldeari goiza goxatzeko asmoz, mendiko bide-zidorretako belar, sasi eta oteak segaz garbitu zituzten... Eskerrik beroenak kuadrilla. Egindako lana eskertu zuten parte hartzaileek eta 'horrela berriro ere gustura etorriko gaituk' zioen jendeak.



Urdazubiko mendi inguruetan ibili ziren elkarteak. P. IRASTORTZA



Elkarteak mendizale batzuk gosaltzen. P. IRASTORTZA

GUTUNA

PABLO IRASTORTZA, ARKUPEAK ELKARTEAREN IZENEAN

Bertze heriotza mingarri bat

Ezin da erran 2021a bide desiragarri eta leunetik doanik. Aurtengo hamabortzeroko TTPI-TTAPAK irakurri dituen ohartuko zen ia hilabetero azaldu dela zoritxarreko heriotza baten berririen bat.

Sunbillatik samina

Martxoan bezala, azken ezbeharraren notizia ere Sunbillatik hedatu da. Orduan, 101 urte zituen Kandida Mitxelena Jorajuria, elkarteak bazkideetatik bigarren adinduen izan zen agur erran ziguna. Oraingoan, datorren irailean, 98 urte beteko

zituen, eta 1997az geroztik elkarteak bazkidea zen Paco Pascual Barrena jaunak erran digu laister arte.



Paco Pascual Barrena.

Uzta mardula utzi du

Nahiz eta azken urtetan Sunbillan bizi, Donostian sortu zen 1923an. Familia ederraren sortzaile izan zen; sei seme-alaba, hamahiru biloba eta bortz birbilobaz gozatzeko aukera galdu ez zuena.

Gizon jantzia

Kulturaduna izanez, idazketa zuen bere bizitza borobildu eta zentzua ematen zion ezinbertzeko osagarri paregabea. Nahiz eta bertze aunitzek bezala, bere lan eta ekarpenak zaratarik gabe, isilean, landuak izan, ezinezkoa da utzi dituen hondar sakonak ahanzte. Bere gaitasunaren adierazgarri dira utzi dizkigun arrastoak: 2016 eta 2017 urtetan, 'Siempre amigos' eta 'Desaparecidos' idazlanekin Arkupeak Elkarteak literatura lehiaketako lehen sariak (beti, Paco-Pa izenpearekin) irabazi zituen. Lehiaketa bereko bi bigarren sari irabazi zituen 2019an, 'Menudencias' eta 'Cuatro amigas' izenburuekin (elkartearen 21. buletinean irakur daitezke). Solera eta Arkupeak aldizkarietan ere idazten zituen kolaborazio-artikuluak. Balio dezatela lerro hauek, Pacori oroipen-omenaldi txiki bat eskaintzeko, eta Elkartearen dolumin sentikorrenak bere atsekabetutako familiari ailegarazteko. Izan zoriontsu Paco!

«EZINEZKOA DA ISILEAN EGIN DUEN LAN GUZTIA AHANZTEA»

Uztaileko galdera

Erratzu, Baztango hamabortz herrietako bat baldin bada, zer da NARBATE Bertizaranarentzat, ikuspuntu instituzionala kontuan hartuta? Gogoratu Nafarroako lurraldeak hainbat entitate desberdinetan sailkatuak daudela. ☎ 618 56 78 37.



Beti Gazte taldea, Beasaingo Loinatz zelaian, finalari ekin aitzinetik. AITOR AROTZENA



Autobusa bete zuten zaleek zelaia kanpoko aldetik ikusi zuten finala.

Finala galdu arren Beti Gazteren igoera ospatu dute Lesakan

Gipuzkoako ohorezko mailako final gogoangarria luzapenean galdu zuen Eibarren kontra (4-6) baina 3. mailan izanen da

AITOR AROTZENA | BEASAIN

Hirugarren mailara igoera lortu zuen Beti Gazte aste bate lehenago eta hortaz, etxeko lanak eginda joan zen ekainaren 12an Beasaingo Loinatz futbol zelaian jokatu zen Gipuzkoako Ohorezko Mailako finalera. Eibar Urkok berriz, irabazita ere ezin zuen igo, bertze filial bat baitauka Eibarrek hirugarren mailan. Halere, partida gogoangarria eskaini zuten bi taldeek. Ate itxiek jokatu arren, autobusa joan zen Lesakatik.

Igoera segurtatua izan arren, lesakarrak ez ziren goizpasa joan Beasainera. Partida hasi orduko aitzineratu zen Beti Gazte, Jonan Arbelaitzen golarekin. Nagusi ziren lesakarrak, baina lehen zatia erdialdera, aski izan zituen bi minutu Eibarrek markagailuari buelta emateko. Halere, atsedenera joan baino lehen binakoa egin zuen Ander Ordokik. Bigarren zatia hasi bezain laister berriz ere aitzineratu zen Beti Gazte Jon Ubiriaren golarekin. Berdindu egin zuen Eibarrek eta, okerragoa zena, bigarren txartel horia ikusi zuen Igor Gu-

rrutxagak, kiroltasun osoz jokatzen ari zen partida batean. Azken ordu erdia jokalaria bat guttiagorekin egin zuen Beti Gazte, baina halere, luzapenera eraman zuen partida. Eibartarrek laugarrena egin zuten, baina Beti Gazte urte osoan erakutsi duen konpetitzeko grina azaleratu zuen berriz ere eta Jon Zabala aranzarrak gol bikaina egin zuen, luzapenaren lehen zatiko azken jokaldian. Baina azken 15 minutuak luze egin zitzairen lesakarrei eta bi gol jaso zituzten.

Ongietorria

Halere berdez margotu zen Lesaka taldeari ongi etorria egiteko. Sanferminen faltan, Beti Gazteko bandera dantztatu zuen Antton Petrirenak zubi gainean; Manolo Arozenak bi bertso kantatu zituen elkarte-ko leihotik eta Joseba Roteta entrenatzaileak, Oier Iantzi jokalaria beterranoenaketa Jabier Maia kapitainak ere solastatu zuten. Besta giro handia izan zuten Lesakan, 81 urteko historian lehen aldiz Beti Gazte hirugarren mailara igo dela ospatzeko.



Igor Gurrutxagak ikusitako txartel gorria erabakigarria izan zen finalean.



Jabier Maia kapitaina txapeldun ordearen kopa hartu ondotik.



Taldekideak Gillemoneko zubian, ospakizun bete-betean.



Beti Gazte 3. maila



Zutik: Endika Mendegia (delegatua), Iñigo Etxegarai, Oier I
Aimar Jabalera, Unai Telletxea, Beñat Conde, Urki Txopere
Makurtuak: Andoni Arriola, Jon Ubiria, Jonan Arbelaitz, Jon
Ander Ordoki, Jabier Maia eta Paulo Ramos. Argazke
eta lehen taldearekin lan egin duten Andoni Otxoteko
Unai Arburua, Julen Urdangarin

2020-2021 Elara igoera



Antzi, Asier Larralde, Igor Gurrutxaga, Julen Telletxea,
na, Gorka Sanjurjo eta Joseba Roteta (entrenatzailea).
Zabala, Ibon Txoperena, Aimar Otxoteko, Pello Telletxea,
ian falta dira Xabier Arriola eta Iosu Elizondo
o, Asier Taberna, Iosu Txoperena, Martin Lekuona,
eta Manex Ramos jubenilak.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

NIRE USTEZ



JOSEBA ROTETA
ENTRENATZAILEA

«Talde honekin lasai ibil gaitetzke»

Finala galdu arren harro nago taldeak egin duen lanaz, ia ordubete eman dugu jokalaria bat guttiagorekin eta azkenera arte lehiatu dugu. Talde honekin ez dit inolako bertigorik ematen 3. mailak. Kategorian lasai ibiltzeko moduko taldea dugu.

NIRE USTEZ



OIER IANTZI
BETERANOENA

«Pentsaezina zen 3. mailara igotzea»

Lehen ere bizi izan ditut jautsierak eta igoerak, baina 3. mailara igotzea ez nuke inoiz pentsatuko, herri ttiki batentzat lorpen handia da. Talde honek eraman gaitu kategoria honetara eta seguru nago maila mantentzeko lehiatzeko gai dela.

NIRE USTEZ



AIMAR JABALERA
DONEZTEBARRA

«Ederki hartu naute Lesakan»

Zelai erdian hasi nintzen, baina giblean jarri ninduen entrenatzaileak eta ongi egokitu naiz. Gustura aritu naiz, ederki hartu naute Lesakan. Erremontea eta futbola bateratzen segituko dut heldu den urtean, gogotsu nago 3. mailan aritzeko».

NIRE USTEZ



GORKA SANJURJO
ATEZAINA

«Talde guziaren lorpena da igoera»

Denak ongi ibili gara, bai aitzinean eta bai giblean eta denok merezi dugu igoera hau. Talde guztiaren lorpena da. Itxiera perimetrala zela eta gure kontu ibili ginen entrenatzen, baina gogotsu hasi eta ongi bukatu dugu. Beti sineisi dugu garaipenean.

NIRE USTEZ



JABIER MAIA
KAPITAINA

«Helburu denak gainditu ditugu»

Hasierako helburua lehen fasean lau lehenbizikoen artean sartzea zen, eta lehenak izan ginen. Final laurdenetan larri-larri pasatu ginen, baina gero ongi moldatu gara eta ongi bukatu dugu. Hagitz kontent gaude igoerarekin, hau handia da.

NIRE USTEZ



ANDER ABUIN
PRESIDENTEA

«Ilusioa eta gogoia sumatzen dut»

Ilusioa eta gogoia sumatzen dut jokalaria, entrenatzaile, bazkide eta zuzendaritza batzordean. Gauza berria da herri ttiki bateko klub batentzat. Bete beharreko baldintzak eta ikasten ari gara eta ekonomikoki ere begiratu behar da, garestiagoa baita.

NIRE USTEZ



KOLDO ERKIZIA
ENTRENATZAILE OHIA

«Lesaka eta Beti Gazterentzat saria»

Filosofia garbi dago eta hirugarren mailan ere Beti Gazte izaten segitzea izanen da inportanteena eta konpetitza. Maila mantentzeko presiorik ez du izanen-taldeak, Beti Gazte eta Lesakarentzat saria baita hirugarren mailan aritzea.

Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



«Denda txikiek zail daukagu, ezin dugu edozein marka erosi»

LEIRE LABAIEN MATXINEA
KULUNKA - LEITZA

2014an irekizuen denda Leire Labaienek, ordura arte neska batzuarropa-dendazeukaten hor eta itxi egin zuten, «berdinarekin segitzea pentsatu nuen». 0-16 urte bitarteko haurrentzako arropa saltzen du bertan; jertseak, kamisetak, galtzak, soinekoak, berokiak, oinetakoak... etxeko gaztetxoek janzteko aukera zabala dauka. Moda jasangarriari garrantzia ematen dio Labaienek, baina «denda txikiek oso zail daukagu, guk edozein marka ezin dugulako erosi. Batzuk kopuru handietan erostea eskatzen dute eta herri txikietan ez da posible, bestela hiru urtez arropa berdina saltzen egongo ginatke». Kalitatearen aldeko apustua ere egiten du beti; «orain haur askok azaleko arazoak izaten dituzte, eta kotoi organikoa askoz hobea da». Arropak luze irautea ere «abantaila handia» da.



«Herriaren zerbitzura dagoen negozio bat da guretzako»

KARLOS OSTIZ APEZTEGIA
OSTIZ ETXEA - DONEZTEBE

Komertzio historikoa da Ostiz Etxea. Karlos Ostiz eta emaztearentzat, «ogibidea da, noski, baina hori baino gehiago, herritarren zerbitzurako dagoen negozioa da». 150 urte beteko ditu laster dendak, eta nabarmen aldatu da bere sorreratik; «gure birratautxi hasi zen zapatak hemen egiten bertako larruarekin». Atautxiaren garaian ezaguna egiten hasi zen denda, «II. Mundu Gerran Frantziatik eta leku aunitzetatik etortzen ziren botak erostera». Ostizen gurasoek oinetakoak egiteari utzi zioten, salduz bakarrik. «Tabakoaren lizentzia lortu zuten eta orduan estanko ere bihurtu zen». Gaur egun, paper-denda, liburu-denda, estankoa eta zapata-denda da Ostiz. «Paketeria eta diru-bidalketa zerbitzua ere badugu, Hego Amerikara, adibidez. Ez digu etekin ekonomikorik ematen, baina herritarrentzat laguntza handia da».



«14 urteren ondotik markaren itxura berri nahi nuen»

NAIARA ALBERRO RETEGI
INTZURI - LESAKA

2007an irekizuen optika Naiara Alberrok. Bakarrik egiten du lan, «orduak emanez ongi moldatzen naiz». Optometriak atenezioa eman zion eta Madrilerara joan zen lau urtez ikas-tera, bi urtez aritu zen lanean Iruñean eta «gero Lesakan nire kontura muntatu nuen Intzuri». Optometria aldetik eskaintza konpletoa dauka; graduazioak, begi tentsioaren neurketak, lentillen egokitzeak... Honez gain, «betaurrekotan bereziki, eguzkitakoak zein graduatutakoak, aukera zabala dut». Sare sozialak ere zaintzen ditu Alberrok; «gaur egun aunitz saltzen dute eta irudi txukuna ematea garrantzitsua da». Itxura aldaketa bat egiten ari zaio markari, «14 urteren ondotik logoa berri nahi dut, eta optika barnean ere itxura eguneratu dut».



«Ez gara bezeroen esperoan gelditzen, guk bilatzen ditugu»

BELEN URRUTIA HUALDE
ELBETEKO POSADA - ELBETE

1804ean eraiki zuten Posada auzolanean. Herritarrak elkartzeko lekua zen, baina baserria ere izan zen. 1997an hartu zuen Belen Urrutiak Posada; «dena konpondu eta moldatu genuen». Jatetxea egin zuten lehenbiziko; «hasmentan afariak egiten hasi ginen, gauza sinpleak; arroltze frijituak, txistorra, solomoa... denborarekin bertze puntu bat ematen hasi nintzen hemengo plateri. Urtero ikastaroak egiten ditut eta ideiak sortzen zaizkit jatetxean egiteko. Proba egiten dut eta jendeari gustatzen bazaio kartan uzten dut». Hostala 2003an ireki zuten, 6 logelekin. «Geroztik hainbertze ikasi dugu, eta orain ez gara bezeroen esperoan egoten, guk bilatzen ditugu, nahi dugun bezero motara bideratzen dugu marketinga: familia turismoa, bikoteak, erretiratutakoak...».



21 neska-mutiko udalekuetan hasi dira aste honetan

Heldu den astelehenean, uztailaren 5ean, 48 haur guraso elkarteak antolatutako igeriketa ikastaroan hasiko dira

TTIPI-TTAPA

Guraso elkartearen eskutik, udalekuetan hasi dira gazte-txoak aste honetan, eta uztailaren 29ra bitarte, astelehenetik ostegunera, 10:00etatik 13:00etara, ongi pasatzeko aukera ederra izanen dute izena eman duten 21 hurrek. Horien artean, zazpi dira herri-kanpo bizi direnak, eta Janire Bakero eta Antton Apezetxea izanen dituzte begirale.

Ez da guraso elkarteak pres-tatu duen udako ikastaro bakarra. Aurreko urteetan bezala, aurten ere Hernaniko kiroldegian igeriketa ikastaroa antolatu du. 48 hurrek eman dute izena, horietako bat, herri-kanpo bizi dena. Datorren astelehenean, uztailaren 5ean, hasiko dira eta uztailaren 29ra arte astelehenetik ostegunera egingen dute, 11:00etatik 12:00-

etara. Autobusean 13:20 alde-rako bueltatuko dira.

Kontu gehiago

Bi ikastaro horiek izan zituzten hizpide ekainaren 11n udal-tereko ganbaran egindako gu-raso elkarte batzar orokor-rean. Ez zen, ordea, kontu bakarra izan. Udalak, herri-ko eragileekin batera, udarako antolatu dituen kultur ekital-dietan boluntario aritzeko gurasoei egin dieten eskaera-ren berri ere eman zuten. Ho-rrekin batera, haur eta gazte-txoek sakelakoaren eta Inter-neten erabilerari buruzko ikastaroa antolatzeko eskatu zuten. Hala, guraso elkarteak datorren ikasturtean zein ikas-taro antolatu erabakitze eta gurasoek zein formazio egite-ko beharra duten aztertzeko inkesta egin du.



FELIX LOIARTE

Trikidantz taldearen kontzertua

Jendetza bildu zen ekainaren 19an Trikidantz taldearen kontzertuan. Giro ederra izan zen eta taldekideen musikaz gain, Dani eta Ainara Narbarte ere igo ziren ohol-tza gainera. Umore Ona eta Ereintza taldeetako dantzarien saioarekin borobildu zuten kontzertua.

Coworking gunea jartzeko aukera aztertzen ari da udala

Iriartenean edo Tifanitxo erai-kinean, coworking gunea jar-tzeko aukera aztertzen ari da udala, enpresa ttikiei, ekintzai-leei edo euren kabuz ari diren langileei bulegoa partekatzeko aukera emanaz. Aurretik herri-tarrek erabiliko luketen jakite-ko galdeketa bat egin du.

Lesakara mendi irteera larunbat honetan

Arainburu Mendi Taldeak la-runbat honetan, uztailaren 3an, Lesakara mendiz joateko irteera antolatu du. 07:00etan plazatik aterako dira eta sei-zazpi orduko itzulia izanen dela aurreratu dute. Hara ai-legatuta, Lesakako Arrano jatetxean bazkaltzeko asmoa dute (menua 15 eurotan) eta autobusa 19:30ean aterako da Lesakatik. Ibilaldian parte hartzeko asteazkenerako, ekai-naren 30erako, apuntatu beha-rra zen, Elena estankoa, eta autobusa izena ematerakoan ordaindu beharra zen.

Goizueta-Hernani linearen udako ordutegia

Ekainaren 14az geroztik, Goi-zueta-Hernani linearen uda-ko ordutegia martxan da. Goizuetatik 09:00etan eta 15:00etan ateratzen da Her-nanira joateko autobusa eta bueltan Goizuetara itzultzeko 12:00etan eta 19:00etan Her-nanitik.

Dantzak, Karmen bezperako hitzordua eta ur-txirrista laster

Kultur ekitaldirik ez da faltako egunotan. Uztailaren 10ean, larunbatarekin, Umore Ona dantza taldeak emanaldia es-kainiko du plazan, 19:00etan. Udako kultur agendari segida emanaz, berriz, uztailaren 15ean, Karmen bezperako hitzordua izanen da. Segur-tasun neurriak errespetatuz, 20:30ean afari herrikoia egi-teko bilduko dira, eta ohi be-zala, talde bakoitzak bere ja-naria eraman beharko du. Bestalde, uztailaren 17an, ur-txirrista antolatu dute, 15:00etatik 19:00etara.



FELIX LOIARTE

Etorkinen Eguna giro ederrean

Duela bi urteko ohitura berreskuratuz, aurten ere Etorkinen Eguna ospatu dute «herrian bizi diren etorkinek». Giro ederra lagun, argazkian ageri diren haur, gazte eta helduak bildu ziren ekainaren 19an Oxeguarda jatetzeko mahaiaren bueltan.



EMAKUME MASTER CUP

Zabaleta eta Eskudero txapeldunorde

Ekainaren 20an jokatu zuten Nafarroako Foru Komunitatea Torneoko finala Uharte Arakilen, eta hantxe izan ziren Umore Onako Ainhoa Zabaleta eta Maria Eskudero. Ania Oronoz eta Marie Goienetxeren aurka galduta, txapeldunorde izan ziren.



Pala txapelketako finalistak sariak banatzen aritu zirenekin. FELIX LOIARTE

Pala txapelketan final ikusgarriak jokatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Umore-Ona Kirol Elkarteak aurreneko aldiz antolatutako, pala txapelketako finalak ekainaren 19an jokatu zituzten eta nesketan, Aranoko Maitane Sarobe eta Goizuetako Uxuri Perurenak 20-18 irabazi zieten Mirari Etxegia eta Naroa Zugarramurdi goizuetarrei. Lehia estua izan zuten, hemezortzina berdinduta ibili baitziren.

Mutiletan, Joseba Apezteak ez zuen jokatzetik izan eskumuturreko arazoak tarteko, eta bere ordeaz Xabier Legarreta aranoarra aritu zen Iker Mirandagoizuetararekin. Legarretak

eta Mirandak 25-18 irabazi zieten Mikel Huizi eta Ibai Zugarramurdi goizuetarrei.

Bederatzik bikoteak parte hartu dute txapelketan, eta Umore Ona Kirol Elkarteak Igor Elizegik «oso balorazio ona» egin du: «Giro ederra izan da partida guztietan, eta batez ere finalean. Herriko jendeak parte hartzen duenean jende gehiago arrimatzan da frontoira». Horrekin batera, izan duen arrakasta nabarmendu du: «dagoeneko nabaritu dugu datorren denboraldiko matrikulazioetan. Denek errepikatuko dute eta jende berria apuntatzen ari da».

Herri curriculum osatzeko bidea abiatu dute Leitzan

TTIPI-TTAPA

«Leitzari buruz dakiguna jasotzea, Leitzari buruzko ezagutza eta informazioa bilatzea, antolatzea, ordenatzea eta eskuragarri jartzea». Helburu horiek izanen ditu aste honetan aurkeztu duten Leitzako herri curriculumaren proiektuak.

Arantxa Azpiroz, David Anaut, Edurne Zabaleta, Gorretti Calderon, Iñigo Alduntzin eta Lordi Saralegi bildu dira herri curriculumaren proiektuaren lantaldean, eta adierazi dutenez, «proiektua abiatu

berria da eta lehendabiziko pausoak ematen ari gara». Hala ere, «proiektu sakona da, interesgarria eta denontzat oso baliagarria izan litekeena» dela sinetsita daude, eta aldi berean, «auzolanean egin beharreko proiektua» dela uste dute. Hori horrela, astelehen arratsaldean, ekainaren 28an, udaletxeko batzar aretoan egitekoa zuten aurkezpenean «herriko eragile eta norbanakoei» parte hartzeko deia egin zieten. Xehetasun gehiago TTIPI-TTAPAREN hurrengo aldizkarietan emanen dugu.

Biodantza saioa eta clown ikastaroak Goizuetan

Uztailaren 3an, 4an, 10ean, 11n eta 25ean biodantza saioa antolatu dute Goizuetako Sarran baserrian, 10:00etatik 13:00etara. Eta clown, tailerra antolatu dute uztailaren 17rako eta 18rako, hau ere, Sarranen. Larunbatean, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara bilduko dira eta igandean 10:00etatik 14:00etara. Zaragozako Silvia Estarreak gidatuko du ikastaroa eta gazteleraz izanen da. Hala ere, nahi duenak euskaraz aritzeko aukera izanen du Sarrango Teresa ere bertan izanen baita.

Leitzako eskola eremuko estalpea egiten hasi dira

Leitzako Udalak jakinarazi duenez, udan hasiko dira eskola eremuko estalpea eraikitzen, baina dagoeneko hasiak dira lanak. Joan den ekainaren 21ean, institutu pareko zelai txikia prestatzen hasi ziren, zehazki, azpiko hodi batzuk lekuz aldatzen eta zubiko eskaileren partez, aldatatxoa egiten. Inguru horretan, lanean ariko direnez, «segurtasun neurriak errespetatzeko eta arriskuak saihesteko» eskatu du Leitzako Udalak. Hurrei dagokienez, «arreta berezia» eskatu du.

Bizikleten salmenta eta konponketa.

- Kanttonberri, 1 | BERA
- T. 948 631 218
- joxemi@kateabike.com
- www.kateabike.com



2019ko irudi hau ez da errepikatuko uda honetan, baina ekitaldi ugari izanen dira.

Pesten faltan kultur agenda zabala izanen da udan

Uztailaren 10ean bertso saioa izanen da eta uztailaren 17an Txamukos mariatxi taldearen kontzertua

TTIPI-TTAPA

«Pestak ospatzeko gogoz gauden arren, egoera sakonean aztertu eta ditugun aukerak mahai gainean jarrita, aurrean ere ez da pestarik izanen». Hala jakinarazi du udalak, Aurrera elkarteak, kultur taldeak eta eskolako eta institutuko guraso elkarteek osatzen duten Pesta Batzordeak.

Hala ere, herritarrek ez dira ekitaldirik gabe geldituko eta pesten faltan udako kultur agenda zabala prestatu dute. «Herriko plazan jarriko den oholtzan hainbat ekitaldi izanen direla» «segurtasun neurriak bermatuko direla» aurreratu dute. Eguraldi txarra baldin bada, Herri Aretora joko dute.

Uztailaren 10ean hasiko da udako kultur programazioa. Egun horretan, bertso saioa izanen da, 19:00etan.

Uztailaren 17an, Txamukos mariatxi taldeak kontzertua emanen du, 22:00etan. **Uztailaren 24an** tobogana jarriko dute goizez eta arratsaldean Joandegiko aldean eta **uztailaren 31n** Modus operandi musika taldeak emanaldia emanen du, 22:00etan.

Abuztuaren 1ean, herri kirol saioa antolatu dute, 12:00etan. **Hilaren 6an**, umeentzako zinea izanen da, 22:00etan, eta **bihamunean**, erraldoiak aterako dituzte. Erraldoi berriak eta konpartsa osoa aurkeztuko dute.

Abuztuaren 8an Incansables txarangak kaleak alaituko ditu, 12:00etatik aurrera, eta **abuztuaren 14an** bi hitzordu izanen dira. Batetik, Plazaz Plaza pilota txapelketako finala jokatu dute, 19:00etan, eta bestetik, Aurrerako dantzariak emanaldia egingen dute, 19:00etan.

Abuztuaren 28an Tio Teroren semeak dantzarien emanaldiaz gozatzeko aukera izanen da, 19:00etan. **Abuztuaren 29an**, profesionalen mailako esku pilota partida jokatu dute, 12:00etan. Erremonte erakustaldi bat ere izanen da udan.

Aurrera elkartera sartzeko araudia zehaztua

Hilabeteetako geldialdiaren ondoren, Aurrerako zuzendari-tzak elkarteko ateak berriz irekitzea erabaki du, betiere, «araudia bete». Hala, orain «derri-gorrezkoa da bezperatik arbelean bazkidearen izena eta biltzekoak diren pertsona kopurua adieraztea». Horrekin batera, «araudia ez betetzeak izan ditzakeen ondorioak bazkideak jasanen ditu. Atea irekitzen duen txartelaren jabea da arduradun». Elkartea 08:00etatik 23:00etara dago zabalik eta 23:00etarako hustuta egon behar du. Covid-19 fitxak ere prestatu dituzte eta «elkartean sartzen den pertsona bakoitzak identifikazio fitxa» hori bete behar du. Edukiera 40 lagunekoa da eta hori kontrolatzeko sarreran 40 fitxa jarri dituzte: «sartzen den bakoitzak fitxa bat hartu beharko du eta berarekin mantendu elkartetik atera den arte». Hala, fitxarik ez badago «bazkideak edukiera bete dagoela ikusiko du». Mahaiak ez mugitzeko ere eskatu dute, baita elkartearen aireztatze eta desinfektatzeko ere. Distantzia mantentzea eta musukoak derrigorrezkoak dira.



TESTUA: JUAN MARI BARRIOLA. ARGAZKIA: LEITZAKO UDALA


Garraio publiko duina eskatu dute herritarrek

Leitza eta Leitzaldeko autobus zerbitzu eskasa eta urria hobetzeko asmoz, hainbat ekimen jarri ditu martxan udalak eta duela hiru urte aurkeztu zuten zerbitzu berriaren esleipena behingoz egin dezaten eskatu dio gobernuari. Bide horretan, sinadura bilketa egin dute, eta ekainaren 18an argazki jendetsua atera zuten. Ekainaren 29an Nafarroako Parlamentura joatekoak ziren.

'Akordatu bihar' film laburrak irabazi du Atekabeltzeko lehiaketa

TTIPI-TTAPA

Publikoaren iritziak eta epai-mahaiarenak bat egin dute Atekabeltz gaztetxeak antolatutako IX. film laburren lehiaketan. Guztira sei lan aurkeztu ziren eta horien artean *Akordatu bihar* lanaren egileek jaso zuten lan hoberenaren aitortza. Ikusleen ustez *Dioptriak* izan zen bigarren. Nahia Bergasa izendatu zuten aktorerik onena eta Joana Saralegi bigarre-na. Soinu-bandarik hoberena *Txoriak ixilik* lanarentzat izan zen. Sarean zintzilikatu dituzte film laburrak.



Film laburretatik hartutako irudiak.

Garazi Albisua idazlea herria ezagutzen

Euskaraz egindako artelanen sormena eta hedapena bultzatzeko Udalbiltzaren *Guretik Sortuak* proiektuaren barne, Leitzan da Garazi Albisua idazle santurtziarra. Herriarekin lotutako sormen lan bat egin beharko du.



TESTUA: JM BARRIOLA. ARGAZKIA UTZITAKOA

Kiroldegian eta igerilekuan udako ordutegia martxan

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 19an ireki zituzten udal igerilekuak eta halaxe mantenduko dituzte irailaren 5era arte. Abuztuaren 11n itxita egonen bada ere, gainerako egunetan, egunero-egunero 11:00etatik 20:00etara irekiko dituzte.

Bestalde, uztailean eta abuztuan, astelehenetik larunbatera, kiroldegia 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara irekiko dute eta igande eta jaiegunetan 09:00etatik 14:00etara. Baina kiroldegia eta frontoia abuztuaren 9tik 22ra, biak barne, itxita egonen dira.



JUAN MARI BARRIOLA

Jakoba Errekondorekin baratzeetan

LeitzEko kontsumo taldeak, Bertatik Bertara dinamikak eta udalak antolatuta, beste urte batez, landareetan aditua den Jakoba Errekondo herrian izan zen garagarriaren 19an, bildu zirenen zalanzei erantzunak emateko prest. Herriko plazatik abiatuta alde zaharreko eta beheko landako baratzeetan ibili ziren.



JOSEBA SAGASTIBELTZA

Aurrerako dantzarien emanaldi bikaina

Ikasturte osoan ikasi eta landutakoa jendaurrean erakutsiz, emanaldi ederra bezain gustagarria eskaini zuten Aurrerako dantzariak ekainaren 18an Herri Aretoan. Bide batez, lan horren atzean dauden Onintza Bengoetxea Zabaleta, Miel Olano Zabaleta eta Nahia Barriola Hernandorena irakasleen lana ere eskertu nahi izan zuten eta lore-sorta bana oparitu zieten.

Heziketa eta hezkuntzarako laguntzak

Udalak emango dituen dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak uztailaren 23ra arte aurkez daitezke

TTIPI-TTAPA

Udalak hamasei urte bitarteko haur eta gaztetxoek hezkuntza eta heziketarako gastuak ordaintzeko dirulaguntza ematea erabaki du. 2020an egin-dako jarduerak ordaintzeko izango da eta laguntzaren zenbatekoa, egiaztatzen den gastuaren % 50 izango da, gehienez ere 100 euro urteko eta ikasleko.

Laguntza jasotzeko eskatzailerak Areson errolatuak egon beharko dute, gutxienez urtebete lehenagotik. Gainera, egingako gastua egiaztatu

beharko da, fakturen, ordainagiriaren edo antzeko agirien bidez.

Kirol jarduerari dagokienaz, ikastaro ez-lehiakorrek hartuko dira kontuan, adibidez, igeriketa ikastaroak.

Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 21etik uztailaren 23ra artekoa da. Interesa dutenek Udaletxeko Batzar Aretoan eskura ditzakete eskaera orriak eta betetakoan, eskatzen diren agiriekin batera, idazkaritzara eraman edo areso@areso.eus helbidera bidali beharko dira.

Ur deposituko lanak bukatutzat eman ditu udalak

TTIPI-TTAPA

Deposituko irekiera, itxiera eta kanpokoko giltza guztiak aldatu dituzte eta konponketak egin bitartean, depositua urez hustu zutenaz, garbitzeko ere baliatu zuten. Uda partean, eskolako leihoak berritzeko lanak bukatu eta segurtasun

barandak jarriko dituztela ere azaldu du alkateak. Nafarroako Hezkuntza Departamenduak 2.718,32 euroko laguntza emango du eskolako leihoei barandak jartzeko eta eraikinean aldatzeko falta diren leihoak ordaintzeko ere hainbat laguntza aukera esku artean dituzte.

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN



facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa



M. GEREÑO

Gozatu ederra hartu dute gaztetxoek

Ekaineko hiru larunbatetan, patinaje ikastaroa eskaini du Kirol Mankomunitateak herrian. Gozatu ederra hartu dute gaztetxoek eta ikastaroa bukatuta ere, ikasitakoa praktikan jartzen segitzen dute. *Barrio txinoa* eta plaza patinaje pista bihurtu dituzte!



Nafarroako Gobernuak ordezkariek Miluzeko heliazaleran. NAFARROAKO GOBERNUA

Leitzako eta Saldiasko heliazalerei esker denboraren herena aurrezten da

TTIPI-TTAPA

Leitzan eta Saldiasen berriki egin dituzten heliazalerei esker, nabarmen murriztu da larrialdiei aurre egiteko denbora.

Anbulantzia Saldiasetik aterata 51 minutu behar ditu Iruñeko Ospitalera ailegatzeko, eta helikopteroan 12 mi-

nutu nahikoak dira. Leitzako kasuan, ambulanzia batek 37 minutu behar ditu Iruñeko Ospitalera joateko, eta 13 minutu aire-garraioa erabiliz gero. Etxalarko heliazalerari dagokionez, prozesua berandu denik 2022ko ekainean prest egotea espero du Nafarroako Gobernuak.

Baztan Hobetzen prozesua abiarazi du udalak

Baztango hiriguneen hobetze plan bat eratzea du helburu, modu parte-hartzaile eta integrean

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak Baztan Hobetzen prozesua abiarazi du hobetze plan bat egiteko modu parte-hartzaile eta integrean. Hortaz, ondoko hilabeteetan egingen diren ekintzetan herritarren parte-hartzea garrantzitsua izanen da, Baztanek

behar duen eraldaketa eta hobekuntza denen artean diseinatzeko.

Aurkezpena

Ekainaren 23an aurkeztu zuten ekitaldia udaletxean eta hori lantzen eta ontzen ariko dira hemendik aitzinera.



FOTO ZALDUA

Nati irakasleari agurra Almandozen

Almandozko eskolan hogei urte eman dituen Nati irakasle donamaritarrak erretiroa hartu du eta eskerrak emateko azken agurra egin zioten ekainaren 21ean gurasoek eta lehengo eta oraingo ikasleek. Meritu handia dauka hainbat urte herri ttiki bateko eskolan egitea. Zorionak eta milesker!



Nafarroako parlamentariak, udal ordezkariak eta bizilaguna. UTZITAKOA

Aritzakun eta Urritzateko pistak zolaberrieto dituzte

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Parlamentuko Lurralde Kohesiorako Batzordeak Baztango Aritzakun eta Urritzate bisitatu zituen ekainaren 16an. Otondo alkateak, Florentino Goñi zinegotziak, Aitor Bazterrika mendizainak eta Patxi Borda Aritzakungo bizilagunak egin zieten harrera. Aritzakunek eta Urritzatek 16 kilometroko sarbide nagusia dute asfaltatu gabe eta, ekainaren 17an Nafarroako Parlamentuaren osoko bilkurak, kreditu berezi bat onartu zuen borts kilometroko zolatze-proiektua gauzatzeko.

600.000 euroko inbertsioa

Joseba Otondo alkateak zehaztu zuenez, «proiektuak 600.000 euroko aurrekontua du eta zolaketa hobetuko dute orain 5,2 kilometroko luzeran, lau zatitan banaturik». Zolaberri-

tze lanak abuztu eta azaro bitartean egingen direla aurreikusi dute eta nabarmen hobetuko da bi auzoetako bizilagunen zerbitzu publikoetarako sarbidea».

Otondok gaineratu zduenez, «nahiz eta proiektu honek ez duen kontuan hartzen bide nagusiko 16 kilometroak zolaberrietara iristeko bertz bideak kontuan hartu gabe), azpiegitura berriarekin erosoago eta seguruago ibiliko da, joan-etorrietako denbora gutxituz eta bide-segurtasuna handituz».

Parlamentariak autoz ibili ziren Aritzakunen eta Urritzaten barna, eta 22 bizilagunek beren egunerokotasunean bizi duten egoera bertatik bertara ezagutu zuten Patxi Borda bizilagunaren eta Bidegorrieta baserriaren familiaren eskutik.

BRIKO
LIMPIEZA, SL

MOTA GUZTIETAKO
GARBIKETAK:
etxeak
landetxeak
lokalak
komertzioak
enpresak
...

konfidantzazko zerbitzua

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorias
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

«Uda honetan lixutegia zaharberrituko dugu auzolanean»

AITOR ITURRALDE ELIZALDE AZPILKUETAKO ALKATEA

Luis Azkarragari lekukoa hartuta, urte hasieraz geroztik Aitor Iturralde da Azpilkuetako alkate. Herritarren beharrei erantzuteko eta bereziki Apaioa auzoa hobetzeko lan eginen du bi urteetan. Uda honetarako auzoaren erdi-erdian dagoen lixutegia berritzeko proiektua dute

TTIPI-TTAPA

Alkatearen lekukoa bi urtean behin auzo batetik bertzerara pasatzen da Azpilkuetan. Modu horretan, bakoitzak bereari begiratzeko aukera izaten du zaharberritze lanetan. Halaxe azaldu digu orain karguan dagoen Aitor Iturraldek (Azpilkueta, 1979). Apaioan, bere auzoan, du begirada egungo alkateak eta aunitz dira egin nahiko lituzkeen lanak: «lixutegia zaharberritu, oinezkoendako arekak edo *kunetak* egokitu, zakarrontziak herri sarrerara atera...». Edozein modutan, horiek buruan darabiltzan kontuak dira eta «herriaren eta ematen diren dirulaguntzen» arabera «ahal dena» eginen du. **Nola animatu zinen alkate aurkeztera?**

Azpilkueta arras herri ttikia da eta norbaitek egin behar du. Alkate lagun 14 urte egin ditut, beti saltsan egon naiz. Ezin da bertze aldera begiratu. Nahi izanez gero ezetz erratan ahal da baina... Aurten 42 urte beteiko ditut eta nahiago izan dut orain egin, gerorako ez utzi. Ez pentsa, nahiago dut bazterrean egon laguntzen aurpegia eman baino... Orain hori egokitu zait, bi urte doi-doia eginen ditut. **Zein dira alkatearen ardurak?** Boladaka aldatzen dira. Baina badira betikoak diren batzuk: zaborrarekin hornitu behar diren pistak mantentzeko eta sasiak mozteko makinak ekartzeko eskaerak, erraterako, egin behar izaten dira. Azken batean, herriaren eta udalaren lana



Apaioa auzoan sortu eta bizi da Aitor Iturralde Elizalde.

egiten dugu, herritarren kezak azaldu eta eskaerak egin... Posible bada ematen dute, ez bada posible jendeari erran digutena azaltzen diogu.

Erraza izaten da aurpegia ematea?

Ez pentsa, ez. Aietasuna duen jendea dago... Momentuz ez zait trantze handiko konturik egokitu, ikusiko dugu... Edozein modutan, hor daude alkate lagunak eta alkate izanak lagundu eta aholkuak emateko.

Nor dituzu kargudun?

Migel Angel Azkarraga, Juan Andres Azkarraga, Unai Barazabal, Pello Ariztia, Luis Azkarraga eta Iñaki Azkarraga.

Zenbatero egiten dituzue bilkurak?

Urtean hiru egiten ditugu: hasmentan, uda aldera eta urte akabailan. Zerbait inportan-

teagoa ateratzen bada gehiago. Herriko batzar orokorrak, berriaz, aldatetaren bat dagoenean, esplikatze eta herritarrak konforme dauden jakiteko.

Azken urteetan zer hobekuntza egin dira?

Alkateak eta alkate lagunok, zenbait herritarren laguntzarekin, auzolanean komun publikoak egin genituen herrian. Saneamendua pasatu berria da herrian eta herriko karrika nagusia arras txukun gelditu da... Auzolanetan juntatzen gara, giro polita izaten dugu eta gehiegi ez luzatzen saiatzen gara. Uda aldera txanda bat egiten dugu, hilabete batez larunbatero edo egiten dugu, dagoen lanaren arabera... Momentuz dirulaguntzak ematen dituzte, auzo-

lanean aritzeko eta gehiago, eta hori aprobetxatu behar da.

Eta, aitzinera begira, zer duzue esku artean?

Apaioa auzoaren erdi-erdian dagoen lixutegi zaharra konpondunahi dugu. Teilatua arras hondatua du. Dirulaguntza emanen digutela errana digute eta materiala ailegatzen denean horrekin hasiko gara, uztail hasmentan aldera izanen dela pentsatzen dut. Teilatua konpondu, kanpotik harria agerian utzi eta ondoan dagoen aska zaharra, azpitik hautsia dagoena, konpontzeko asmoa dugu. Horrez gain, bideetan ere bada zer eginga, dirulaguntzak emanez gero ahal dena egiten saiatuko gara. **Eskolako leihoak berritzeko aurrekontua ere onartu dute.**

Bai, hori kanpoko enpresa batek eginen du. Herriko haurrendako hobekuntza handia izanen da.

Herriko bestak gazteen esku gelditzen dira. Udalak zerbait antolatzeko ohiturarik izaten du? Aurten nola ikusten duzu kontua?

San Fermin Egunean udaleko jendeari eta herritarrei ematen zaien hamaiketako alkatetaren esku gelditzen den bakarra. Oraindik ez nago horri begira baina nire parte egin nahiko nuke. Frontoian bada ere, distantziak zainduz...

Aitzinera begira, zer behar ikusten duzu herrian?

Aunitz. Herri ttikia da, biztanle guti gara, baina auzoak, Zuaztoi, Urrasun, Arribiltoa eta Apaioa, arras sakabanatuak daude. Nire irudiko oinezkoendako arekak edo *kunetak* falta dira. Urrasunen ere uraren depositu baten beharra dago, herritarrak zerbait mugitzen ari dira. Auzo guztietan bada zer eginga. Orain txukunenak herria eta Zuaztoi daude.

Herri ttikia da Azpilkueta... Nola ikusten duzu herriaren etorkizuna?

Gure kasuan andana bat gelditu ginen herrian eta orain eskolan haur aunitz dago. Ea hurrengo belaunaldiak zer egiten duten! Egia erran orain herria aski polita dago, bizia sumatzen da.

Juan Miguel Gil zirujaua omenduko dute uztailaren 3an

Madrilgo Gregorio Marañon ospitalean haur kardiologian ari da Juan Migel Gil

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Herriak antolatu-tuta, heldu den larunbatean, uztailaren 3an, Juan Miguel Gil Jaurena bihotzeko zirujaua omenduko dute Elizondoko Arizkunenea zahar etxean. 12:30ean bilduko dira Gil herriarraren lanari merezitako aitortza egiteko.

Madrilgo Gregorio Marañon ospitalean haur kardiologian egiten du lan Gilek eta berriki bihotz-gelditze bat izan duen haur baten trasplantea egin zuen bere lantaldearekin batera.



Gil medikua.

Jakinarazi dutenez, musukoa derrigorrezkoa izanen da eta baimendutakoaren arabera mugatuko dute kultur etxeko edukiera.



Berroetako Herriak bertaratu ziren orori eskerrak eman dizkiete. M. IANTZI

Uztarteko familia laguntzeko kontzertuak egin dituzte Berroetan

M. IANTZI

Maiatzean Berroetako Uztarteko baserria erre zen eta ekainean familiari etxea berreraikitzen laguntzeko elkartasun-kontzertuak antolatu zituzten Berroetan. Jende andana elkartu zen eta giro ederra izan zuten emanaldietan. Bailara-kortz taldek parte hartu

zuten oholtza gainean, denek musu-truk; Ganbara, Amaia Elizagoien, Birrotxak, Lau Hai-zetara eta Hauspolariak izan ziren. Herriarrek eskerrak eman nahi dizkiete erakutsitako borondateagatik. Artista handi hauen lanari esker lortu zen dirua Uztarteko baserria berreraikitzeko izanen da.



M. MARITORENA

Bide bazterrak txukundu dituzte Anizen

Urtero bezala, uda hasi aitzinetik bide bazterrak garbitzeko auzolana egin zuten ekainaren 12an Anizen. Helduak sasiak moztzen eta bideak garbitzen aritu ziren bitartean, haurrak frontoia eta frontoi ingurua garbitzen aritu ziren. Alimaleko lana egin zuten.



A. GAMIO

Ikasturtea agurtzeko jolasak Zigan

Zigako eskolan 13 neska-mutiko ibili dira aurtien. Horietatik lau institutura joanen dira. Beraz, heldu den ikasturtean bederatzi izanen dira. Aurtengoa, ikasturte mugatua izan arren, ongi joan da eta azken egunetan ekintza bereziak izan dituzte. Orain etxerako lanik eta ordutegirik gabe... ongi pasa uda!

Sendabelarren ikastaroa ere akitu dute dagoeneko

Apirilaren 23an hasi zuten sendabelarren ikastaroari ekainaren 11n eman zioten bukaera parte-hartzaileek. Laura Gurbindo irakaslearen gidaritzapean, aunitz ikasi dute eta arras gustura aritu dira guztiak. Ea hurrengo batean berriz egiten den!



«Elizondoko ez-bestetan ekitaldi batzuk izanen dira, baina ez nolanahi»

ITSASO ARRETXXEA GOÑI ELIZONDOKO BESTA BATZORDEKO KIDEA

Kontzertuak, mariatiak, haurrendako ekitaldiak... antolatu dituzte Elizondon aurtengo ez-bestetarako. Joan den urtean ez bezala, «eserita eta distantziak mantenduz» gozatzeko aukera izanen dute aurtan

TTIPI-TTAPA

Ia urte erdia bestei begira pasatzen du Itsaso Arretxea Goñik (Elizondo, 1995). Herriko besta batzordeko kidea da eta «otsail bukaeran hasita» uztail hondarrera arte santiagoak antolatzeke lan egiten du. Maite ditu bestak, baita horien bueltan antolatzaileen artean izaten duten giroa ere. Joan den urtean, ia dena lotua zutenean, birusa ailegatu zenez, ez zituzten ospatzerik izan. Eta egun horietan «huts handia» sumatu zutenez, aurtan «ekitaldi batzuk» antolatu dituzte. Hala ere, argi dute ez direla aitzineko urteetako bestak izanen: «neurri guztiak errespetatuko ditugu».

Noiz eta zergatik sartu zinen besta batzordean?

Inguruko batzuk besta batzordean zeuden, haiek solastatzen aditu nituen eta giro arras ona zutela nabaritu nuen. Gainera, nire herriko bestak direnez eta disfrutatzen ditudanez jakin- mina sortu zitzaidan. **Zenbat lagunek taldea arduratzen da Elizondoko besten antolakuntzaz?**

Aurtan hamar gara, hala ere, urtetik urtera jende kopurua aldatzen joaten da. Urteroko bestak ospatzera bueltatzen garelarik jende gehiago elkartzea espero dugu, orduan lan gehiago izanen dugu eta.

Nola banatzen dituzue ardurak?

Orokorrean denok denetarik egiten dugu. Kontzertuak, haurrendako ekintzak, dan-



2017an sartu zen besta batzordean Itsaso Arretxea Goñi.

tzak... Bestak ospatzen direnean egun bakoitzean bizpahiru arduradun egoten gara, nahiz eta besta egun guztietan izaten dugun zereginik. Horrez gain, mahaiak paratzeko, trasteak toki batetik bertara eramateko... kuadrillen laguntza izaten dugu.

Joan den urtean ez zen herriko bestarik izan... Nola bizi izan zenuen egoera hori?

Pena handiarekin hartu genuen berria. Ez genuen esperantza

handirik baina dena antolatua genuen... Gutxi goiti-beheiti bestetako egun guztietako ekitaldiak hetsita genituen, eta denei abisatzea tokatu zitzaigun.

Eta aurtan, zer da erabaki duzuen?

Nafarroako Gobernuak erran duen bezala ezin dira herriko bestak diren horretan antolatu. Horren partez, besta egunak beharko luketen horietarako hainbat ekitaldi antolatu

«HASIERATIK IZAN DUGU ARGIA AURTEN SEINALEREN BAT EGINEN GENUELA»

«NEURRIAK HARTZEA DENON ERANTZUKIZUNA DA»

ditugu keinu gisa. Noski, neurri guztiak errespetatu egingen dira ekitaldi horiek.

Noiz egin zenuen besta batzordeko lehenbiziko bilera?

Normalean otsailean izaten dugu lehenbiziko bilera. Aurtan apiril bukaeran elkartu gara lehenbizikoz. Egoera arruntean ordurako dena hetsita izaten dugu... Ekitaldi guti antolatuko ditugunez, ez dugu lehenagoko biltzeko beharrik izan.

Noiz eta zergatik erabaki zenuen zerbait antolatzea?

Lehenbiziko bilera hartara denok asmo horrekin joan ginen, besten faltan zerbait egin nahi genuen...

Aurtengo ez-bestak antolatzea lan handia izan da?

Antolatzerako orduan eta ekitaldiak aukeratzekoan aunitzez lan gutiago izan dugu. Baina besta egunetan lan handia izanen dugu segur aski. Izan ere, arauak, segurtasun distantzia... dena ongi kontrolatu beharko dugu. Hala ere, argi dago denon erantzukizuna dela eta jendeak arauak errespetatu behar dituela.

Zer motatako ekitaldiak antolatu dituzue?

Kontzertuak, mariatiak, haurrendako ekitaldiak... Ekitaldi hauetan parte-hartzaile kopurua mugatua izanen da, aulkietan eseriko dira eta distantzia mantendu beharko da.

Nola kudeatuko duzue hori?

Dena hetsita dugu baina hori falta zaigu. Legea etengabe aldatzen ari da eta...

Zertan aldatuko dira aurtengo bestak?

Ohiko bestetako ekitaldiak ez dira izanen: bazkariak, txaranga, zutikaditzeko kontzertuak... aurtan ezin izanen dira egin.

Zein ekitaldi da bereziki faltan sumatuko duzuna?

Batetik, kontzertuak zutik eta distantziarik gabe ikustea; eta bertetik, zikiroa eta Gazte Eguna.

Herrira joatekoak direnei, zer erranen zenieke?

Ongi pasatzeko eta ekitaldiez disfrutatzeke, arauak errespetatu.



Elena Urrutia arizkundarrak bere sortetxean egin du estetika zentroa. UTZITAKOIA

«Arras kontent nago nire bezeroekin eta gustura egiten dut lan»

ELENA URRUTIA ELENA URRUTIA ESTETIKA ZENTROA

Estetizista arizkundarrak lan guztiak bakarrik egiten ditu bere estetika zentroan, «tratu pertsonalizatua eta hurbilekoa» emateko bere bezero guztiei

TTIPI-TTAPA

2018ko abuztuan ireki zuen Elena Urrutiak bere estetika zentroa Arizkun. Geroztik, zerbitzuak «etengabe hobetzen» joan da bezeroek eskaintza zabala izan dezaten. Orduetegi malguta dauka, denek beharretara egokitzeko.

Zergatik ireki zenuen estetika zentro bat?

25 urtez modaren munduan egin dut lan eta denbora luzez izan nuen burutan proiektu hau. Estetika betidanik gustatu zait modarekin lotura estua duelako eta duela hiru urte zentroa irekitzeko aukera ikusi nuenean, aurrerapauso ematea erabaki nuen. Arras interesgarria da, gelditu gabe

aitzinerara doan sektorea baita. Hortaz, etengabe ari naiz ikasten, tratamendu, produktu eta berritasun guztiak ezagutzeko.

Zeintzuk dira ematen dituzun zerbitzuak?

Tratamendu aunitz ditut hemen, bai gorputzerako baita aurpegirako ere, tresneria ugarirekin; Irrati-frekuentzia R-200, LPG, elektroestimulazioa, presoterapia... Aparatu hauen guztieri buruzko informazioa elenaurrutia.com web orrian duzue irakurgai. Estetika tratamendu ohikoak ere egiten ditut; manikura, pedikura, parafina tratamenduak, masajeak, argizari eta diodo laser bidezko depilazioa...

Honez gain, makillaje eta ile-apaindegi zerbitzua eskaintzen dut, bezeroaren beharretara egokitua. Zentroan egin dezaket edo bezeroaren etxean bertan, edozein ekitalditarako, eta makillajea, ile-apainketa edo biak aukeratu ditzakete. Bakoitzak bere burua makillatzen ikasteko ikastaroak ere egiten ditut, taldeka eta bakarka.

Produktuak ere saltzen dituzu?

Bai, kosmetika produktu aunitz baditut salgai denda. Gainera, konfinamendua hasi zenetik, online ere saltzen ditut. Internet bidezko salmenta arrakastatsua izaten ari da eta bizi dugun pandemia garaian jendeak aunitz eskertu du arras eroso delako.

Zer da bezeroek gehien eskatzen dizutena?

Zerbitzu guztiek harrera ona izan dute bezeroen artean eta denetik egiten dut eguneroan. Hala ere, momentu hauetan gehien eskatzen dizkidatenak aurpegi eta gorputz tratamenduak dira. Gainera, azken aldian, igandeetan, jaunartzetarako eta horrelako ekitaldietarako makillatzen eta orrazten ari naiz. Kosmetika produktuen salmenta ere arras ongi doa, batez ere Internet bidez saltzen hasi nintzenetik.

Zerk bereizten du zure zentroa bertzeetatik?

Alde batetik, lokala. Nire sortetxearen azpiko solairua da, eta horrek landa-ukitu berezi hori ematen dio. Neguan lurreko sua pizten dut eta sortzen duen goxotasuna arras berezia eta ezohikoa da, bezeroei aunitz gustatzen zaie. Gainera gela zabala da, eroso bezeroendako egoteko eta niretako lan egiteko. Bertalalde, bezeroekin dudatan tratua hurbilekoa eta pertsonalizatua da, eta hori da nire iduriz garrantzitsua. **Akitzeko, zerbait gehitu nahi al duzu?**

Eskerrak eman nahi dizkiet nire bezeroei. Arras kontent nago haiekin, fidelak dira eta gustura egiten dut lan horrela.



Arizkun, Tximindo 13
660 731 772
elenaurrutia.com



Aroztak herri ekimeneko kideak ekainaren 18an. ONDIKOL

10 inputazio eta 25 isun jaso izana salatu dute Aroztek

Isun eta kalte ordaunetan guztira «20.000 euro baino gehiago» eskatzen dizkietela adierazi dute

TTIPI-TTAPA

«Herri lurak herriari kentzen dabilzan horiek, kalte material eta psikologikoak eragitea leporatu digute. Bortxaz eta inposizioz gure herria eta kultura desagerrarazi nahi duten horiek, indarkeria erabiltzea leporatu digute». Halaxe adierazi zuten Aroztak herri-ekimeneko kideek ekainaren 18an «komunitateko hainbat kidek jasotako errepresioa salatze» egin zuten hitzorduan. Bertan jakinarazi zuten «manifestazio arrakastatsuen biharamunean, Aroztegiko proiektuaren kontrako hamar

ekintzailereren inputazioaren berri izan genuen. Ondoko asteetan bertze 25 lagunek jaso zituzten isun administrazioak. Guztira 20.000 euro eskatzen dizkigute isun eta kalte ordainetan».

Gainera, «isun eta salaketa masibo hau izen abizen zehatz batzuekin lotu nahi baldin badute ere, guk argi dugu herri oso baten kontrako eraso dela. Herri gisa erasotzen gaituztenean, herri gisa erantzunen dugu». Aroztegiko proiektu urbanistikoa gelditzeko lanetan segituko dutela iragarri dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Arizkun Rock bikaina

Bertze urteetakoa ez bezalakoa baina orain artekoak bezain gustagarria izan da aurtengo Arizkun Rock jaialdia. Beharrezko segurtasun neurriak eta ordutegi guztiak bete zituzten eta antolatzaileak ez ezik, ikusleak eta musikari eta teknikariak ere arras kontent daude emaitzarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztan kantuz Gartzainen

Ekainaren 20an Baztan Kantuz egitasmoa izan zuten Gartzainen. Herritarrak eta ingurukoak gustura ibili ziren batetik bertze kantari. Hurrengo hitzordua uztailaren 18rako egin dute, Berroetan. Ea Gartzainen bertze jende biltzen den!

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
 ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
 PANTEONAK
 KANPOSANTUAK
 HARRI LANAK
 ESKULTURAK

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua
 Dibortzioak, herentziak,
 alokairuak, alkoholemiak...
 T. 948 581 468 | M. 630 354 818
 Santiago, 59 2C ELIZONDO

Oharri Auzoa z/g · LEKAROZ
 T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN S.L.
 VALLES DE CANTEKIA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE



Elizondoko zahar etxeko langileak ekainaren 17ko prentsaurrekoan. ONDIKOL

Lan hitzarmena negoziatzen hastea lortu dute langileek

Lan hitzarmena negoziatzen hasiko dira eta lan baldintzak eta zaintza zerbitzu duina lortu arte mobilizazioekin segiko dute

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 17an akitu zituzten Elizondoko zahar etxeko langileek zortzi greba egunak, IDEA enpresari hitzarmen berri bat negoziatzeko eskatuz. Hiru urteren ondotik, enpresak hitzarmen berriaren negoziaketa hastea erabaki duela jakinarazi dute. Hala ere, «enpresa ezagututa, badakigu ez dela bide erraza izanen, baina egindako mobilizazioek eta hartutako babesak indar handia eman digute erronka honi aurre egiteko».

Arreta jaso ezean, mobilizazioekin segitzeko prest

Hitzarmenak «pairatzen ditugun arazo nagusi batzuk konpontzeko tresna izan behar du, hala nola; soldatak hobetzea, bajak ordezkatzeko,

lanaldi murrizketa, baimenak hobetzea, errelebo kontratuak edo hitzarmenaren alde bakarreko ez betetzeak bertan behera uztea». Arreta jaso ezean, mobilizatzen segituko dutela iragarri dute, «lan baldintzak eta zaintza zerbitzu duin bat lortu arte».

Funtsezko zerbitzu batek bere funtsezko langileak «hain baldintza eskasetan» edukitzea «onartezina» dela diote: «Zaharren egoitzen kudeaketa ezin da onura ekonomikoetan oinarritu, baizik eta kalitatezko zerbitzua ematean, zaintzaile eta erabiltzaileak erdigunean jarriko dituen».

Mobilizazioetan parte hartu eta «elkatasuna adierazi diguten guztiei» eskerrak eman zizkieten, eta bereziki erabiltzaileen familiei «egoe- ra ulertzeagatik».



ONDIKOL

Bailableak dantzazaleen gozagarri

Ekainaren 13an Elizondoko gaiteroen erritmoak eta Baztango dantzarien pausoek bat egin zuten plazan eginga zuten ikasturteko azken bailableen hitzorduan. Giro bikaina lagun, parte-hartzaileek eta inguru horretatik pasatu zirenek emanaldiaz ederki gozatu zuten.



Buruz buruko txapelketako finalistak. Ttikien kategoriakoak falta dira. UTZITAKOA

Txarutaren buruz buruko txapelketaren finalak jokatu zituzten Iruritan

TTIPI-TTAPA

Txarutako pilotarien artean buruz buruko txapelketa jokatu dute aurten lehen aldiz eta ekainaren 18an jokatu zituzten finalak Iruritan. Denora 29 pilotari aritu dira.

Ttikien mailan sei pilotari aritu dira, umeen mailan zortzi, kimuen mailan hamar eta haurren mailan bertze zortzi. Maiatzaren 8an hasi zen txapelketa eta Irurita, Arraioz, Oronoz, Urdazubi eta Erratzuko pilotalekuetan jokatu dute.

Ttikien kategoriako finala ekainaren 15ean jokatu zuten bi erratzuarrek. Eñaut Uribe-

etxebarriak 18-14 irabazi zion Beñat Sanzberrori.

Umeen mailan bi urdazubiar izan ziren aurrez aurre. Oier Elorgak 18-13 irabazi zion Julen Agestari.

Kimuen mailan ere, herri bereko bi pilotari izan ziren finalista, biak erratzuarrek. Oihan Irigoienek 18-15 irabazi zion Unax Tapiari.

Haurren mailan, Gartzaingo Hector Duarte 18-14 irabazi zion Zigako Eneko Primi.

Orain oporrak dituzte Txarutako pilotariek. Halere, batzuk Amairuko txapelketan ariko dira abuztura bitarte.

OTEIZA
ARKITEKTOAK

665 71 56 96 - 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia



📱 oteizaarquitectos

«Mundua larrialdi egoera gorenean ez balitz bezala bizi gara»

BAZTANGO ESKOLA EKOSOZIALA 'UDAKO ESKOLA EKOSOZIALA' EKIMENAREN SORTZAILEAK

Antolatutako ikastaroan, gaur egungo arazo sozial eta ekologikoak izanen dituzte hizpide, hausnarketarako eremu bat sortuz eta etorkizuneko aterabideetarako tresnak eskainiz



Mattin Aiestaran eta Gorka Lournaga ekimenaren aukezpenean.

R. OSKARIZ | ELIZONDO

Uztailaren 10ean eta 11n Udako Eskola Ekosoziala egingen dute Elizondon, gaur egungo arazo sozial eta ekologikoei buruz solastatzeko ikastaroa. Horretarako, hainbat adituren laguntza izanen dute. Garua kooperatibarekin eta Iratzar Fundazioaren laguntzarekin antolatu du ikastaroa Baztango Eskola Ekosozialak.

Nola sortu zen ekimena?

Udako Eskola Ekosoziala baztandar zenbaiten burutazioa edo 'buru-takzioa' izan da. Arrunt kezkatuak gaude hainbat gairekin; dela lurrak ez duela deus emanen—lanik ere ez, hemendik urte batzuetara—; dela astero kreditu txar-

tel baten adinako mikroplastikoak jaten ditugula; dela mundua larrialdi egoera gorenean egonen ez balitz bezala bizi garela. Eta aferak larritzen gaituenez, pentsatu genuen baztandarrei ez ezik euskal herritarrei ere arazo eta irtenbideetan egiazki seriotasunez eta sakonki jarduteko aukera ematea. Geure buruei erran genien 'pentsa zientzialari eta adituek erraten dutena egia dela'; kasu horretan onartu beharko genuke patxada ederrean bizi garela oraindik. Ba solastatu gaitezen Baztanen, arazoa zinez baita eroa, eta irtenbideak hain eder bezain arra-roak.

Zer da Udako Eskola Ekosoziala?

Auzolan bat da, baina eskuekin beharrean irudimenarekin eginga. Bertan, adituen laguntzaz, egun dugun panoramaren tamaina irudikatzen saiatuko gara, zer duten ikusteko horretan naturak eta gizakiak, eta saiatuko gara zirrikituak aurkitzen kondena honetatik ateratzeko. Bi egun izanen dira XXI. mendea giza historiako berezietako bat dela irudikatzen. Eta horri buruz solastatu beharra dago, doike! Hori da gure xedea. Eta gure ametsa denok ahal bezain pronto auzolanean hastea da, eskuekin, mundu urratu hau hobetzeko. Bide horretan

pauso bat bertzerik ez da Udako Eskola Ekosoziala, baina landa eremutik emana, beti hirien esperoan egon beharrean.

Nolakoa izanen da jardueren dinamika?

Uztailaren 10ean eta 11n izanen da ikastaroa, larunbatean eta igandean. Helburua gai hauetan sakontzea denez, goizetik hasiko gara indartsu! Egun bakoitzeko bi gai-bloke egonen dira: bat goizean eta bertzea arratsaldean, hiru ordutako bakoitza. Eta motzak egingen zaizkigu! Goizeko saioak 10:00etatik 13:00etara izanen dira, gero bazkari begetariano goxoa egingen dugu bertako produktuekin, eta 16:00etan hasiko gara arratsaldeko saioarekin. Gainera, uztailaren izanda, kanpoan egingen ditugu jardunaldiak, Merkatuko Plazan. Egitarauan (www.eskoalaekosoziala.eus webgunean ikusgai dagoena) sorpresatxoaren bat egotea ere espero dugu. Hitz gutitan, irudimenetik eskuetaraino bidaia izanen da: teoriatik hasita, munduaren diagnostiko bat egingez, gauza praktikokoagoetan lur hartzen joanen gara pixkanaka. Nola egin aurre honi kulturalki? Nolakoa izaten ahal da etorkizuna? Zer arraio egiten ahal dugu Euskal Herriak? Asteburu bateko bidaiatxo zoragarria izanen da, batzuetan tristea ere, dena erran behar da, Baztandik mugitu gabe, mundu osora eta historiako hainbat momentutara! Merke eta ona!

Jendearen erantzuna ona izan da?

Arras-arras ona! Lauzpabortz egunetan agortu ziren sarre-rak. Sumatu dugu baztandarraren artean eta Euskal Herrian badagoela gai horien inguruko kezka eta solastatzeko eta ikasteko gogo. Aukera emanda, agudo desagertu dira plaza guztiak.

Akitzeko, zerbait gehitu nahi al duzue?

Debekatua dago autokarabanan etortzea!

Legarra, Castillo eta Silveira nagusi aurrekanporaketetan

Igantzin, Garesen eta Iruritan jokaturako saioetan Nafarroako Bertsolari Txapelketarako hamahiru txartel eman dituzte

TTIPI-TTAPA

Urriaren 2an abiatuko da 2021eko Nafarroako Bertsolari Txapelketa, azaroaren 27ra bitarte luzatuko dena. Horren aitzinetik, ordea, hiru aurrekanporaketa saio jokatu zituzten ekainaren 18, 19 eta 20an Igantzin, Garesen eta Iruritan, txapelketan parte hartuko duten bertsolarien zerrenda osatzeko.

Igantzik Baratzondan Endika Legarra izan zen onena eta lehen aldiz txapelketan izanen den Urko Gartzia leharzotarrak ere lortu zuen txartela. Garesen Patxi Castillo beratarra izan zen onena eta Erika Lagoma lesakarra bigarren. Iruritan, berriz, txapelketara bueltatu den Xabier Silveira lortu zuen puntuaziorik altuena eta lehen aldiz ariko den Berako Ekhiñe Zapiainek eta Iturengo Egoitz Gorosterrazuk ere pasatu zuten galbahea. Etxahun Azkarraga etxalartarrak eta Aitor Almandoz leharzotarrak ez zuten pasatzerik izan.

IGANTZI 2021.06.18

PUNTUAZIOAK

1. Endika LEGARRA	246,5
2. Aitor IRASTORTZA	230,5
3. Idoia GRANIZO	227
4. Urko GARTZIA (Lekaroz)	219,5
5. Sahats ALEMAN	210,5
6. Etxahun AZKARRAGA (Etxalar)	179

GARES 2021.06.19

PUNTUAZIOAK

1. Patxi CASTILLO (Bera)	245,5
2. Erika LAGOMA (Lesaka)	242,5
3. Mikel LASARTE	238,5
4. Ainara IEREGI	208,5
5. Mintxo ASTIZ	201,5
6. Jabi LEZAUN	179,5

IRURITA 2021.06.20

PUNTUAZIOAK

1. Xabier SILVEIRA (Lesaka)	279,5
2. Ekhiñe ZAPIAIN (Bera)	259
3. Ekain ALEGRE	255
4. Egoitz GOROSTERRAZU (Ituren)	244
5. Oier LAKUNTZA	222
6. Aitor ALMANDOZ (Lekaroz)	203,5

Labiaga eta Tantirumairuko ikasle ohien arte erakusketak Lesakan eta Beran

TTIPI-TTAPA

Artearen munduan bidea egiten ari diren Tantirumairu eta Labiaga ikastoletako ikasle ohien erakusketak ikusgai paratuko dituzte Lesakan uztailan eta Beran abuztuan. Zehazki, Maddi Irazoki, Unai Ruiz, Jone Taberna, Irantzu Pastor, Kemen Pumar eta Andrea Gouraud ikasle ohi eta

artisten lanak (argazki, mar-golan, eskultura...) izanen dira. Lesakako komentuan, uztailko larunbat eta igandetan ikusgai izanen dira lan hauek 16:00etatik 20:00etara. Berako Labiaga ikastolaren areto nagusian, berriz, abuztuko larunbat eta igande guztietan izanen dira ikusgai, ordutegi berean.



Igantzik Baratzondan estreineko aritu ziren Urko Gartzia eta Etxahun Azkarraga.



Patxi Castillo eta Erika Lagoma izan ziren bi onenak Garesen.



Silveira, Zapiainek eta Gorosterrazuk lortu zuten txartela Iruritan. Almandozek ez.

Gua-Mia-Bu artistaren 'Azken eguzkilorea' ikusgai Bertzen

TTIPI-TTAPA

Kultur programaren 26. edizioa ekainaren 18tik irailaren 4ra bitartean egiten ari dira Nafarroako 38 herri eta kokagunetan. Eskualdean Beran egin zuen lehen emanaldia Hoge Berrir taldeak. Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra Gua-Mia-Bu artistaren *Azken eguzkilorea* ikusgai izanen da Ber-

tizko Lorategian. Ipuin ilustratua da, Malerrekako ondare-elementuak nabarmentzen dituena, eta ibilbide bat sortzen du hona etortzen direnek Nafarroako iparraldeko herriez goza dezaten. Erakusketaren inauguraziorako, uztailaren 2an, ortziralean 19:00etan dantza emanaldia eskainiko du Oberena dantza taldeak.



Frontoneko gradak berriki pintatu dituzte. MARIFA ETA KORO

Errotako bidean, pilotalekuan eta hilerrian lanean

Sasiak eta abarrak garbitu dituzte bidean, frontoian gradak pintatu eta bidexkak eta bazterrak txukundu kanposantuan

MARIFA ETA KORO


Herri tikiak izanik, Urdazu-birekin batera konpartitzen ditugu eskolak, medikua eta apeza, eta tarteka sortzen diren beharrak ere elkarrekin konpontzen saiatzen dira bi Herriko Etxeak. Ganden urtean abarrak birrintzeko makina bat erosi zuten bi herrien artean, baita berriki medikuak beharrezkoa zuen bisturi elektriko bat ere.

Abarrak xehatzeko makina ederki baliatu dute herri-mutilek udaberrian errotako bideko sasiak eta abarrak garbitzen. Horretaz gain, herri-

-mutilen lana ikusgarri gelditu da frontonean ere, gradak pintatu eta itxura berria hartu baitute. Eta kanposantuan ere ageri da lanean aritu direla, bidexkak eta bazterrak garbi daudelako.

Merkatu tikiak asteburuan

Etxeetan sobran ditugun gauza eta arrokekin, merkatu tikiak egingen da uztailearen 3 eta 4ko asteburuan. Denbora ona izanez gero, eliz-argietan paratuko da, eta euria eginez gero, frontonean. Beraz, badugu non gauza politak ikusi, eta prezio onean seguraski.



Akelarrenea elkarteko zikinkeriak. MARIFA ETA KORO

Akelarrenea asteburuetako zikinkeria dela eta, neurriak hartu dituzte

MARIFA ETA KORO

Akelarre Elkartek bilkura egin zuen gan den ekainaren 18an, ortziralearekin, eta, nagusiki, bi gai izan zituzten solasgai. Aurtengoan ere bestak ospatuko ez direnez, bertze gisako ekitaldi kulturalak antolatzeke aukerak begiratzten ari dira. Oraindik ez dute deus zehaztua, baina zerbait plantatuko dute.

Zikinkeria asteburuetan

Bertze aldetik, arazo haundia dago asteburu frankotan Ake-

larrenea elkartea zikin-zikin gelditzen delako. Azkeneko aldiko bilkura ezin izan zuten egoitzan egin, lurra horaskatua, zaborra nonahi, eta aulki eta mahaia alde guztietara barreiatuak zirelako. Hori dela eta, ateko sarraila aldatuko da seguraski, eta gakoa-ren kontrola hurbilagotik egingen da.

Ez da erraz ulertzekoa nola ez duen erabiltzen duen pertsonak zegoen bezala uzteko ardura hartzen, horrelako neurrien beharrik gabe.

Xaretako hiztegia

- **Maxota:** lore xorta.
- **Mi(hi)sea:** maindirea.
- **Marrakuku:** arto opila gasnarekin.
- **Mokanesa:** mukiak kentzeko oihala. Painulua, zapia.

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN



facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa



JATETXEA • ERRETEGIA
@asadormontxo

Ettxekoak berriz bueltan

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- RAZIOAK

Ettxera eramateko aukera



Axular, 12 • Antzanborda • URDAZUBI • Tel.: +34 848 85 00 21

Ekainaren erdialdean ireki dituzte mugak

Irekitzearekin auto pilaketak saihestea eta zirkulazioa hobetzea espero dute

ARANTXA ETA IRAIA

Azken urte honetan hainbat aldiz itxi eta ireki zaigu muga. Hala ere, beti ez da osoki irekia egon. Panta bentako muga joan den urteko udaberritik itxia egon da, arrazoi argirik gabe.

Joan den ekainaren erdialdera itxita segitzen zuen muga hori berriz ere ireki zuten, normalitasunerantz bertze pauso bat emanez.

Espero dezagun mugaren zabaltze honek auto pilaketak ere saihesteko balio izanen duela eta auto zirkulazioa



Panta muga.

hobetuko dela, bertan ibiltzen diren eta ibiliko diren guztien onerako.

Jaunartzeak gibelatu dituzte baina ezkontzak ospatzen ari dira

Usaia da herrian eta inguruetan jaunartzea maiatza-ekaina inguruan ospatzea. Joan den urtea, urte nahasia izan zenez, batzuek egun hau irailera gibelatzea hautatu zuten. Aurtun, dirudienek, hautu berdina egin dute eta irailean izanen dira.

Jaunartzeak ez baina ezkontzak izan dira. Ekainaren 19an Ana eta Izei ezkondu ziren eta datorren uztailaren 3an Arantxi eta Carlosen ezkontza ere ospatuko da. Urte eta erdiz geldirik egon diren ospakizun hauek berriz martxan direla ematen du. Zorionak bi bikoteei!



ARANTXA ETA IRAIA

Oier Elorga txapeldun

Ekainaren 19an, larunbatearekin, Iruritan jokatu zituzten Baztango Txaruta pilota elkarteak antolatutako buruz buruko txapelketako finalak. Umeen mailan, bi finalistan urdazubirrak genituen: Julen Agesta eta Oier Elorga. Final polita jokatu ondoren, Oierrek lortu zuen txapela. Zorionak bie!



ARANTXA ETA IRAIA

Artisauen azoka

Joan den ekainaren 20an 10:00etatik 14:00etara artisau azoka izan zen herrian. Argitsu Bidasoa eskualdeko artisau elkarteak antolatutako hitzorduan sei postu egon ziren eta denetarik ikusi eta erosi ahal izan zen: xaboiak, egurrez egindako esku-lanak, bitxiak...

URDAZUBI/URDAX

IKABURUKO LEZEAREN EGUNA

2021eko UZTAILAREN 17an

11:00-14:00h	Historiaurreko bizitza-tekniken erakustaldia. Tailerrak Iñaki Libano, Edestiaurre Arkeologia Elkarte presidentearen eskutik.
11:00-18:00h	Artisauen azoka
15:00-18:00h	Txalaparta tailerra
16:00-18:00h	Magia tailerra Trikuharri talderaren eskutik
17:00h	Artisau-produktuekin saski baten zozketa

TXALAPARTA ERAKUSTALDIA LEZEAREN SARRERAN

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK

+34 948 599 241 / www.cuevasurdax.com

Urdax-Urdazubi Dantzaria
www.urdax-dantzaria.com

Trikuharri
EL PASAJERO DE LOS ANIMALES
LE PARADIS DES ANIMAUX
ANIMALEN PARADISIA

Edestiaurre
Arkeologia elkarte


Murrizketekin bada ere, berriz ireki dute mediateka

Konfinamendu denboran beraien gela berriz antolatzeko eta bertze zenbait gauza prestatzeko astia izan dute

GANEX

Pandemiarengatik zerraturia mediateka eta orai berriz ere zabaldu dute. Usaian bezala, gauzak errespetatuz aldian borts lagun sar daitezke gelan eta liburuak konfinatuak egoten dira zazpi egunez, berriz bereleketan eman aitzin. Nola ez, erabilera bakoitzaren ondorengatik, hunkituak diren aulki, mahai eta liburuak garbitzen dituzte, gel hidroalkoholikoa erekin. Mediateka zabaldua da astelehenetan 16:00etatik 17:30era. Asteazkenetan eta larunbatetan 10:00etatik 12:00etara.

Gazteei historia kontatzeko gazteeri ereiaroaren 19an, larunbat goizean ireki zuten eta eta uztailearen 10an ere



Mediateka berriz ere irekia da.

irekiko dute, larunbatean 10:00etan.

Konfinamendu denboran izan dute astia gela dena berriz antolatzeko, baita bertze liburu, dokumentazio eta gauza gehiago prestatzeko ere, partikulazki gazteentzateginak, Larrun liburutegi elkartearekin elkarlanean.

Ikusi Mikusi Haur eta Gazte Literatura Azokaren aurkezpena uztailearen 2an

GANEX

Uztailearen 2an, ortziralez, Lur Berri gelan arratsaldeko zazpitan Jean Michel Garat Idazleen biltzararen lehen-dakariak presentatuko du aurtengo biltzararen programa eta xehetasun guztiak. Modu berean, Ikusi Mikusi proiektuaren aurkezpena ere egingen du, saratar guztiei irekia. Haur eta Gazte Literatura Azoka izanen da Ikusi Mikusi. Proiektua Galtzagorri elkarteak, Pamiela argitaletxeak eta Kibibil antzerki konpainiak elkarlanean sortu dute. Joan den urteko apirilean egitekoa zen lehen edizioa Saran, baina gibelatu behar izan zuten.



lax ez zen azoka egiterik izan.



GANEX

Zaborrontziak lurpean sartu dituzte

Herriko Etxeko giblean den baratze tikiaren saihetsean Peio Iribarren enpresak lurpean sartu ditu zaborrontziak. Denak ez dira ados lan honekin, baina bazterrak garbiago izanen dira, bertze ontzi horiek karrika gainean ez baitziren batera politak.



KARLOS AIZPURUA

Aizpurua eta Etxeberri finalean

16 gaztek parte hartu zuten ekainaren 19an Senperen jokatu ziren Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoko eskolarteko bertsolari txapelketako finalerdietan. Eta horietatik seik lortu zuten ekainaren 26an jokatzeakoa zen finalerako txartela. Tartean ziren Haira Aizpurua eta Laida Etxeberri saratarak.

Azkaingo Larrun Kanta taldearen kontzertua

Uztailearen 7an, asteazkenez, arratseko bederatzieta Azkaingo Larrun Kanta taldeak euskal kanta ederrak emanen ditu elizan. Pantxo Lasconateguy da plazaz plaza eta herri herri ibiltzen den taldearen lehendakaria eta Marijo Manterola lehendakariordea.

Asteburuetan autorik ez igerilekutik plazara

Saratarak ohartu izanen dira larunbat eta igandetan ez dela gehiago autorik ibiltzen ahal igerilekuko aparkalekutik plazara, haurren segurtasunarengatik, jostalekua hor baita. Mementoan entsegua egin dute eta ikusiko da neurri hori behin betiko hartzen den.



Aintzirako ur-isuriaren lanen bukaera ospatzeko hainbat agintari bildu zen ekainaren 11n. JL BESSONART

Aintziraren isuriaren lanen bukaera ospatu dute

Lanen gastuaren % 23 (600 000 euro) gelditu da herriarendako eta ekainaren 11n egin zuten ekitaldia

JEAN LOUIS BESSONART

Ekainaren 11n, ortzirale goizean, jende multzo polita bildu zen aintziran, isuriaren lanen bukaera ospatzeko modu xume batean eta ber denboran ofizialtasun pittin bat emanaz ekitaldiari.

Dominique Idiart auzapezak bere hitzaldian urtegiaren historia gogoratu zuen. 1964. urtean eraiki egiturak jasan ditu bi uholde bortitz 1983an eta 2007an, eta geroztik agintari eta adituek deklaratu

zuten departamenduko urtegi-rik arriskutsuena bezala.

Oroitarazi zuen, auzapez postua hartu bezain laster, duela hamaika hilabete, agindua ukan zuela obren hasteko lehenbailehen prefeturatik. Dirurik gabe ez zen erronka erraza, bizkitartean Christophe Jauregi bere axuantarekin, laguntza eske ibilirik ezker eskuin, lortu dute behar ziren diruztatzeak, % 23ko parteak gelditzen delarik herriarendako (600 000 euro).

Emilio Tena ISF ingeniari-tzako zuzendariak, zehazki aurkeztu zituen eginikako obrak, ikuslearendako neurritz kanpokoak iduri dute, haatik beharrezkoak, diotenez. Philippe Etxeberria Departamenduko kontseilaria hor zegoen eta honekin batera Sobamat, Etxart eta Neo enpresetako buruzagiak, baita lanetan aritu diren bertze arduradun batzuk ere.

Udako jokoak gazteendako

Bertze aldetik, bederatzia eta hamasei urte arteko herritarrentzat sekulako ariketak proposatuak dira uztailaren 5etik abuztuaren 13ra. Haue-tan, paddle, kanoe, pedaloa eta joku aunitz. Izen-ematea ekainaren 30a baino lehen egin behar zen, aintzeko plattforman, postaren gaineko aldean: 05 59 54 58 21 edo kontaktua: enfancejeunesse@senpere64.fr webgunean.

Molde xumean eta murriztuan bada ere herriko bestak asteburuan

JL BESSONART

Duela zonbait egun asmo ezina gauzatuko da zorionez. Horra zer egitarau proposatu diguten herriko bestak ospatzeko, molde xume eta murriztuan bada ere.

Uztailaren 2an, ortziralean, 16:00etan pilota partida gazteekin plazan. 19:00etan Zintzur bustitzea pilota plazan. 21:00etan Zikiroa Baga-Bigak alaiturik.

Uztailaren 3an, larunbatean, 13:00etatik 14:30era, ikastolak antolatuturik mendi bizikleta ibilaldiak: 20 km edo 35 km, baita 10 kmko oinezko ibilaldia ere. Arratsalde betean zonbait pilota partida plazan. Gualdia Elektro Txuflak animatua.

Uztailaren 3an, igandearekin, 10:30ean meza nagusia. 12:00etan bota luze partida karrika nagusian. 13:30ean herritarren bazkaria, Ramuntxo Santestebanek prestatutako paella izanen baitute. 19:00etan kantaldia Gezi taldearekin. 20:00etan Mutxikoak Patxieta Konpaniarekin. Gualdia Les BiZouNours taldeak animaturik. Nahiz egoera sanitarioak hoberat egin, baldintza bereziak mantenduko dituzte. Zerbitzu guztiak mahai-nean eta jarri-rik egingen dira, bai komitearen edantegian, baita herriko ostatu guztietan ere.

IBARDIN 31780 Bera	BEHOBIA 20305 Irun	LUZAIDE 31660 Luzaide	DANTXARINEA 31712 Urdax
------------------------------	------------------------------	---------------------------------	-----------------------------------

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25ª eta urtarrilaren 1ª izan ezik

www.venta-peio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800



Karrika animazioa 2019ko bestetan.



Ekainaren 11n Goizuetan jokaturako finalerako pilotariak. UTZITAKOA



Ekainaren 13an Leitzako Amazabalen jokaturako finalerako pilotariak. UTZITAKOA

Mendialdeko II. pilota txapelketako finalak jokatu dituzte

Eskuz binaka aritu dira Umore Ona, Aurrera, Larraun eta Araxes pilota elkarteek antolatutako binakako lehia

TTIPI-TTAPA

Goizuetan, Lekunberrin eta Leitzan jokatu zituzten ekainaren 11, 12 eta 13an Mendialdeko binakako II. pilota txapelketako finalak. Azkena, kimuen lehen mailakoa, ekainaren 18an jokatu zuten Leitzan. Goizuetako Umore Ona,

Leitzako Aurrera, Larraun eta Araxes pilota elkarteek antolatu dute aurten ere txapelketa. Hauek izan dira finalerako emaitzak:

Seinen 1. mailan: Lekuona eta Goikoetxea (Larraun), 18 - Gorostidi eta Satrustegi (Araxes), 12.

Kimuen 3. mailan: Lekuona eta Legarra (Larraun), 18 - A. Gereño eta O. Zabaleta (Aurrera), 12.

Kimuen 2. mailan: Garmendia eta A. Salaberria (Umore Ona), 14 - Oreja eta K. Apalantza (Aurrera), 18.

Kadeteen 1. mailan: Legarreta (Umore Ona) eta Goikoetxea (Larraun), 22 - J. Sagastibeltza (Aurrera) eta Galarza (Larraun), 16.

Gazteak: Iriarte eta Ezkurdia (Larraun), 22 - Goldarazena (Larraun) eta Kañamares (Barrain), 17.

Nagusien 2. mailan: Galarza eta Zubiri (Larraun), 18 - Saralegi (Larraun) eta Ballarena (Txaruta), 22.

Nagusien 1. mailan: Olano eta A. Arbizu (Iruztzun), 21 - U. As-tiz eta L. Galarza (Larraun), 22.

Seinen 2. mailan: Oreja eta Tolosa (Araxes), 18 - U. Gereño eta G. Imaz (Aurrera), 17

Haurren 2. mailan: Eizagirre eta Ijurko (Larraun), 18 - U. Otermin (Aurrera) eta Larreta (Larraun), 13

Haurren 1. mailan: Iribarren eta Ijurko (Larraun), 15 - A. Olleta (Larraun) eta M. Martinez (Aurrera), 18

Kadeteen 2. mailan: Etxenike eta E. Madariaga (Bortzirriak), 22 - B. Baleztena eta X. Telletxea (Aurrera), 18

Kimuen 1 mailan: G. Zabaleta eta J. Baleztena (Aurrera), 18 - O. Alkorta eta E. Bidart (Aurrera), 14.



UTZITAKOA

Gure Txokoako kadeteak finalista

Gipuzkoako lehen mailan aritu diren Berako Gure Txokoako kadeteek denboraldi bikaina egin dute. Txapelaldun faserako sailkatu eta finalera ailegatzea lortu zuten. 3-1 galdu zuten ekainaren 20an Erreterian Oriokoren kontra, baina zaleen babesa izan zuten azken partidura arte.



UTZITAKO ARGAZKIA

Doneztebe futbol taldearen igoera

Futboleko edozer gerta daiteke, baina larunbat honetan gauzak arras aldrebes joan behar izan zaizkio Doneztebe Futbol Taldeari Preferentetik Maila Autonomikora ez igotzeko. Azken partida berdintzea aski zuten, baina galduta ere, sei goleko aldea murriztu beharko lioke Amigó taldeak.

DESKONTUAK BORTZIRIAK TTIPI TXARTELA



Erakutsi
eta aprobetxatu
aukerak!

ttipi-ttapa

%10 DESKONTUA
eskeletan eta
oroigarrietan

Koskontako bidea, 7-1 | LESAKA
T. 948 63 54 58 | bagoaz@ttipi.eus

Caser
RESIDENCIAL ANAKA

%5 DESKONTUA
egonaldietan

Anaka, 8 | IRUN
T. 943 66 77 80

Trip Sarri
LAND

%50 DESKONTUA
sarreran

Irrisarri, 1 | IGANTZI
T. 948 92 89 22

Semper

%10 DESKONTUA
matrikulan

BERA | T. 948 63 02 98
LESACA | T. 948 63 82 99

Arturo

%5 DESKONTUA
arropetan

Altzate, 30 | BERA
T. 948 63 01 36

bixkioak
KIROL ETA MODAKO
erropa denda

%5 DESKONTUA

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 81 10

KATEA BIKE

%10 DESKONTUA
komponentetan

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 63 12 18

Xulufraia

%5 DESKONTUA
30€tik goiti

Altzate, 18 | BERA
T. 948 63 12 66

EDUKIAK
MANUEL TABERNAS

%5 DESKONTUA
(esnean izan ezik)

Bidasoa, 76 | BERA
T. 948 63 10 27

GAELA

%10 DESKONTUA
ongizate
zerbitzuetan

Pio Baroja, 11 behe | BERA
T. 666 42 61 96

cenor
ALZURI ETXETRESNAK

%5 DESKONTUA
etxetresnetan

Bittiria, 33 | LESAKA
T. 948 62 75 31

KARLOS ALZUGARAY
OSTEOPATIA Euz. Gel. D. O.

%5 DESKONTUA
bortz saloko bonoan

Itzea, 20 behe | BERA
T. 607 85 32 08

ASPACE
ASOCIACIÓN DE
NATURAS - NAFARRA

%5 DESKONTUA
30€tik goiti

Otsango, 13 | LESAKA
T. 948 63 80 41

Urdu Bera
BERRIEN ERREKATUAK

%20 DESKONTUA
urteko abontaren
matrikulan

Toki Ona Kiroldedia | BERA
T. 948 63 02 15

ACERA
KIROLAK

%5 DESKONTUA
kirol artikuluetan
%15 DESKONTUA
ehiza arropetan

Altzate, 22 | BERA
T. 948 63 09 99

zela
KIROLAK

%5 DESKONTUA
erosketa guztietan

Altzate, 6 | BERA
T. 948 63 05 98

kaftegorria

%5 DESKONTUA
haur arropetan

Behoko Plaza, 10 | LESAKA
T. 948 62 75 14

IGONE

%5 DESKONTUA
30€tik goiti
(primatsan izan ezik)

Kanttonberri, 4 behe | BERA
T. 948 63 06 26

ZU loredenda
dekorazioak
osagarriak

%5 DESKONTUA
lore moztuan
30€tik goitiko
erosketetan

Altzate, 33 | BERA
T. 948 62 57 86

elika Dietetika
eta elikadura

%5 DESKONTUA
kontsultan

Itzea, 6 behe | BERA
T. 948 63 12 83

oreka
nutrizioa eta dietetika

%5 DESKONTUA
kontsultan

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 73 73

Intzuri
OPTIKA

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bittiria, 28 | LESAKA
T. 948 62 75 50

Ostargi optika

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bidasoa, 8 | BERA
T. 948 63 07 53

IRACHE
laborioak

%100eko DESKONTUA
Bello-gelaren erabileran
*Eskatzaileak edo hildakoaren bigarren
gradu arteko-sevitarteok txartela
fisikoki aurreko zu beharko dute.

Kanttonberri, 14 | BERA
Zarandia, 18 | LESAKA
T. 948 63 74 04 | T. 948 19 70 70

HKpodologia
NORA MAIZA

10 €ko
DESKONTUA
ibilkeraren azterketa
digitalean

Legia, 42 | BERA
T. 688 878 177

txinelka

%10 DESKONTUA
erosketa guztietan

Plaza Zaharra, 25 | LESAKA
T. 948 63 75 94

AGENDA

UZTAILAK 1-15

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



GOIENA.EUS

GOIZUETA **Karmen bezpera**

Karmengo Amabirjin bezperaren aitzakian suak, afariak...
Uztailaren 15ean, 20:30ean.

BERTSOA

LEITZA
Bertsolariak

Uztailaren 10ean, 19:00etan.

KONTZERTUAK

BERA
Joseba B. Lenoir

Altzateko plazan, uztailaren 3an.

Sara Zozaya

Herriko etxeko plazan,
uztailaren 9an.

ARANTZA
Joseba Tapia

Aterpean, uztailaren 10ean,
19:30ean.

Satelitik

Aterpean, uztailaren 17an,
19:30ean.

**Gregorio, Beñat eta Andoni
Mitxelena akordeoilariak**

Aterpean, uztailaren 24an,
14:00etan.

DONEZTEBE
Trikidantz taldea

Santa Luzia plazan, uztailaren
17an.

LEITZA
Txamukos mariatxiak
Uztailaren 17an, 22:00etan.

Modus operandi
Uztailaren 31n, 22:00etan.

TAILERRAK

LEITZA
**Udako tailerrak eta haur
txokoa**
Ekainaren 28tik uztailaren 23ra.

Tobogana
Uztailaren 24an, goizez eta
arratsaldez.

GOIZUETA
Ur txirrista
Uztailaren 17an, 15:00etan.

URDAZUBI
Udalekuak
Uztailaren 5etik 30era.

DONEZTEBE
Udako kirol eskola
Uztailaren 26tik abuztuaren 20ra.

IKUSKIZUNAK

DONEZTEBE
Erreka dantza taldea
Bear-Zanan, uztailaren 3an,
18:30ean.

Herri kirolak
Ezkurra pilotalekuan, uztailaren
10ean, 18:00etan.

'Euskañolitis'
Uztailaren 18an.

LESAKA
**Tantirumairu taldearen
emanaldia**
Pilotalekuaren atzealdeko
aparkalekuan, 18:00etan eta
19:00etan.

GOIZUETA
**Umore Ona dantza taldearen
emanaldia**
Plazan, uztailaren 10ean,
19:00etan.

BERA
'Ametsen urtebetetzea'

Altzateko plazan, uztailaren
18an, 19:00etan.

OSPAKIZUNAK

GOIZUETA
Karmen bezpera
Uztailaren 15ean, 20:30ean.

IRISARRI
EHZ festibala
Uztailaren 2an, 3an eta 4an.

ELIZONDO
GII zirujauari omenaldia
Uztailaren 3an.

IKASTAROA

ETXALAR
**Oinarrizko gaitasun
digitalak**
Kultur etxean, uztailaren 5ean,
7an, 9an, 12an, 14an eta 16an,
17:00etatik 19:00etara.

GOIZUETA
Clown ikastaroa
Uztailaren 17an eta 18an,
larunbatean 10:00etatik
14:00etara eta 16:00etatik
20:00etara eta igandean
goizez.

ERAKUSKETA

BERA
Espresio transitorioak
Kultur etxean, uztailaren 22ra
arte asteartetik igandera,
10:00etatik 14:00etara eta
15:00etatik 18:00etara
(igandetan goizez bakarrik).

LESAKA
**Arte erakusketa:
ikastolako ikasle ohiak**
Komentuan, uztailaren 25era
arte, 16:00etatik 20:00etara.

Nire aukera

«Lasterketa bakoitza bakarra da eta ahal dudan guztiak gozatu nahi ditut»

HODEI UNSION MENDIGUTXIA BERA KO GAZTEA



Astelehenetik ortziratera Botxo ostatuan sukaldari aritzen da Hodei Unsió Mendigutxia (Bera, 1996), eta asteburuetan eta denbora librean duen guztietan «saskibaloian aritzea, lagunekin egotea eta, batez ere kotxeen bueltan ibiltzea» du gustuko. Sukalde bazterreko berotasuna ez bada, motor artekoa izaten du lagun, eta tarte bakoitza aprobetxatuz, «bizitzaz ahalik eta gehien gozatzeko» saiatzen da.

Lehengusua ikusita, probatzeko nahia

Motorra eta soinua, rallyak eta kotxeak, aspaldi sartu ziren Unsiónen zaletasunen zerrendan: «egia errateko ez dakit noiz hasi nintzen horiei erreparatzeko». Jakin badaki, ordea, bere lehengusuaren, «Iker Oteiza Tzopinaren eraginez» izan zela. Lehengusua ikus-

teko aitzakia izatea bikaina izan da berarentzat, horri esker batetik bertara ibili baita: «lehiatzen hasi zenean 4x4etan segitzen nion lehenbizi eta gero rallyetan».

Hari segika, aspaldian hasi zen rallyetara joaten Unsió: «gurasoekin joaten nintzen lehenbizi eta lagunekin gero». Ikusiz gozatu eta «lehiaketan bueltako giroa eta bertako gasolina usaina» gustatuta, bide hori hartzeko irrika piztu zitzaion. Gogoia, horixe izan da bere zaletasunaren motorra martxan paratzeko giltza.

«PILOTUAK BERE GAITASUNA APROBETXATZEN JAKIN BEHAR DU»

Kopilotu izatetik pilotu izatera

Zehazki, 2018ko urriaren 20an, luzaroan bide ertzetik ikusi izan zituen lasterketa horietako bat kotxe barrenetik ikusteko aukera izan zuen: «lagun-mina dudana Xabier Zubeldiak eman zidan aukerari esker Garesko Rallysprintean kopilotu atera ahal izan nintzen». Egun hori eta lasterketaren aitzinekoak «ilusio handiz» pasatu zituela oroitzen du Berako gazteak: «lehiaketaren bezperan zirkuituaren inguruko oharra hartu behar izan genituen, lasterketan ondotik zetorrena zer zen jakiteko eta, horrez gain, kotxea ere behar bezala prestatu behar izan genuen. Egun politak izan ziren...».

Egun hori bezain ongi gordea du iazko uztailaren 17a bertar motorzaleak. Orduan izan zuen ondoko eserlekura salto egin eta bolantearen ardura hartzeko aukera: «nire ametsa lasterketetan parte hartzea zen eta IV. Malerrekako Rallysprintean aukera izan nuen ez nuen zalantzarik izan». Ordutik pilotu ibiltzen da.

Denbora eta dirua zaletasunerako baliatuz

Aitzinetik hasi zen bere debutaren egunerako prestaketa lana eta, onartu duenez, horretan ere ederki pasatu zuen: «saltsan ibiltzea eta eskuak zikintzea gustuko dut» dio irri artean.

Gainera, motorzaleen arteko elkarlanak dena arintzen du: «beti izan dut laguntzeko prest dagoen jendea nire inguruan eta ni neu ere bertzei laguntzen saiatzen naiz». Denbora aldetik ez ezik, ekonomikoki

ere «gastu handia» eragiten du zaletasunak eta onartu duenez «soldataren zati handiena» horretan joaten zaio. Gehiago ere bada: «babesleen laguntzarengatik egiten dut aitzinera, hortaz hemendik haiei ere eskerrak eman nahi-ko nizkieke».

Pasatako denborak eta ordaindu beharreko guztiak, denak merezi du eta dena atzertzen da egun handia ailegatzeko denean. Beldurrek eta bertzelako pentsamenduek ez dute tokirik bere barrenean eta abiadurak errespetua eragiten dion arren, lasterketan momentuan ez du horretan pentsatzen. Horixe da pausoa eman nahi eta ausartzen ez direnei luzatutako mezua: «beldurrari kontra egin eta pausoa eman!».

Denbora ttikian aurrerapauso handiak

Pilotu trebea denik ezin da uka, eta lasterketa bat ikustea aski da zaletuentzat bere ikusizuna zeinen gustukoa den oharrezko. Bere ustez, pilotuak «burua erabili eta aldarte ona izan» behar du, baita «norberaren ahalmenak ezagutu eta horiek baliatzeko gaitasuna» ere.

Urtebete baino ez da pasatu Unsió pilotu hasi zenetik eta ordutik lau lasterketetan parte hartu du gidari. Horietatik «berezi» V. Ibardingo Igoera izan da: «etxean izateaz gain nire kategorian txapeldun izan nintzen eta...». Orain, ondorengoei begira hasia da, eta zerrenda ez da nolanahikoa: «uztailaren 10eko asteburuan Jaizkibelgo Igoera, 17an Lesakako Rallysprinta, uztailaren 31n Etxalarko Usategietako Igoera eta abuztuaren 31n Iorrekako Igoera». Kopilotu duen Naiara Lukanbio lesakarrarengan konfiantza jarritz egiten du aitzinera, ahal bada denetan parte hartuz, «lasterketa bakoitza bakar-rra eta berezia» delako.

«IBARDINGO IGOERA BEREZIA IZAN ZEN NIRETZAT»

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. Herriko Etxeko Plazan etxea salgai. ☎616 24 35 30.



LESAKA. Koskontako bidea 9 hel-bidean, 90 m²ko pisua salgai. 3 logela. Garajearekin eta trastelekua-rekin. Prezioa: 170.000 euro negoziagarriak. ☎605 76 28 80.



ARANTZA. Zumarrendi baserria salgai. Bidea du etxe atariraino, baita ura eta argia ere. ☎606 96 02 37.



BERA. Etxea salgai 400m²ko lursailarekin. Terrazaren gainean bertze bi etxebizitza egiteko baimena eta proiektuarekin. Lauko bazkide kooperatiba, familia handi, edo partikularrentzako aproposa. ☎664 71 18 53.

BERA. Iparkarria 3an etxea salgai. bi solairu, bajera eta lur eremuarekin. Erreforma egiteko. ☎620 00 68 87/ 948 63 03 92.

ERRENTAN HARTZEKO

BERA. Lau lagunekoa familia batek pisua behar du alokairuan hartzeko. ☎640 29 82 58.

BAZTAN. Bikote euskalduna Baztan aldean errentan hartzeko pisu edo baserri bila; erosteko aukerarekin. ☎637 35 56 45.

ELIZONDO inguruan pisua errentan hartu nahi dute. ☎622 40 21 95.

Umea duen bikote batek pisu edo baserri bat errentan hartu nahi du. Biak lanean ari direnak. Lesaka aldean nahiago, eta bestela Baztan, Malerreka edo Bortzirietan. ☎622 74 52 14.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira
TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da
Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan
Bizum bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

Eskari handiagatik, alokairuko etxebizitzak behar dira. Baztango Higiezin Enpresa. ☎620 02 86 25 / 948 63 05 52.

SUNBILLA, DONEZTEBE, ELGORRIAGA edo **LEGASA** inguruan berehala bizitzera joateko etxe bat errentan hartu nahi dute, aitzinera begira erosteko aukerarekin. ☎646 77 42 02.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Ostatu-jatetxea errentan emateko, erretiroa hartu dutelako. ☎620 00 68 87 / 948 63 03 92.

LANA

ESKARIAK

44 urteko pertsona bat adinekoak edo haurrak zaintzeko lan bila. Or-

duka, asteburuetan edo interna ariko litzateke. ☎632 75 93 48.

Udan haurrak zaintzeko, klaseak emateko... lan bila. ☎677 09 95 99.

BAZTAN. Pertsona batek, lan egitearen truke, baserri batean denboraldi bat pasa nahi du. Pixka bat ordaintzeko prest. Baratzean eta sukaldean aritua. Aziendaren lanak egiteko prest. ☎657 44 81 35 (Iñaki).

Adineko pertsonak zaintzen esperientzia duen emakumea lan bila. Garbitasunean, sukaldean... ongi moldatzen dena. ☎694 42 03 10.

30 urteko neska bat haurrak zaintzen ariko litzateke. Ama, arduratsua. Berehala hasteko prest. ☎680 78 61 82.

ESKAINTZAK

ETXALAR. Baserri batean mutil bat behar dute lan egiteko. ☎669 33 61 88 / 659 14 83 53.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,12
- 1.koa 4,00
- 2.koa 3,85

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,23
- 1.koa 4,09
- 2.koa 3,95

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,20/4,30
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 7,30/7,60
- 8-10 kilokoak: 6,50/7,00

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 62 €

Zerri gizona 1,553€

Zerramak 0,810€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua ekainaren 11tik 18ra bitarteko prezioak)

Larhungo benta batean frantses pixka bat dakien zerbitzaria behar dute, lanaldi osoan aritzeko, orain hasi eta urrira arte. ☎607 56 60 22.

DONEZTEBE. Hiru urteko haurra zaindu eta etxeko lanetan esperientzia duen neska baten bila ari dira. ☎654 87 00 02.

ETXALARko Benta hotel-jatetxean, lanaldi osoan aritzeko, euskara, espainiera, frantsesa eta ingelesa dakien langile bat behar dute. Bidali curriculum info@etxalar.com helbidera edo deitu 948 63 50 00.

ETXALARko Benta hotel-jatetxean sukalde laguntzailea behar dute denboraldirako. Bidali curriculum info@etxalar.com helbidera edo deitu 948 63 50 00 telefonora.

Denda batean lanean aritzeko pertsona bat behar dute epe luzerako, lanaldi osoan edo erdian. Bidali curriculum: sustrabelardenda@hotmail.com.

BERA. Zalain jatetxean esperientzia duen sukaldari laguntzailea behar dute lanaldi osoan aritzeko. ☎ 617 72 34 75.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

LEGASA. Txakurkumeak oparitzeko. Interesa duenak Whatsapez galdetu. ☎696 17 85 29.



Mastin arraza garbiko **zakurra** oparitzeko. Oso jatorra, noblea, lasaia eta bizkorra. Bi urte. Ezin dutelakoz zaindu oparitu nahi dute. ☎620 09 05 95.

MOTORRAK

EROSI

Traktore txikia, 40 zaldi ingurukoa, erosi nahi da, ahal bada rotabato-rearekin... ☎646 16 27 70.

SALDU



John Deere 604 **traktorea** salgai. 11.500 euro. ☎687 66 50 89.

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK




ITUREN. Amezti auzoan giltza multzo bat harrapatu dute. ☎670 35 79 11.

EROSI

Eskualdeko baserri batean sagardoa egiteko sagarra behar dute. ☎663 59 17 76.

SALGAI

Ohe artikulatua salgai. Egoera onean. Sei hilabete bertzerik ez. 900 euro. ☎697 96 60 50.




Litera bat, bi oherekin salgai. Neurriak: 1,90 x 1,05 (oheak), osorik: 3,41 x 1,58 x 1,05. ☎627 89 39 62 / 688 91 06 24.




744 484 361

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT TALISMAN S.T. dci 130 CV
71.000 km - 15.500 €
Nabigatzailea, led argiak, erdi-larrua, aparkatzeko sentsoreak
www.talleressantesteban.com
DONEZIEBE - T. 948 450 282 - info@talleressantesteban.com



Bi motatako **aldamioak** salgai: batetik 2x1 kruzeta eta plataformarekin; eta bertzetik, europar aldamioak plataformarik gabe. 132 m² muntatuta. Interesa duenak ikus ditzake. ☎608 17 45 10.



Haritz egurrearekin egindako **baranda** salgai, 3,50 metrokoa. 500 eu-rotan. ☎651 07 48 65.

URTEBETETZEAK




Leitzako Lide
Urkiola Mariezkurren 7 urte bete ditu ekainaren 19an. Zorionak eta muxu haundi bat June, Izargi eta Haizederren partetik.




Unax Suhas
Etchartek urtea beteko du uztailaren 3an. Zorionak eta muxu haundi bat Ainhize, ama eta aitaren partetik!!



Aiala Bertiz
Etcheberriak 6 urte bete ditu. Zorionak printzesa! Aunitz urtez familia guztia- ren partetik, bereziki, Aimar, Ander, atta eta amaren partetik.



Elgorriagako Elai
Irisarri Telletxeak 8 urte bete ditu ekainaren 24an. Aunitz urtez, **Elai!**



Xabier Ugalde Fagoagak bi urte bete ditu ekainaren 29an. Aunitz urtez eta bi muxu haundi-haundi Arantzako eta Azpeitiko familien partetik.



Zorionak **Uxue Bikondo** eta **Julen Sarratea**!! Ekainaren 29an 14 eta 7 urte bete dituzuelako. Espero dugu oso ongi pasa izana zuen egunean. Muxu erraldoi bat familiaren partetik, baina bereziki Aritz, Oinatz eta Aroaren partetik.

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak TTIPI-TTAPAN!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta; TTIPI-TTAPAN **bulegora** etorrita, **postaz** argazkia eta testua bidalita (Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA) edo **Whatsappez** 744 48 43 61 telefonora idatzita.

Ordaintzeko: 5 € argazki ttikia eta 10 € handia. Bulegoan eskudirutan edo ERRAN.EUS/TPV/ORDAINKETA webgunean: kreditu txartelarekin, transferentzia eginez edo Bizum bidez.

SORTZEAK

- **Goya Lana**, Sarakoa, ekainaren 4an.
- **Maren Caballero Ponbar**, Lesakakoa, ekainaren 9an.
- **Elaia Eratsun Etcheberria**, Doneztebekoa, ekainaren 15ean.

EZKONTZAK

- **Begoña Apezetxea Azkarate** eta **Aritz Garbizu Arrillaga**, Baztangoa eta Pasaikoa, ekainaren 10ean Lesakan.
- **Iñigo Olabarri Lantz** eta **Ainara Roda Azpiroz**, Lesakakoa eta Leitzakoa, ekainaren 19an Lesakan.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 63 54 58ra deitu edo info@ttipi.eus helbidera edo Whatsappez 744 48 43 61 telefonora idatzi beharko du.



SARRERAK eta
BOLETOAK egiten ditugu

(0034) 948 63 54 58 | www.kulturkari.com

HILBERRIAK

- **Pello Zestau Zabaleta**, Berakoa, ekainaren 9an, 74 urte zituela.
- **Teodora Dorremotz Sarratea**, Elizondokoa, ekainaren 9an, 101 urte zituela.
- **Rosario Gainza Elgorriaga**, Berakoa, ekainaren 10ean, 94 urte zituela.
- **Martin Arrizurieta Azpiroz**, Leitzakoa, ekainaren 11n, 87 urte zituela.
- **Juan Jose Iantzi Amorena**, Berakoa, ekainaren 12an, 71 urte zituela.
- **Jose Luis Moreno Palacio**, Elizondokoa, ekainaren 14an, 54 urte zituela.
- **Fermin Lertxundi Amondarain**, Elizondokoa, ekainaren 16an, 82 urte zituela.
- **Hilario Jaimerena Igoa**, Elizondokoa, ekainaren 16an.
- **Fermin Santesteban Otxandorena**, Zubietakoa, ekainaren 18an, 81 urte zituela.
- **Mª Francisca Baleztena Alberro**, Doneztebekoa, ekainaren 19an, 88 urte zituela.



BAZTAN BIDASOA
Ehorzketak Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | **948 48 95 50**
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGÜ, A TU LADO

948 05 90 90
ENPATIA, HURBILTASUNA
ETA BEGIRUNEA
www.izarratanatorio.com

BEILATOKIAK: Elizondo,
Arantza, Bera, Igantzi
Doneztebe



IRACHE
tanatorioak



TANATORIOA



948 63 74 04 / 948 19 70 70 **LESAKA (Zarandia, 18)**

Zuen ondoan, betidanik

- Nafarroako hileta zerbitzuetan aitzindariak eta eskualdean zerbitzua ematen lehenak gara.
- Konfiantzako taldea osatzen dugu, errespetuz eta profesionaltasunez lan egiten dugu.
- Liderrak gara Nafarroan, zuen esanetara gaude.
- Zerbitzu integrala. Norberaren nahietara egokitutako agurrak.
- Aseguru etxe guztiekin lan egiten dugu. Zuk aukeratu eta guk kudeatuko dugu.
- Etxez etxeko zerbitzuetan adituak.
- Hilerrietako lanetan espezializatuak (partikularrak eta instituzionalak)
- Prezio lehiakorrak.

OROIGARRIA

Pello ZESTAU ZABALETA
2021eko ekainaren 9an hil zen

Beti izanen zaitugu bihotzean.



URTEURRENA

Maite AROZARENA BENGOTXEA
1958/07/18-2014/07/27
VII. urteurrena

Ama, 7 urte luze joan zinela,
Zure argia lurrean itzali zela,
Iluntasun haundia hemen utzirik,
Zure hutsa ezin inolaz beterik.
Jakín ezazu hurbil sentitzen zaitugula,
Gure memorian bizirik segitzen duzula,
Zurekin berriz topo eginen dugula,
Elkarri adieraziz gure arteko maitasuna.

ZURE FAMILIA

Bere aldeko mezak uztailaren 17an (Urdazubín) eta uztailaren 18an (Amaiurren).



OROIGARRIA

Jesus Mari LAZKANO ARRIETA
Arantza 1941 - Uruguai 2021

Txoriekin bat jaikitzen zinen
irribartsu ta kantari,
beti brometan eta alaitsu
eginak irri ugari.
Uruguai ta Arantza zure
bizitoki eta kabi,
Egun hauetan oroitu gara
zurekin ikaragarri,
eskerrak aunitz bihotz-bihotzez
gero arte Jesus Mari.

ARANTZAKO FAMILIA





KONTATU KONTUAK



Duela 51 urte Guardia Zibilak tiroz hildako Manuel Andueza gogoan. 1970ko ekainaren 15ean, edo zenbait iturriren arabera, urte hartako uztailearen 17an, Anduezak auto istripu bat izan zuen bertze gidari batekin Donostian. Guardia Zibila bertara agertu zen eta eztabaidan hasi zen beratarrarekin. Guardia zibiletako batek hiru tiro egin zizkion Anduezari eta hantxe hil zen, 39 urte zituela. Poliziaren indarkeriaren biktima gisa aitortua da, eta ekainaren 15ean Donostian egin zioten omenaldian horixe oroitu nahi izan zuten. Ekitaldia iaz egitekoa zuten, heriotzaren 50. urteurrenaren harira, baina pandemia tarteko, gibelatzea erabaki zuten. Ekitaldian Anduezaren senitartekoei, tartean, Esteban Andueza ilobak, indarkeria polizialaren biktimen hainbat senidek eta Eusko Jaurlaritzako eta Donostiako Udaleko hainbat ordezkariak parte hartu zuten. Berako Udalak ere omenaldia egiteko asmoa du.



Lesakako gazteen apustua. Giro ederra sortu zuen Iker Iriarte eta Mikel Leiza lesakarek ekainaren 19an egindako apustuak eta Lesakako eta inguruko herrietako jende anda erakarri zuen hitzorduak. Bietan bizkorrena Leiza izan zen, Lesakako plazatik Igantziko bentetara trenbidez joan-etorria (13 kilometro) lasterka egiteko eta 20 kiloko karga hartuta, plazatik Agiñako kaskora igotzeko bi ordu eta sei minutu behar izan zituen. Zortzi minutuko aldea atera zion Iriarteri. Agiñan egin zuten sari banaketa –ordukoa da irudia– baina lehia alde batera utzita, herrian eman zioten ospakizunei segida. Argazkiko kuadrilla sagardotegian bazkaltzeko bildu zen eta hala borobildu zuten eguna.

BERRIA



WEB eta MULTIMEDIA

MULTIMEDIA

Bideoak, animazioak, gif-ak...
informazioa modu erakargarrian.

• WhatsAppez partekatzeko kanpainak
(bideoak eta mikrowebak)



WEB ORRIAK

Enpresa, elkarte eta erakundeentzako
web orriak gailu guztietara egokituak.

- Landetxeak
- Komertzioak
- Gremioak...

Ordenagailu, tablet eta mوبiletara egokitua

Testu eta argazki galeriak

Kontaktu formularioa

Lokalizazio-mapa

Hizkuntzak aukeran



KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus
www.kulturkari.com


**ESKATU
AURRE
KONTUA**

PLAZAN BAZAN



SUDOKUA

Ordena itzazu dortokak handitik txikira (handienari 1 zenbakia emanez, eta txikienari 6). Ondotik dortoka guztien oskolak apainduko dituzu, honela: Lehenari edo handienari laukiak marraztuko dizkiozu, bigarren handienari hexagonoak, hirugarrenari erronboak, laugarrenari hirukiak, bosgarrenari biribilak eta seigarrenari uhinak.




GEREZI GARAIA

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.



OPORRAK NON?

Marraztu zure burua uharte galdu honetan eta basamortuan, gameluaren gainean. Nor marraztuko duzu aldamenean? Lagunen bat? Txakurra? Kolore biziz margotu.



INTERNETEN ERE BAI !
<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



Ttiti Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

784 zenbakiko irabazleak >

ttipi txartela

Josune Sorondo Odriozola
72673152-A
epemuga 2023/04
Zk. 372

ttipi-ttapa

ZOZKETAK

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



Bi sarrera

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

LA RHUNE

www.rhune.com/eu



Sarrera bat

ELIZONDO

www.giltxaurdi.eus



Sarrera bat

IRRISARRI LAND

www.irisarriland.com



Sarrera bat

BAZTAN ESCAPE ROOM

www.baztanescaperoom.com



Sarrera bat

**LI
BU
RU
AK**



• Pirritx, Porrotx eta
Marimotots. Musua
• Amaren intxaurrak



• Pirritx, Porrotx eta
Marimotots. Musua
• Sentitu, pentsatu, ekin!

Katxiporreta

www.katxiporreta.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



TTARTTALO

www.ttarttalo.eus



www.navarraaventura.com